

**SALBADOR ZAPIRAIN**  
**«Ataño»**



**ELTZAORRA**

# ELTZAORRA

AUSPOA LIBURUTEGIA

189

---

Auspoa Liburutegia  
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María 2, – Tolosa Gipuzkoa  
Tfno. (943) 67 12 82

SALBADOR ZAPIRAIN  
«ATAÑO»

# ELTZAORRA

AUSPOA LIBURUTEGIA  
1985

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Guipúzcoa)  
Fotokonposatzaile: Lente – Estella  
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)  
ISBN 84-7158-135-3  
Depósito Legal: NA. 1.567-1985

## ARKIBIDEA

Itzaurrea .....	9
Artzaiak jokoan .....	13
Batzarrean .....	20
Don Lukas, Argiña ta Dardar .....	32
Dardar irabazle .....	38
Dardar Aragoi'n .....	51
Garaipenaren ondoren .....	60
Dardar kontrabandista .....	69
Basajaun ta Bibote-Aundi .....	83
Dardar eta artzaiak .....	88
Eltzaorra .....	91
Alkatearen kezkak .....	96
Don Lukas ta Dardar .....	104
Endorearen irabaziak .....	108
Erretorea ta endorea .....	114
Igerpena bete .....	120
Diruaren atzetik .....	127
Basajaun ta Bibote-Aundi .....	135
Anttoniren kezkak .....	139
Intxixua ta Anttoni .....	147
Dardar ta intxixua .....	153
Erriko jaiak .....	162

Etxeko utsuna .....	168
Dardar .....	174
Uste gabekoa .....	180
Azkena .....	188

## ITZAURREA

Liburu onen gaia nondikakoa detan agertzeko eskatu didate, ta or dijoa itzaurre kaxkar au.

Etxean entzundako iru ipui txikiren joskera besterik ez da. Garo sartzera etortzen ziranak kontatuak. Jakiña, erdixka ikasiak.

Ni oraindik gaztetxoa nintzan, gure etxera biltzen zan gizarte artara sartzeko. Ipui garbiak baziran tartean; gordin askoak ere bai. Gaberdira arte jardungo zuen, berriz, aien parrandak. Gure naigabez, baña oiera bialtzen giñuzten. Gure base-  
rria xaarra nola zan, -gaur ez dauka orduko itxurik-, goiko salan bazituen sukaldera txulo batzuk. Andik begira egoten giñan entzuten, oiera joan bearrean. Askotan, ama edo beste norbait gora zertorela nabaitzean, laxterka oiera sartzen giñan. Baña kontatzalleak berean jarraitzen zuten. Orre-  
gatik, erdixka ikasi nituen.

Arratsalde bateko lana izaten zuten. Orduan gure sendia ugaria zan; baña denak gazteak. Aita bakarrik geratzen zan lanerako, eta aiek borondatez etortzen ziran laguntzera. Elkartasun bikaña, auzokoekin ondo etortzen baigiñan.



Illuntzean, maiaren inguruan exerita, kazuelkada aundi baten kontuak laxter egingo zituzten. Gero, gañetik, gaztañ erre ta sagardo-aukera. Tripa bete ezker, etzeukaten besteren irrikarik.

Jan ta edan gaberdira arte, etzan bertso zar ta berririk paltako. Aorik-ao zebiltzan ipui bikañak ere bai tarteka. Gaurko pelikulik onena bezin atsegiñez entzuten genituen.

Orduan gure etxera biltzen ziranak, denen ize-nak ez dakizkit, aspaldiko kontuak baidira, baña batzuenak oroitzen zaizkit oraindik: Florida-zaarreko Iñaxio, gizon bikaña ta indartsua, au urtero zetorren langillea zan; Martin Aitzondo'koa, *Kantxontxilo* esaten ziotena; Arkiri'ko Joxe Mari; Buenabentura'ko Joxe Antonio...

Beste bi edo iru baziran. Baña ez naiz aien ize-nez oroitzen. Denak aspaldian illak dira. Jainkoak zeruan ditzala. Arratsa aurreratu arte, an ariko ziran jan, edan, kantatu ta kontatu:

Dardarren indarrak eta lanak... Kataluña'ko burrukaria... Onek altzairuzko azkazalak omen zituela; aiek amar puñal bezela aurrera luzatuz, indarrean sartzen zala; bazituela illak ere, eta etzuela iñork aren erronkarik jaso nai izaten...

Eltzaorra, berriz, bere orroak egundoko kalteak egiten omen zituela. Neskaxen batzuk bazirala lertuta illak. Guk, berriz, dena sinisten genduen.

Emengo burrukarien berri, nik aita zanari entzun nion. Askotan, gañera. Altza'ko Bideaundi-goia'n, -ez dakit gaur utsa edo betea egongo dan, baña oraindik txutik dagoela uste det-, emen bai omen ziran bi anai indartsuak oso: Joxe Joakin eta Bixente.

Zaarrena zan indartsuena; baña gaztea askoz zauliagoa. Lau kargako kupela, ortxe zazpireun

kilo, biak ertz banatatik artuta, esku utsakin alegia, gerritaraño aidean aixa jasotzen zutela. Iru-reun kiloko burnia, bere oñen ondoan artuta, bitan edozeñek oñetatik metro bat inguru urruntzen zuela bultzada batean.

Milla kilo eduki baietz ta ezetz apustu ttiki bat eginta, zaarrenari jarri omen zioten bizkarrean. Noizbait, luzetetsirik, ala esan omen zien azpikoak:

– Jarri zaidazute lenbailen. Bestela, baniak ni emendik.

– Motell, motell, segundoak dituk bizkarrean daukakela.

Onen anai gaztea joaten omen zan, nere aitak zionez, inguru xamarreko errietara burrukari. Baña amar indartsu berekin zituela, zer gerta ere.

Otxoa ta Eltzekondo'ren garaian bezela ez noski; baña izango ziran tarteka olako burrukariak.

Ortik sortutako liburua dezute au. Ori da onen mamia.

*Ataño*

## ARTZAIAK JOKOAN

Ermita txiki baten ondoan, bazan ardangela koxkor bat. Garai artan, armal-arrobia zala-ta, ondo zijoana. Lanak bukatu ondoren, erdi porrot egin zuen. Gaur oraindik txutik badago ere, ia erorian. Ezker aldeko tellatuak azpia jota dauka, noski. Oraindik bizi da, baña akerra baño egoskorragoko mutil zar baten mende.

Ez dauka gaurko egunean jendeak orduko joeirik. Izan ere, bazter guzietan ura ez bezelakoak ari dira zabaltzen: askoz txukunagoak, aukera ohea, erosoagoak, saltzalleak ere maitaleagoak.

Orduan bai, joan-etorri aundia zeukan ara, baserri artean ta bide zabal baten ondoan baidago.

Igande ta jaietan batez ere, jendeak joera polli-ta zeukan. Inguruko nekazari ta artzaiak maitea zuten, negu aldean beñepein. Baña «kontrabandisten kabia» izen orrekin zan ezagutuena. Beren batzarrak an egiten omen zituztela. Antziñatik ori zegon zabaldua.

Alare, negu-partean artzaiak ziran jabe. Goierritik etorritako ta inguru aietan bizi ziranak, ura zeukaten beren babesas.

Udazkenean, bada, mendi aldetik jetxiak, eguraldi on eta txar, illunabar aldera beñepein, onera biltzen ziran, txarra zanean artaldea estalpean utzita, ona bazan, berriz, txakur baten mende mendi-egalean ta larrean. Bitarte ortan zurrut lasai gure artzaiak.

Amaika toka, toka zar ta mus jokaturako taberna.

Ipui onen asieran, beñepein, elurra egin berria, ardiak estalpean zeuden. Artzaiak, berriz, betiko lekuan eta musean.

Mai baten aldamenen exerita, erdian pitxar bat ardo, bakoitzak bere ondoan baxoxka bana ardo erdi ustiak, tarteka-tarteka txurripada batzuk egiñaz, jokoan ari ziran. Bateko mus, enbido ta ordago, etzeukaten mozkortzeko beldurrik. Ia arratsalde guzian an bazeuden ere, etzuten oraindik pitxar ardo ura ustia.

Kartak artu ta nastu-nastu egin ondoren, maian utzi zituen eskuak, besteak ebaki zitzen. Onek, ebaki ondoren, ala zion:

– Aizak: ire txanda al dek kartak zabaltzeko?

– Bai, bai.

– Orduan ni eskutik nauk. Onak bota gero neri meserez, bi amarreko palta zaizkiguk bukatzeko-ta. Ea ogei ta amaika egiten detan.

– Bai; baña guk ustel bat zeukagu irabazia.

– Bazekiagu, motell. Ez-jakiñean etzaizute pasako. Zuen tranpa ta guzi, amarrekoren bat geiago badezute jaso onuzkero.

Kartak artu zitueneke, arpegi goibela jarri zuen eskuak. Etzeukan, noski, joko izugarririk. Ogei ta amaikarik ez beñepein. Tranpiz ere ari ziteken, bai, joko orrekin: mus eman, atzeskua arrapatzeko. Kartei bein ta berriz begiratu ondoren, mus eman zuen.

Atzeskutik ziranak, aurrekoak bezela ondo begiratu ta pentsatu ondoren, etzekiten mus eman, pasoan joan edo enbidoka asi.

- Zer egingo diagu? Dirudienez, eskua baraurik zegok. Ik pixar bat lagunduko baidake, tanto bat edo bi egingo nizkikek nik.

- Nik berriz denak, utziko balidate.

- Orrenbeste berriketa! -zion eskuak-. Atzera edo aurrera aguro erabaki zazute.

- Bai; guk ere obe diagu mus eman.

- Nik tanto bat egingo nuena, orain leporaño beteko zaizkiguk, eta joiek orduan!

- Nik etzekit besterik: eskuak dupleak edo ogei ta amaika, bietakoren bat badaukala, keñu txiki bat ikusi dit. Baña ez ondo ezagutzeko moduan. Ez dik garbi egin. Mus.

- Lotan al ago? Ainbeste keñu egin dizkit, eta ez didak artu.

- Bazenuten ordu.

Eskuak, naigabez, bi karta maiera bota zituen, beste bi artzeko. Ikusi zituenean, ala zion:

- Astoa saldu ta astoa erosi. Naiago nitek lengo kartak nerekin baneuzka.

- Kontuz begiraiok aurrekoari. Auek zearo bete dituk oraingoan. Obe genin lengoan moztu bagenu.

- Aukera jarri dit.

- Enbido aundira -jo zuen eskuak.

- Aizak: auek ez ditek ezer. Eukiko al ziot?

- Bi errege badauzkak, bai.

- Ez dit orrenbesterik. Ezta bearrik ere. Euki!

- Paso txikira.

- Enbido.

- Euki ori ere.

- Pareak bai.

- Ez parerik.

- Obe dezute. Bestela...
- Jokoa bai.
- Bai jokoa.
- Paso -esan zuen eskuak.
- Paso -urrengoak.

Eskuaren lagunak, artu baizuen keñua, «Enbido!» atzeskutik oiu egin zuen.

- Ire beldurragatik, ordago bertan joko nikek. Baña ire lagunak zeukak ogei ta amaika. Ezin diximulaturik zegok gañera. Ortarako atera dek eta. Utzi.

Kartak maiera botata, asi ziran kontatzen:

- Aundi eukia, bi; nere ogei ta amaika, lau; ta ire jokoa bat, zazpi. Jaso zak orrera amarreko bat.

- Txikira enbido ta eukia, lau tanto. Ainbeste ixtillutan ibillita, guk baño iru tanto geiago egin dituzute.

- Baña guk ustel bat ere bazeukagu irabazia.

- Bai, motell, bai. Etzaizute aztuko. Pitxar bat ardogatik beñepein, ez diagu negarrik egingo. Bazirudik, gizona, xomorroak dituzutela: dupleak edo ogei ta amaika beti, eskutik zeratenean.

Kanpoan elurra, ardiak estalpean, olaxe ari ziran lau artzaiak. Galtzen zuenak ere, etzuen izugarrizko interesik ondatuko. Arratsalde guzia lagun artean pasa ta illuntzerako pake-pakean etxera.

Ordura arte iñor etzan oartu, noski. Baña maian zegoen gazte aietako bat, bai. Ardangela txiki arek tranpizko zuloa bazeukala. Begiratu batean antz ezin eman zitzaiokena, ate batekin ondo estalia. Andik sartzen ziran, an zeukaten ezkutuko batzar-lekua, bere mai, aulki, edari ta guzi; orre-gatik esango zioten «Kontrabandisten kabia».

Gure lau artzaiak musean ta edaten lasai-lasai ari zirala etorrita, tabernariak, orma ondoan ze-

goen maratillaren itxurako ol txiki bat zapaldu ta atea zabalduz, barrura sartzen ziran. Baña norbaitetik barrutik erekitzen zion. Ezkutuko gelara zetozenak, bada, tabernariaren ezagunak ziran. Aspal-diko joera izango zuten, noski, ori.

Banaka-banaka lau sartzen ikusita, etzituen iñork aintzakoz artu. Baña bai bosgarrena: bi metroz inguruko gizon gazte xamarra, baña seralla, bibote aundi batzugin. Oñak atarian astinduz, sarrreran, oartu gabe, ate-gaña jo zuen buruarekin. Min pixarren bat artu ere bai. Imintzioak ala zirudien.

Musean ari zan batek, berritsuegia noski:

– Emengo atea gizonentzat egiñak dituk. Ez zuen gisako animalia tzarrentzat.

– Zer esan dek? Oraindik etzidak i bezelako ñaña batek olako isekarik egin. Belarrondoko bat artuko dek orratik!

Eta, txuxenean, esana betetzera zijoan.

Baña lau artzaietako bat ere erraldoia izaki, ta indartsuenetakoa. Zutitu ta aurrean jarri zitzaion:

– Kalma, kalma! –esanaz–, gizonaren izaera etzegok aundi-txikian-da. Broman esandakoak ala artu bear ditek. Iregatik ainbestexe esan dik neregatik. Bada ez bada, kontuz! Ez emen iñor jotzen asi! Umore txarrekoa baator, asi adi buruarekin orma joka. Baña utzi gizonei pakean.

– Ik nor naizen bai al dakik, neri kargu artzeko?

– Ezta bearrik ere. Nere buruaren berri jakitea aski dit.

– Merezi duena eman gabe ez dit iregatik utziko!

– Indarra lege daukaken oietakoa al aiz? Ez dekala ikuitzen!

– Aari-jokoan asi nai al uke?

- Ortaraxe ere bai, beartzen banauk!  
- Nik orrekin dizkit kontuak! Ez irekin!  
- Nik orain irekin dizkit, bada! Ta nere laguna jotzen asten diran guziekin, al badet beintzat. Aski al dek ori jakitea?

- Au ez dek ortan geratuko! Bakarrik arrapatuko aut!

- Orain baño aukera oberik, motell!... Ez dit iñoren laguntza bearrik.

- Ire mutur aundi oiek nik mazpilduko dizkit.

- Zer esaten dekan bai al dakik? Nai dekanean, nik ez dit atzerarik egingo. Luxea ta meia, laxter joko dek beia.

*Bibote-Aundi* pixar bat izutu zan, ta atzera egin zuen. Berekiko ala zion:

- Olako ume ausarditsurik ez dit oraindik arkitu. Baña neri arpegia eman didanean, ez dek nolanaikoa izango.

Ta, tabernariak, ol txiki ura zapaldu zionean, maiekoei begiratu zorrotz bat egin ta barrura sartu zan.

- Ikusi al dek ori? -zion izutua bromazaleak.

- Ikusteko modukoa al dek! Ori puska! Ori animala tzarra! I baño aundiagoa -zion bestek arrituta.

- Baña ni aurrean ikusi nauenean, atzera. Ezagutzen al detan galdetu! Zeñi ta neri! Naiago nin asi izan balitz. Luzeeran badik berea. Ortan ere ez dek, noski, ni aña. Xeralla dek, ordea. Orren sorbaldak estuak dituk. Txitxarea zirudik. Nere bular-inguruak, orrenak baño zentimetro batzuk geiago badizkik -zion lasai arpegi eman zionak.

Elurra zegoen eta nabarmen geratu zan oso *Bibote-Aundia*'ren oiñ-urratsa. Zutitu ta berea jarri zuen aren arrastoaren gañean. Arrituta ala zion:

- Nere oiñ-neurriak ez dituk nolanaikoak.



Baña ala jainkia! Nik baño ondotoz aundiagoko oñetakoak jazten dizkik orrek. Ata batek bezelakoak zeuzkak: zabal-zabalak. Ori ez dek, ordea, ni bezin sendoa. Saioxka txiki bat pozik egingo nikek nik orrekin, bost minutu baño len bildu baietz.

– Etzekit nola etzeraten asi. Aukera jarri diok. Izutu egin dek irekin.

– Laxter joango uan maipera.

– Bai; ire gorputzak, orrenak baño indar-itxura ohea zeukak. I, ordea, oraindik gaztetxoa aiz, bost minutuan ori menderatzeko. Zimela ta zalla zirudik. Ea oraindik orrek menderatzen iñuken. Urteetan orrela dabillena dek. Ori dala, uste dit, lengo urtean txapeldun geratua.

– Nerekin neurtzen bada, aurtengoan jai zeukak. Oñak eta burua elkarri musuka laxter jarriko nizkiokek nik orri.

– Ire aurrean atzera egin dik noski.

– Ez nauk arritzen. Gu lau bagiñun ta ura bakarrik. Baña ezeren asarrerik gabe nai nitek proba txiki bat egin orrekin.

– Atera adi txapelketara ta an neurtuko zerate.

– An ere ez dek nere aurrean jarriko ori.

– Bere txapela galdu edo jokatu bearra zeukak.

– Etzekit, bada, gizon ori ez ote dagoen joana. Zurrutari emana zirudik. Ortarako, gañera, itzezin ta gauzak konpondu bearrak zeudek. Garaile atera diranak il dituztela ere entzuna zeukat. Ni etxe-koia ta pake-zalea nauk.

– Zer egiten ote dute oiek lurpeko gela txiki ortan? Eta nor ote zan barrutik zabaltzen zien ura?

– Kontrabandoko gora-beerak ibilliko dizkitek, noski.

– Aspaldian emen gabiltzak; baña ez gaituk gaur arte oartu.

– Tabernariak denaren berri jakingo dik. Guk etzeukagu, ordea, or zer ikusirik. Or konpon ditezela!

– Oraindik saioxkatxoren bat egin bear dit orrekin, berak nai badu beñepein –zion gazteak.

– Etzaidak iruditzen ori oso zalla danik. «Erri auetan bat bada» bota zak erronka. Igerriko diok aguro asko jasotzen ditekela. Sar adi, bestela, urteroko txapelketan. Beti egiten ditek ori. Etzekit zenbaterañokoa. Baña erri-aldeetan banatua zegok. Batean gallentzen danarekin jokatuko dik besteko txapeldunak, alik eta irabazten dijoan arte. Denetan gallentzen dana, txapeldun. Ik aurpegi eman dioken anka-luze ori dala, uste dit, joan dan urteko garailea.

Illun-bistan, galdu zutenak ardoa ordainduz, pakean etxera joan ziran, baña gazte ura *Bibote-Aundia*'rekin jokatzeke irrikan.

Aiek aldegin zutenean, lasaitu zan tabernaria.

## BATZARREAN

Ezkutuko gela txikian bost lagun sartu ziran tabernako atetik; baña sei zeuden batzarrera bilduak.

*Basajaun* esaten zioten bat zan seigarrena, beste atetik sartua ta kontrabandisten buru egiten zuena.

Au ille ta bizarrez estalitako gizona, etzizaion arpegirik ere ikusten. Bere adiskiderik kutunenak ziotenez beñepein, etzuten ezaguna. Bakarrik

kontrabandisten artera azaltzen omen zala. Mòdu artara antzaldatua etorriko zan noski.

Aren berri jakingo zutela, ez dago zalantzik. Baña kontzientzi gutxikoa zalako, Justiziarekin zerbait izaten bazuen, bere mendekoak etzutela ezagutzen esan ta babes ohea zeukaten. Beti zakar mintzatzen zana, ta zurraren zurra, gañera.

Zearo bestelakoa zuen bere artaduna, Don Lukas deitzen ziotena. Au bai: langille guzien ezaguna, oparoa ta oso alaia. Au etzan batzarretara etortzen. Onek ere ez omen zekien *Basajaun* nor izan zitekenik. Ijitoen artean zebillen auzia, ta berak jakingo zuten aren berri.

Denen buru bezela, bada, batzarrean onek artu zuen itza:

– Biar Don Lukasek etorri ta ordainduko di-zuete zuen saria. Baña gaurko batzar au ez degu kontrabandoko gora-beerak erabiltzeko izango. Kontrabando-lana ondo dijoa. Irabazia ere bada-tor. Ekarri-ala ezin saldurik ez daukagu. Geiago baletor ere, nork arturik ez litzake paltako. Ogeik sari polita badakarte, berrogeik geiago. Naiago nuke iru bat berri geiago billatuko bazenituzteke. Baña sasoikoak eta mutil indartsuak. Osasun onekoak, alegia. Zaarrekin ez dago segurantzirik. Erditan ez dira garaiz etortzen. Bidean ere motelak. Kontrabandoa galtzeko arraixku aundia. Azkena erori diranetan, denak zaarrak galdu dira. Oiek, berak pentsatu bear luteke, ortarako ez dutela bali-o.

– Eta irabazi guzia zuentzat bear al du? Ez al degu guk ere ortik geron zatitxo bat merezi?

– Zergatik ez diozute ori, galerak datozenean? Zuek, orduan ere, beti bezela jasotzen dezute, ta galera guziak nere bizkar geratzen dira. Kontrabando bat galtzen degunean edo ebasten digute-

nean, zuentzat ez dago gutxitzerik. Dena nik galdu bear. Nere illabeteko irabaziak or ziazik.

– Langille berriak billatzen errexa da, ondo ordaindu ezkeru. Or dago kroxka!

– Nik aña ordaintzen duen kontrabandistarik ez dezute lurraren gañean bat arkituko. Nik bada-  
kit oien berri.

– Eta or tarteka-tarteka galtzen zaizkigun kontrabandista zaar oiek, nola ezkutatu litezke azta-  
rrenik utzi gabe?

– Ori ez dago nere eskuan. Esanaren paltan ez dira galtzen. Kontrabando-lapurren lana da. Ori: garaiz geratuko balira, elitzaieke olakorik gertatuko.

– Orduan, zaartzen diralako arrapatzen dituzte?

– Zalantzik gabe, ori!

– Ez nator zure iritzi orrekin bat. Kontrabandista bidean iltzen badute ere, kontrabandoa norbaitek ekartzen du.

– Zer esan nai zenduke orrekin?

– Esan detana besterik ez: ez dala neretzat ori ulert-errexu.

Aldamenekoak aopean ala esan zion:

– Zaude ixilik. Bestela, zu eroriko zera urrengoan.

– Utzi zaiogun orri pakean. Ortaz urrengo batzarrean itzegingo degu, garrantzi aundikoa baita.

– Gaur urteroko txapelketaz itzegitera bildu zaituztet. Garaia laxter da ta ez genduke utsegiterik nai. Orain arte beti joan gera. Txapela ugari ekarri ere bai. Geienetan, gurekin lanean ari daren bat izaten degu aukeratua. Aurten ere ala nai genduke. Zer moduz zaude zu, *Bibote-Aundi*? Ondo zaintzen al dezu zere burua? Ondo ezi ta oitua al zaude? Sei urte jarraituetan zu atera zera

txapeldun. Igaz, orratik, naiko lanak bazenituen. Orduko gazte indartsu arek sekulako erronka bota digu. Ez dakit zenbat ontzako urre jokatu nai dituzten aurten, txapeldun atera baietz. Orretaz gañera, beste erronka bat ere badu egiña, beste ontzako urre batzuk jarriz, emendik dijoana bost minutu baño len menderatu baietz, joan dan urteko txapelduna bada. Berria bada, berriz, amarren epea ematen dio. Lengo urteko gazte ura, dirudieenez, indarrean dago. Zu, beñepein, ondo eskaxtzat jotzen zaitu. Jakiña, arek badaki zure berri: onenak emana zaudela ta orain etzerala orduan baño geiago izango. Zuk zer diozu, *Bibote*? Aren arrokeriak zapalduko dituzun itxaropenik bai al daukazu?

– Ni, lan auetarako, igaz ere zaartu xamarra nintzan. Aurten beste urte bat geiago. Ura goraka, ni beeraka noa. Nere burua nola zaintzea nai dezu? Nik ez daukat errentarik. Beste ezi-leku oietara joateko modurik ere ez. Gutixi oiek denak Jantzi, ez ori ere oso dotore. Bizitzeko aña jan. Beste irabazirik ez dator onera. Zergatik ez dezute egiten, aiek bezela, elkarte edo soziedadea, arek mantendu ta zaindu dezan burrukaria? Eunen bat badaude sallean. Illero-illero uskeria emanarekin, nai duten bezela ezi ta zaindua daukate mutilla. Eguneroko lanetik ezin bizi naizen onek, aren aurrean zer egin nezake? Au da nere galdera.

– Orduan, erronka oiek jasotzea etzaizu ondo iruditzen?

– Irabazteko itxaropenetan ez beñepein. Igaz, dakizuten bezela, doi-doi menderatu nuen, suertez noski. Oraindik etzegoen ondo ikasi ta zaildua. Baña arek bazeukan saltzeko ere indarra. Ni ez naiz, berriz, orduan baño geiago. Geronekoan, be-

rak etzekiela, azokan ikusi nuen. Zezena zirudien. Aren lepo ondoa! Aiek beso-zuztarrak! Ura borra-karako moldatua dago. Ari eutsiko dionak, ez du nolanaikoa bearako. Ni aña luze ez da; baña kiloz ondotoz jantziagoa noski. Geiago dala orain, ez det zalantzik egiten. Baña ez dituela bost minutuan nere lanak egingo, ori bai: jokatuko nioke edozeñi.

– Atzera egiten dezu orduan?

– Ori egundo ez. Apizio gaitza daukat nik ortarako. Ta ara dijoanak, badaki irabazteko aña arraixku daramala galtzeko. Nai dezutenerako, ni emen naukazute. Baña ez nerekin, gallenduko naitzen itxaropen geiegirik eduki.

– Beren erronkan diru asko jartzen digute. Zuk ez badaukazu itxaropenik, zedorrek baidakizu ondoen zere buruaren berri, ez degu jasoko. Nekez irabazten degun dirua, ez daukagu orren errex arraixkatzeko.

– Nik egiñalak egingo ditut. Baña badakit, alare, ura geiagoo dala.

– Don Lukasek min artuko du. Ura baita gora-beera auetan saiatzen dana.

– Ori baño okerragoa litzake jokatu ta galtzea. Ni gertu nago burrukarako. Sei urtean txapeldun izanta noizbait erortzea, ez da neretzat lotsagarria. Baña ez nago bear bezela zaildua. Ontzako urre oiek beldur ematen didate. Nere ongille bat ez nuke lur jota utzi nai. Zenbateraño irixten naizen badakit; eta arek, opizioa ikasi badu, ni baño geiago bear duela ere bai. Ori nor da, gañera, neri desapio au egiteko? Denak menderatzean, datorrela. Ni naiz oraindik txapeldun. Orduan, nor garaille jokatuko degu. Orain arteko legeak orrela dira.

– Arrazoi daukazu ortan, Praixku. Orain zu menderatuko baziñuzke ere, ez litzake ura txapel-

dun geratuko. Or tartean norbait ohea azaldu liteke. Baña ontzako urre oiek eta dakarzkiten arrokeriak, ez didate onik egiten.

– Onek ez badu nai, ezin ote liteke beste bat onen ordekoa billatu? –zior batek.

– Ez da errexa izango ori. Opizioa erakusteko betarik ez daukagu gañera. Perretxeoak bezela ere ez dira sortzen, ari aurrea emango lioteken gizonak. Tarteka-tarteka azaltzen diran bakan oieta-koa baita ura. Au ere bai. Baña zaartua baño okerragoa da onentzat bere buruari utzi diola; ta puska bat zurrutari eman ere bai. Ta, lan oiatarako, indartsu, iraupentsu ta zaulia bear batek. Arek urteetan iraun lezake, onek bezela. Baña ari ere zaartzean arrokeriak joango zaizkio. Beera bear ori berezkoa du sorkari guziak. Saiatzea, alare, ez dago gaizki. Al bada, erri ontakoa.

– Billaua zera orratik zu, Basajaun. Aste guziko zazpi egunetan ez da pitxar bat ardo pasatzen nere zintzurretik, eta edariak menderatua nagoela? Gizonaren itxura duenak, ez dit neri askotan olako isekarik egingo.

– Minbera zaude. Ospelaren zaña zapaldu al dizute, edo zure eziñaren oñazeak guk jasan bear al ditugu?

– Zuk lagunduta, beñepein, ez naiz asko indartu ta zaulituko.

– Besteak añaxe saritzen zaitugu, lana ere berdiña dezute-ta.

– Ez dakit perretxeoak bezela sortzen diran edo ez. Baña nik bat ezagutzen det, ogei urtetan gora-beera ortxe ibilliko dana. Lana auetarako gaztetxo, aukeran. Au aña luze bada. Askoz sendoagoa, berriz. Gutxieneko, ogei kiloren aldea badaukate arek eta onek. Indarra ainbeste juizio

badauka, aren aurrean ez da beti atsegin izango, berezko ona badu ere.

– Inguru xamarrekoa?

– Bai, bai, Bertakoa. Dardar baserrikoa. Ni emen sartu naizenean, beste iru artzai gazterekin musean ari zan. Nekazari ta artzai oietakoa. Dardar esaten diote, baserriaren izenetik artua. Bataiokoa, berriz, Joxe Iñaxio. Gazte arrigarria. Azkar ibilli obe dezute, bat baño geiago badabiltza noski aren atzetik eta.

– Gu ortik igaro gera. Baña ez degu olako animalirik ikusi, olako kankalluak beti ikusgarriak izaten dira baña –zion batek.

– Nik bai, ikusi det –erantzun zion *Bibote-Aundi*'k-. Aietako batek animalitzat artu nau; ta, ari kargu artzera noala, aurrean jarri zait, «Kalma, kalma!» esanaz. Ez dakit begiondoko bat epe-la nola ez diodan eman.

– Leku onean asiko ziñan. Laxter jasoko zenituen ordañak.

– Aundiz zer moduzkoa da? –galdetu zion Basajaunak.

– Bai, bai. Aunditik badu berea. Ni aña luze bada, ta gorputz sendo ta egokikoa. Baña neri motel bat iruditu zait –zion *Bibote-Aundi*'k.

– Eta indartsuaren otsik bai al dauka? –galdetu zuen berriro Basajaunak-. Olakoa bada, onuzkero bere ezaugarriak emango zituen eta jendearen oso ezaguna izango zan. Arritzen naiz, gu emen bizita, orren indartsu-otsik nola ez degun entzun.

– Diruan bestetan pentsatzen al dezute? Oraindik gaztea baita, gañera. Indartsua dan edo ez galdetzen al didazute? Ez dakit mundu ontan azaldu ote dan olako besterik.

– Ala jainkia! Orrenbestekoa ere bai?

– Geronekoan, Dardar bere lanean ari zala,



idiakin gorozketan alegia, bi gizon etorri zitzaizkion zelaira billa. Ezagutu nai zutenak, beñepein. Zergatik ez dakit. Agian, beren erri aldera eramateko asmoan. Orregatik, aguro ibilli bear dezute. Ala galdetu zioten:

– Dardar non bizi dan bai al dakizu, gazte?

Galdetu orduko, antz eman zioten bera izango zala. Alako gizakia al da, izan ere.

– Bai. Ta ez daukazute urruti –erantzun zien.

– Non bizi dan, meserez esango al diguzu?

Bi eskuakin eldu zion atzetik gurdiari ta, pultsoan idi ta guzi batera jasoz, ala erantzun zien, aiekin etxea erakutsiz:

– An; aldapako baserri txuri artan.

Zer erantzun etzekitela geratu ziran gure bi gizonak. Bere arekin izketan jardun-aldi bat egin zuten. Zertaz mintzatu ziran, ori ez dakit. Baña beste egitekorik gabe etorriak zirala bai. Dardarrek ez du bere bizi-moduan aldaketarik egin. Baserrian jarraitzen baitu oraindik lanean.

– Ederki dago ori. Su ondoan entzundakoa noski –zion batek.

– Ori baño juizio geiago zeneukala uste nuen –besteak.

– Ez gera umetxoak, ipui oiek sinisteko –irugarrenak.

– Galantak botatzen badakizu. Baña onenbestekorik ez nizun entzun –laugarrenak.

– Aizezko idi ta gurdiak izango zituen –bosgarrenak.

– Gezurretan ari naizela uste al dezute? Neronek ez banu ikusi, ez nizuten esango. Ta, beste batek kontatu balit, nik ere ez nuen sinistuko. Baña nere bi begi auekin ikusia det nik ori.

– Motell, ago ixilik! Lurraren gañean sortu ote da oraindik olakorik?

– Aundiagoa ikusia diot nik ari, sekulako gurdikada egurra zeramaten bi idi-parerekin. Eguraldi kaxkarra zegoen eta bide zakarra. Azpia, berriz, biguña. Euri egin berria baizan. Eta lokatzetan lotua geratu gurdikada egurra. Alegiñak jota, eziñean geratu ziran bi idi-pareak. Erdia bederen ustuta atera bearko zutela-ta, lanean aстера zijoazen. Ala bear ta orduantxe zetorren Dardar menditik etxe aldera, gurdikada ura añako sorta bizkarrean zekarrela. An aurrean zama bota ta esan zien:

– Ezin atera al dezute?

– Lokatzetan sartu zaigu. Idiak ere labaindu, berriz, azpi biguñ ortan. Ezin dute indarrrik artu. Erdi ustuta atera bearko, lan luzea da baña.

– Kendu idi oiek ortik.

Lendik ezaguna zuten gazte indartsuenetako bat zala; baña beren ustez ain eroa zanik ez. Bi idi-parek ezin zutena, arek bakarrik nola egin bear zuen? Arrituta, ala esan zioten:

– Idiak kenduta, zer egin bear dezu orrekin? Oiek or daudela laguntzea, ez al litzake obe? Bakarrik oiek baño geiago zeralakoan al zaude?

– Bakarrik atera baietz!

Etzutela berdin denbora asko galduko ta kendu zituzten, ea gazte ero ura zenbateraño irixten zan.

Erdi arrastaka sartu zan gurdipera doi-doi. Lokatza baizegoen. Etzeukan ibiltzeko lekurik ia. Nolabait igaro ta gurdiaren ardatza bere bizkar gañean artuta, gurdia, anakak balitu bezela, polliki-polliki zutituz, zama garrondoan zuela, *ttakattaka* aurreragoko bide berdiñera eraman zuen. Jasotako gisara, geldi-geldi utzi ta arrastaka erten zan gurdipetik. Neronek nere begiakin ikusia. Au, beñepein, ez al didazute ukatuko. Ametsetan ari ote ziran, gure bi itzaiak, begiak ondo igurtziz,

xor eta xur egiñak, begira zeuden, zer pentsatu ta zer esan etzekitela.

– Zure berri entzuna genduen; baña ez onenbestekoa ziñanik. Sanson, diotenez, zerbait izango zan. Zu baño geiago bai ote gero? Burruka-zaleak billatzen bazaituzte, badaukate puska baterako txapelduna. Eskerrik asko, gazte. Ez diguzu lana gutxi aurreratu.

– Ez orregatik –egin zuena askotan egiten oitua balego bezela, lasai-lasai ala erantzun zien–. Burruka-zaleak diozute? Len ere izanak dira. Baña nik ez daukat ortarako gogorik. Pake-zalea naiz.

– Mundu au nolakoa dan ikusteko, ez dezu opizio oberik arkituko –erantzun zioten.

– Ez, nere burua galtzeko ere. Nik lana egin ta besteak kobratu. Azokaz-azoka dabilkiten artza bezela ibilliko niñuteke munduz-mundu. Balioko nuken arte, nere bizkar besteak egingo luteke dirua. Ni, berriz, arratoia baño beartsuago, ez etxe, ez fameli, iñorako ez naizela, mutil zaartuta zokoratua geratuko nintzake.

– Aizu: ortan arrazoi osoa ematen dizugu. Gaztea zera; baña ez kaxkariña. *Iñara* esaten ziotena berdin-berdin utzi zuten. Bere denborako ondatua, gañera. *Argiña*’rekin ori bera egiten asi ziran. Baña arek utzi egin zion lantegi orri.

Ezer egin ez balu bezela, bat-batean ainbesteko egur-sorta bizkarrean artuta, joan zan andik etxera.

Batzarrean zeuden guziak txorotxat artu zuten; eta, geiegi edana zegoelakoan, parrari ekin zioten.

Basajaunak orduan serio-serio erantzun zion:

– Olo-ipurdiren batzuk jan ote dituzu gaur? Berriketarako gogoia badaukazu, beñepein. Ez gaudede jolaserako. Serio erabaki bear degun lana da

au. Ametsetan ari al zera edo txorotzat jotzen gaituzu?

– Ez nabil ametsetan. Ez naiz gezurretan ari ere. Ikusten dezutenean, zerok emango didazute arrazoi.

– Onek dion bezelakoa bada, bere sudurreko aizearekin ere aidatuko nau –zion *Bibote-Aundi*’k siniskaitz. Aparteko gorputza zuela bai; berak ikusi zuen ta. Baña ez orren indartsua.

– Orrenbestekoa danik, ez degu sinisten. Andaluzkeriak dira oiek. Baña olako gizona bada, Don Lukasi esaiozu lenbailen. Badakizute ura degula lan auetarako aukeratua. Eskola ederra ere badauka. Gizarterako, berriz, aproposa da. Doai berexiak eman dizkio Jainkoak. Don Lukasek opizioa non ikasi erakutsiko dio. Bere denbora bear du. Berdin etsaiak ondo erakutsiak etorriko dira.

– Ez daukazute ortan ere buru-austerik. Opi-zioa ikasten dabil aspaldi ontan. *Argiña*’ren agin-dupean, gañera. Nere beldurra ez da besterik: agian norbaitek aukeratua edukiko duela.

– *Argiña*’rekin gu ez gatoz ondo. Baña ori Don Lukasek konponduko du. Gure erri aldekoa bada, Dardar ez dauka iñork eramateko eskubiderik, erriak ez badu nai. *Argiña* ere oso etxe-koia da.

– Bera ikusitakoan, eta *Bibote-Aundi* onekin saioxka bat egin ondoren, erabakiko degu aien erronkak jaso edo ez jaso. Ontzako urre mordoska polita jarri nai dute aieka artakoak. Irabazteko itxaropenik badauka, nonbaitik aterako degu bear degun ainbat diru. Erri-alde ori bein gallendu zaigu. Zuk diozun Dardar ori olakoa bada, uste ez duten ipurdikoa eman bear diegu. Zuk, *Bibote-Aundi*, saioxka bat egingo al zenuke orrekin, zenbateraño-koa dan ezagutzeko?

- Ni oraindik txapeldun nago. Ballara guzieta-koak menderatuta badator, beartua nagoen ezke-ro, jokatuko diot. Ez det atzerarik egingo. Bitar-tean, probak egin nai baditu, or dauka bere mai-sua, oraindik, askok diotenez, ni baño obea omen-da-ta. Erronka bota duenak ere, ezin lezake olako-rik egin. Ez baita txapelketarik asi. Besteak men-deratuz datorrela, ta orduan jokatuco degu nor txapeldun.

- Beldurtu egin zera. Alare, ez badezu nai, zure esku dago. Baña indartsu batek bota lezake erronka ori: neurtu nai duenik bada.

- Ez daukat jokatzeko beldurrik. Ni garaile ge-ratu nintzanean, denak menderatu ta azkeneko saioa txapeldunarekin egin nuen. Baña iñor desa-piatu gabe. Garaiz asiko naiz ordu ortarako tre-betzen. *Argiña*'rekin ez, ordea. Aspaldi ontan be-gitan daukat nik gizon ori.

- Zergatik? Gizon jator, iztun ta alaiagoak, gutxi ezagutuko dituzu.

- Utziogun pakean orri, denentzat ona danik ez da oraindik sortu-ta.

- Eta guk, zure orde, Dardar artzen badegu?

- Arek ballara guzietakoak menderatzen badi-tu, arekin jokatuco det.

- Aurreak erakutsiko digu nola dantzatu atzea. Zuk, beñepein, lenbailen emaiozu Don Lu-kasi gazte orren berri.

Ortan geratu ziran: ura jakiñaren gañean jarri ta arek konponduko zituela orko gora-beerak.

Batzarra bukatu ondoren, denak aldegin zuten andik. Baña seigarrena etzan erten, besteak joan artean. Gero, antzalduta aterako zan.

Sumindua zegoen *Bibote-Aundi*. Etzuen jokatu nai. Bai-baitzekien etzuela irabaziko. Baña Darda-

rrek ura menderatzen bazuen, betiko baztartuko zuten bera. Arrazoi geiago gabe, gorroto bizia artu zion.

## DON LUKAS, ARGIÑA TA DARDAR

Basajaunaren aldetik, Dardarri abisu txiki bat bialtzekotan geratu ziran. Baña ori Don Lukasek egingo zuela. Ura zala lan ortarako aukeratua.

Sari ematera etorri zanean, bada, esan zioten Bibote-Aundi baño gogorragoko mutil gaztea biltatu zutela; ta, beste norbait aurreratu baño len, beren sallera ekartzea komeni zala, zioten bezelakoa bazan beñepein.

Aren berri ikasi zuen. Baña Argiñaren maisupean ari zalako, egokiena lenengo arekin itzegitea iruditu zitzaion. Zapuztu xamarrak zebiltzan aspaldi artan, ta Dardar aitzaki artuaz pakeak egin nai zituen. Bitartean, jakin ea entzun zuen bezelakoa ote zan Dardar ori.

Joxe Argiña, zortzi urtean txapeldun izana zan, ta galdu gabe geratua, Don Lukas ta bere lagunakin asarretu zalako.

Sei urte baziran au gertaturik. Geroztik etzuten elkarrekin artu-emanik eduki. Itzegin ere doi-doi topo egitean. Agur bana egin ta bakoitza bere bidean aurrera. Orain zuen, beraz, Don Lukasek Dardarren aitzakitan pakeak egiteko aukera. Bai-baizekien beti ondo artuko zuela.

Txuxenean Jose Argiñarengana joan zan, bada.

Au alper-arriak egiten arkitu zuen. Inguru artan, bear zuten geienak, oni eskatzen baizizkioten. Burrukan ez-ezik, lanean ere etzan aldrebesea Jose Argiña.

Berrogei urtetik goragoko gizona, baña oraindik gordin ta zaulia. Jan-edanean neurrizkoa. Bere burua zaintzen zekiena.

– Kaixo, Joxe! –agurtu zuen argi-argi. Billau xamarra izaki. Zuri oietakoa. Izketan zekiena ta, bera beartzen zanean edo komeni zitzaionean, lagunari bere begirunea ondo gordetzen ziona.

Argiñak, serio, arritu xamarra:

– Ongi etorri, Don Lukas.

– Ari zerala orain ere betiko lanean...

– Ea zer erremedio! Bizi bearrak lanak ematen dizkigu.

– Ez dezula zertara natorren asmatzen...

– Zuk ere kanpaiak entzun al dituzu?

– Nongo kanpaiak?

– Emengoak. Dardarrenak, alegia.

– Bai. Nere egitekoetan bat, ori dakart. Bestea, berriz, elkarrekin adiskidetu. Aspaldiko partez gure artu-emanak txuxendu.

– Adiskidetu edo... Asarre ere ez giñan egongo. Itzegiteko beldurra: Zer erantzungo ote dit besteak? Gure asarrerik geienak, orregatik irauten dute.

– Bai. Ortan arrazoi daukazu. Itzegin nai, baña ezin ausartu.

Biak elkarri esku emanaz:

– Bai, egia: Dardarren gora-beerak jakin nai nituzke. Bibote-Aundi ez baita ausartzen andik datorrenarekin burrukatzera. Aitzaki au jartzen digu: bera txapelduna dala, ta ballara guzietakoak menderatuta datorrenarekin jokatu duela, bear-tua dagoen ezkerro. Baña arek, ortik kanpora, ez

duela iñoren desapiorik artuko. Ori, ordea, aitzaki bat da. Gallentzeko itxaropenik baleuka, neurtuko litzake. Erronka auetan irabazten baita dirua.

– Etsaia lengo urtekoa bada, Bibote-Aundik ez dauka zer egiñik. Orduan ere ura geiagoa zan. Nik erakutsi izan banio, etzuen galduko –zion Argiñak.

– Eta gazte au, esan diguten bezelakoa al da?

– Ez dakit zuei zer esan dizueten. Baña olakorik ez da azaldu. Mundu zabalean ez det uste geiagokorik arkitu litekenik. Gorputz aundia, berdiña, zaulia, besterik ikusi ez detan bezelakoa indarrez. Inguru ontan ez da, onek ainbeste indar daukan idi-parerik.

– Zu baño geiagoa?

– Nere sasoirik onenean ez nintzan onen itzala ere.

– Erri-alde ontan, orren ixilik modu ontako gaztea al daukagu?

– Bai, zalantzik gabe. Baña lan ori ez du gogozkoa. Zalla izango da au, opizio orrek eskatzen dituen neurrietan ibilli eraztea.

– Bibote-Aundiarekin saioxka bat egitea nai genduke. Baña ura ezetzean itxi da.

– Bibote-Aundi, nere zaarrean, oraindik ere bilduko nuke. Ez da orain arteko txapeldunen mallakoa ori. Dardarrek ez du ikusteko ere. Or kalean dabiltzan umetxo oien berdintsua da onentzat. Arnasik berotu baño len, aurrean jarri orduko, bildua dauka. Ori ez da beiñere burrukari ona izan. Indartsuen eskaxi aundia dago gaurkoan. Azaldu nai ez dutelako noski, ta norbaitek bear zuen txapeldun. Irabazirik ez dagoen lekutik, jendeak atzera egiten du.

– Zuk badakizu, iñork jakitezkeroz, burrukarien berri. Alare, orrekin saioxka txiki bat egin



gabe ez genduen joan nai. Erronka gogorra jo baidigute. Ez dakit zenbat ontzako urre. Arro xamar dator gaztea.

- Utziozu pakean. Sekulako begitan artuko luke. Jenio gaiztoko umea da ori. Burruka oni ere bere grazia kendu diote oraintxe. Dirua naasten asi ezkerro, kito!

- Ixilik eta gordean egiten diran neurketak dira auek. Baña zenbateraño irixten dan ikasi gabe joan bearko degu.

- Ez dio batere ajolik. Aski dezute nere itza. Erronka-zalea, Bibote-Aundi ta Dardar, irurak ezagutzen ditut. Au ez dago oietako iñorekin berdintzerik.

- Eskerrik asko, Joxe. Ta pozten naiz, errialde ontan olako gazte bat azaldu zaigulako. Orain Dardar berarekin itzezin nai nuke.

- Aldez aurretik esaten badidazute, joango naiz ikustera.

- Bai, gizona, bai. Garaiz abisatuko dizugu.

Adiskidetu ta aspaldiko partez agurtu ziran, «Laxter arte!» esanaz. Andik txuxenean, Dardarrekin itzegitera joan zan.

Garai bateko Polifemo bezela, pake-pakean artaldearen erdian arkitu zuen, bere makillaren babesean, eguzki atsegiñetan, inguruan ardiak laorean zebilzkiela, ta txakur txiki bat zaitzalle.

Ikusi zueneko, arrituta:

- Ori dek mutilla! -zion-. Oraindik gaztea, baña egundoko gizakia. Bibote-Aundi baño batere motzago ez. Baña benetan sendoa. Orren leporardatza! Orren beso-zuztarrak! Bestearen aldean, bikaña! Gorputz dotorea dauka. Bere soñ-atal guziak neurrizkoak. Ederrez ere, saria aterako zukeena.

Barea baño motelagoa ez bazan, saltzeko ere indarra bear zuen arek. Etsaiak botatako erronka, beren diru ta guzi, aien arrokeriak zapaltzeko moduko gizona iruditu zitzaion.

Argiñak arrazoi zeukan. Arek esana bezelakoa zirudien Joxe Iñaxiok.

Berarengana iritxi zanean, parrez-parrez ala esan zion:

– Arratsalde on, gazte.

– Baita zuri ere.

Arritu xamarra berekiko: Zein ote da au ta zertara ote dator?

– Giro dago noski artzantzarako.

– Bai. Garai ontan gutxitan egiten duen bezelakoa.

– Barkatu galdera. Baña zu al zera, Joxe Iñaxio edo Dardar esaten dioten ori?

– Bai, jauna. Uraxe bera naiz. Ezertarako bear banauzute, nerekin kontatu.

– Zuk ez nauzu ni ezagutuko. Don Lukas esaten didate, eta erri-alde ontako burruka-txa pelketaren gora-beera guzia nere esku dago. Beste erri-aldekoak oraindik bein irabazi izan digute. Aurtengoa galdutzat eman genezake. Igaz doi-doi gallendu zan gurea, arek opizioa oraindik ondo etzekielako, ta agian gazteegi. Aurten ez daukagu arekin zer ikusirik. Irabazteko itxaropenik ain gutxi. Igazko gure txapelduna, berak esan digunez, orduan baño aulagoa dago, ta adiña ere aurrera. Orrek ez du barkatzen. Zaartua baño okerragoa du. Bai, noski. Ogei ta amabi urte besterik ez dauzka. Zoritxarrez, zurrutari emana. Beste erri-aldekoa askoz indartsuagoa dator. Luzeeran gurea añakoa ez bada ere, onen aldean sendoa. Aurten sasoi ohea, berriz, eta ondo ikasia. Gure zainduak ez dauka zer egiñik. Eta arro-arro, seguru baleude

bezela, egundoko erronka bota digute. Ontzako urre-mordoska pollita ere bai, nai badegu jokatu. Igazko burrukan ezagutu nuen. Luzez au aña ez bada ere, kiloz jantziagoa. Gizon garratza da. Baña erronka au ez da txapelketarako. Oraindik ez baita asi. Ballara guziak desapiatzen ditu, nai duenik bada. Oien arrokeriak zapalduko bazenitu, ondo sarituko ziñuzket.

– Nik ez dakit geiago izango naizen edo ez. Amaren semeak denean dira. Baña saioxka bat egitetik nik ez det atzera egingo. Diruaren gorabeera zuen esku dago. Or konpon zuek. Ni zertaraño irixten naizen ikusiko degu. Baña ez da nerezat oso gogozko lana ori. Oraingo ontarako, nerekin kontatu.

– Ortarako, ordea, opizioa daukazu ikasi bearra. Erri ontan daukazute noski erakuslerik onena: Joxe Argiña, ainbeste urtetan txapeldun egon zana.

Au zer atera erazi esan zion. Berdin bazekien, Argiñak berak esanta, aspaldi artan arekin zebillela.

– Ia bi urte badira arekin nabillela. Baña etsai ori ez det ezagutzen.

– Bejondeizula! Bide erdia igaro degu. Igazko txapeldunak ez du zurekin jokatu nai.

– Ez al da ori bibote aundi, me, luxe bat? Arekin saioxka bat egin nai nuen ta...

– Bai. Ala da. Ezagutzen dezu orduan?

– Ezagutu? Arpegiz bai. Nonbait ikusia oroitzen naiz. Eta orduko txapelduna ura zala esan zidaten. A, bai! Geroneko batean, ardangelan, nere lagun batek iseka egin ziola ta ari kargu artzera zijoala, ortzak erakutsi nizkion. Ixil-ixilik bere bidean joan zan ta asmatu zuen. Baneukan, bada, nik arekintxe saioxka bat egiteko gogoia.

Aragizkoa bada beñepein, minutu gutxiren barru nere azpian bear luke. Beldurrak menderatu agian.

– Bai, noski. Utziozu pakean. Joka zala bere txapela. Baña zuk ori menderatzen badezu, sartu ziñezke txapelketa ortan, eta Bibote-Aundik zurekin neurtu bearke luke. Bestela, erretiratu. Ori, askok egiten dutena da, Joxe Argiñak bezela. Onek jarraitu izan balu, etzan Bibote-Aundirik txapeldun aterako. Gaur oraindik ere au geiago dala jokatu nuke edozer.

– Ori an ikusi nueneko, jana neukan; eta saioxka bat egiteko egokiera billa nenbillen. Ez badu nai, berak jakingo du zergatik.

Itxaropentsu joan zan Don Lukas. Batez ere, Joxe Argiñak kontatu zizkionakgatik. Etzala nolanaikoa izango, ordura arteko burrukaririk onenetakotzat zeukaten joa Joxe Argiña ta.

Dardarrek ere, bada, alegiñak egingo zituen Bibote-Aundiarekin neurtzeko. Bestela, erretiratu egin bearke. Or garaille ateratzen bazan, etzuen txapelketarik utziko.

## DARDAR IRABAZLE

Dardar ordura arte ezagutu etzan bezelako mutil gaztea zalako, don Lukas zorionsu zebillen. Bibote-Aundi etzuen ikusteko ere. Atzera egin zuenean, ori ederki bazekien berak.

Zenbat geiago ote ziteken, erronkak jotzen zi-

tuen ero ura? Askotan otsa ta zalaparta ibiltzen dute, bestetarako balio ez duten argi-ollar oiek.

Egundoko otsa zabaldu zioten. Etzan noski auntzaren gaberdiko eztula izango. Bere probak ez balitu eman, etziran ortara jardungo.

– Obe –zion Don Lukasek–. Sarean errexago arrapatuko ditugu.

Itxu-itxuan sinisten zuen onek Argiñaren itzetan: Dardarri lurra jo eraziko zion gizonik etzala bolara batean azalduko, berak lan orri eutsi nai bazion beñepein. Urteetarako zegoen txapelaren jabe. Jakiña: adiñak ura ere makurtu eraziko zuen.

Berak, ordea, ixilik egingo zuten lana. Arro aiei mokadu goxo bat kentzeko, bada, Don Lukas, ontzako urrez zamatua, beste lagun batzukin, izendatutako ardangelan zegoen. Esandako ordurako etorri ziran besteak ere. Denak tabernara sartu ziran, jokorako baldintzak jartzera.

– Emandako erronkari eusteko asmoan al zatzote? –galdetu zien Don Lukasek.

– Bai orixe. Ez giñan etorriko bestela. Gu lekuko ta guzi gatoz, jaso nai duenik bada, dirua esku seguruetan jartzeko zorutzen. Zuen erri-alde ortan amaren semerik bada, bi erronka oiek zutik daude oraindik.

– Bai, egia. Zuek bi erronka bota dituzute: Bat, zuen zainduak irabazi baietz. Bestea, berriz, amar minutu baño len, lengo urteko burrukaria bada. Baldintza au ez degu betetzen, berria baidakargu. Orain, zuek atera kontuak.

– Berdin digu bat izan edo bestea. Lengo urtekoa baño askoz geiagoa ez al da izango. Ez gaude atzera egiteko.

– Aipatutako ontzako pilla ori al daukazute jokatzeko? Geiagorik ez?

– Oiek eta geiago botatzeko prest gaude, zuek nai badezute.

– Ori bada zerbait. Itxu-itxuan ortaraño auzartzen zeratenean, gazte indartsuren bat badaukartzute. Bestean ere amaren semeak azitzen dira gero...

– Bai. Baña gurea bezelakoak banakak, Gipuzko aldean beintzat. Burrukarako aukeratzen degun egunean, ikusiko dezute aspaldi ontan ez dala gurea bezelako gazterik azaldu. Ura zapaltzezkeroz, oraindik agertu ez dan bezelakoa bearko du.

– Joxe Argiña baño ere ohea?

– Ori ez dago neurtzerik. Joxe Argiñari itzal aundia diote denak. Baita gure indartsuak ere. Ura, burrukari berdin gabea bezela da gizon gizarterko ta ona ere.

– Gu apal-apal gatoz, zuen erronkari eusteko asmoan. Gurea ez da ainbesterañokoa izango noski. Alare, ez gaude atzera egiteko. Gure lengo txapelkunak ez du erronka onekin ezer ere jakin nai. Denen irabazlea datorrenean, beartua dagoen bezela, legepean jokatuko duela bere txapela.

– Orduan au geiago dezute?

– Ez dakigu. Ez du onekin neurtu nai izan. Txapelketarako bera izango degu. Baña erronka ontan ez du sartu nai izan, burruka orri bere indarra ez kentzeagatik noski. Ez dagoela bear bezela ezi ta zaildua esan digu. Oraindik sei illabete badaudela, ta ordurako bere puntuan jarriko dala noski.

– Datorrena datorrela, gurea autsiko duenik ez da ortik azalduko.

– Gure indartsu orren berri badakite, bai, onuzkero zuen ixpiak.

– Ez. Gu zearo baraurik gaude. Ziur geunden Bibote-Aundik jasoko zuela erronka.

– Sanson bada ere zuek dakartzuten ori, botatako bi desapio oiek jasotzen ditugu, zuek jarritako neurri berean gañera.

Bi aldeak atera zituzten ontzako urreak, eta taberna bertako nagusia jarri zuten kutxa-zaitzalle, paperik edo itunik izenpetu gabe. Orduko euskaldunen artean etzan olako oiturik. Bi aldeetatik baziran bina lekuko: burrukako epailleak eta tabernaria bera. Aien aurrean etzegoen gezurretan asterik.

– Gure bi erronka auen gañetik, ez al dezute zuek beste zerbait jokatu nai?

– Lurraren gañean besterik ez dan bezelakotzat daukazute zuena. Zein ausartuko da ortaz gañera beste erronka bat jotzen? –erantzun zien Don Lukasek–. Alare, ez gera bota gabe geratuko. Beste apustu txiki bat egin bear degu guk ere: amar minutu baño len menderatu baietz gureak zuena.

– Alajainkia! Gu baikorrak gerala; baña etzerate zuek ere atzera geratzekoak, «gureak amar minutu baño len menderatu baietz» jokatuta. Parrregarria izango litzake zuen ori ez artzea. Zenbat ontzako jokatu nai dituzute? –zioten aiek.

– Zuek baietzean ainbeste.

– Irabaztuna aberastuko da. Galtzallea balijoa-ke aga batetik bere burua urkatzera. Oraindik ez degu olako diru-putzurik jokatu.

– Galdu edo irabazi, diru-putzu orrengatik berdintsu geratuko gera zuek eta gu. Gure gisa, talde bat daukazute noski, ortarako jarria. Arek botatzen duen dirua da ori. Bestela, bakarrak ezin lezake orrenbesterik arraixkatu. Baña azkeneko au nere patrikatik erten da. Alare, kirol garbi oni bere grazia kentzen ari gera. Ez genduke xentimorik jokatu bear.

– Tarteka olako batzuk jokatuagatik, etzaio bere grazirik kentzen. Txapelketarako dirua jartzen asiko bagaña, bai.

Elkarri esku emanaz, onela esan zuen talde batek:

– Galdu edo irabazi, itzeko.

Eta besteak erantzun:

– Euskaldunon oitura dan ezkeror.

Ardangelan zerbait artu zuten, bai, ta bakoitza bere bidean joan zan.

– Alajainkia! Gure mutilla amar minutuan menderatu baietz jokatzeko, Sanson ote dakarte?

Baikorrak baziran ere, zer pentsatua eman zien.

Dardarrek etzekin ezer ere. Ura, bere artalde, bei ta baserri, betiko lanean. Baña aztu gabe larunbateroko eziketa, Argiñaren agindupean. Sekulako laxterkak egiten zituen. Ori baizeukan agindua. Etzuen gizendu ta zanpuztua azaldu nai.

Zoratzen zegoen, bada, gure erraldoia burruka-saio ori egiteko, Bibote-Aundik uko egin zion ezkeror.

Ontzako urre bat eskeñia zeukan, ura bost minutuan menderatzen bazuen. Baña au, Dardar geiagoa zala igerri ondoren, aitzaki-maitzaki igesi joan zan. Artzaren atzaparretan etzuen bere bururik ikusi nai.

Arengatik ontzako urre bat eskeñita, oraingo gazte au biltzen bazuen, bazeukan osabaren base-  
rria erosteko aña emango zion itxaropena.

Senar-emazte zaarrak ziran auek. Ondorengorik gabeak. Etxea saldu ta kalera joan nai zutenak. Oso modu onean eskeintzen zioten illobari, au ezkontzeko asmoan zebillela bazekiten-ta.

Orduan ari irabaziko zionak, etzuen nolanaikoa bearko. Baña gure Dardarrek, bere burua



zailtzearren, sekulako laxterkak egiten zituen, eta beti leku batera. Jartzen zioten etsairik gogorrena zanpatuko zuelakoan zegoena, bera zearo menderatua zebillen. Orregatik, bere txangoak leku batera ta bide beretik izaten ziran.

Egi artako artzai-alaba batekin maitemindua zegoen. Ura ikusi ta arekin itzezin gabeko onik etzuen izaten. Biak itz aspertu bat eginta, jauzi batean an zan berriro bere artaldean. Etzeukan sasoi makala. Adiña ere ez txarra, ogei ta bi urte bete berriak zitun-ta.

Azkeneko Don Lukasekin itzezin zuela illabeteak ziran, eta etzuen geroztikako berririk.

Bera ezagututa, etsaiak atzera egin ote zuen? Edo Don Lukas, bera baño geiagokoren baten atzetik ote zebillen? Etzekien zer pentsatu. Luze-tsirik, urduri bizi zan gure indartsua. Baña bere larunbateroko saioxka utzi gabe. Laxterkarik ere etzitzaion aztutzen.

Mundu ontan, ordea, denak badute bukaera, ta burrukarako deia ere etorri zitzaion noizbait. Dardar bere artaldean zebillen. Ez bakarrik. Ezin aztu zuen artzaiaren alaba ere bere aldamenean zebilkien, Don Lukas aldapak gora ikusi zuenean.

– Ori da burruka ontarako nere nagusia. Garaille ateratzen banaiz, ontzako urrerren batzuk ere emango dizkit. Zuri eskeñiko dizut nere garaipena.

– Eskerrik asko, Joxe Iñaxio –esanta, aldegin zuen andik artzai-alabak.

Bere zaintzalleak ikusi zuen dena ta ala zion berekiko:

–Orrek ere, aundia ta indartsua, baña badik bere biotz koxkorra.

Ta albora irixtean:

– Egun on, Joxe Iñaxio.

– Baita zuri ere. Izengoitiz deitzen badidazu, obe. Naiago det. Gurasoetatik eta baserritik dator-kidan izena baita Dardar.

– Ondo dago. Motxagoa ta esaten errexagoa. Aldameneko goxoren bat badabilkizu?

– Bai. Bibote-Aundi baño indartsuagoa da ori. Orren irripar batek nere purrustadak baretzen baiditu.

Par egin zuen Don Lukasek:

– Jarrai, jarrai ortan, Jainkoak bata bestea-  
rentzat egiñak gera-ta. Etsita egongo ziñan noski? Etorri ta joaten ez dan ordurik ez dago, ta buru-  
ka-saio orren garaia ere orra iritxi. Urrengo illa-  
ren amabostean jokatuko dezute. Urnieta'n, gañe-  
ra. Erronkak bota dizkigun ori angoa baita.

– Guk beren etxera joan bear al degu? Ez al genduke bide erdira obe?

– Orrekin ez batere beldurtu, Dardar. Au ez da txapelketa. Orduan bai; bide erdira ateratzen gera. Baña au desapioa da. Ikustera oso gutxi joango dira: jokoia egin degunak, bi epaille –bat angoa, bestea emengoa–, ta lagunen batzuk. Auek erabakitzen dutenarekin kito. Aurka jardun izan dira; baña alperrik. Burruka au ez da saioxkaka egingo. Asi ta buka, atsedetik gabe, bat edo besteak menderatu arte. Iru apustu ditugu egiñak. Bat, arek ezetz zu menderatu; bigarrena, amar minu-  
tu baiño len beñepein. Irugarrena, nik nere patri-  
katik jokatua: zuk amar minututara bildu baietz. Irabazten dezun bakoitzeko, ontzako urre bat emango dizut.

– Ez dago gaizki esana. Galtzeko arraixkurik ez ta irabaztekoa bai. Ez ditut iru ontzako batera egundo nere eskuetan ikusi.

– Eta iruretan garaile ateratzeko itxaropenik bai al daukazu?

– Bai. Galtzeko baño geiago, Joxe Argiñak ez banau iruzurtzen beñepein.

Urrengo illaren amabostean, Dardar, Don Lukas, onek emendik zeraman epaillea, baita Joxe Argiña ere, etsaia zer moduzko mutilla zen ikustera.

Etsaiak ere azaldu ziran beren orduan. Alako erronkak jo zituenak eta bere lagunak, Joxe Iñaxio ikusi zuteneko:

– Ori da kankallua, ori! Arro etorri gera. Baña ez dakit nola joan bearko degun.

Alako gizakirik etzan egundo aien aurrera azaldu.

– Gure ixpiak ez dute lan askorik egin. Au ikusteko modukoa zan, bada. Ori da animalia! Jokatu baño len ere, apustuak galdu ta berdin litza-ke.

Erronka-zalea ere asarre xamar zegoen:

– Ni ere zerbait banaiz. Baña ori ez da gizona. Eun kiloko baten beldurrik gabe nentorren. Baña orrekin? Erraldoi bat da, ordea, ori. Alare, ez det atzera egingo nere saioxka bukatu gabe. Baña barea baño motelagoa ez bada, ez daukat itxaropenik. Nondik atera ote dute animali ori?

Gure burrukariei, beraizik ere, neurriak artu zizkieten, jantzita edo erantzita, bat alde batean ta bestea bestean jarriz.

Neurtuta zegoen laukiaren barruan, an zeuden epailleak ere, kolpe txarrik ematen zuten edo ez, ikusi ta galerazteko.

Beste gañerakoak, kanpotik begira. Baña, asi aurretik, azaldu zan Bibote-Aundi. Arrituta zegoen Don Lukas: noiz ta non zuten burruka, zeñek erakutsi ote zion?

Orduko burrukak etziran, orain bezela, puntuz neurtzen. Atsedetik gabe, gañera, bitan batek

menderatu arte. Etzuen beti indartsuenak irabazten. Iraupen geiena zeukanak, askotan.

Mutil bikaña zan etsaia. Dardar, ordea, neurritz fuerakoa. Bilduko zuenak ere, ala bearko zuen.

Elkarren ondora bildu ziran burrukariak, beren ezitzalleen aotik azken aolkuak artu ondoren, Joxe Argiña ere ikustera joana baitzan.

Denak, ixil-ixilik, begira zeuden. Asko, dalda-raka. Ekin zioten noizbait lanari.

Asi orduko, antz eman zioten minutu batzun gora-beera izango zala guzia. Aundiak arrapatzen zuenean, txitoarena egingo ziola.

Arrapatu nai zuen aundiak. Baña bestea txikiagoa, ta bala bera baño zauliagoa. Esku artetik iges egiten zion. Jakiña Dardarrek ere itxura pixka bat eman nai ziola burrukari.

Igertzen errexaz, iru apustu egin zituztela ta bat bederenik irabazi nai zuela txikiak. Amar minutuan ezetz bildu, alegia. Gantzaz igurtzia zegoe-la zirudien. Aiek jauziak egiten zituen! Baña leku neurtuak. Andik ezin atera.

Dardarrek lotzerik nai ez, berriz. Minutuak aurrera zoazen, eta aundiak ezin zuela arrapatu, eusteko moduan beñepein. Etzan geiegirik saiatzen ere, ez.

Biak nekatzen ari ziran. Batez ere, txikia. Askoz geiago baizebillen. Askotan, anka artetik igerotzen zitzaion, subea bezela. Besteak arrapatuko zuela igertzen zionean, bere bizkar gañean babes-tuz buru gañetik eragin ere bai. Iraupen aundikoa ta benetan indartsua izaki.

— Ori, ori! —esaten zioten—. Aundia da, baña motela; eta nekatu erazi zazu. Orrela, azkenean bera eroriko da.

Baña etzan Dardar nekatzen ari zana. Bestea bai, beraizik uzten zion onek-eta.

Txikiaren aldeko oiuaik entzunda, par egiten zuen aundiak. Etzegoen igertzen zalla, batez ere Argiñarentzat, Dardar jolasean ari zala, burruka-saioari itxura pixar bat emateko.

Alako batean, Don Lukasek eskuarekin erakutsi zion zortzi minutu pasa zirala. Orduan aundiak, uste gabeko eraso batekin arrapatuta, atzaparretara bildu zuen. Alperrik izan ziran txikiaren egiñalak. Nai bazuen ta ez bazuen, laxter bi sorbaldakin lurrari jo erazi zion.

– Askia da –esan zuten epailleak.

Eta bi burrukariak zutitu ziranean:

– Tongo! Tongo! –eroa bezela oiuka asi zan Bibote-Aundi.

– Nork egin dik emen tongo? Ator, gauza baaiz, onera. Bi minutuan irauten badidak, artaldean detan arkumerik onena emango dit. Kabitik aizkatutako ollo loka dirudik. Otegiñako matxarda! Demonio anka-makilla i! Beren saretik zintzilik sapaian dauden buru ta beso ta anka besterik ez diran armiarma oietakoa!

Joxe Argiña urbildu zitzaion ta ala esan zion Dardarri:

– Utzizu pakean. Lurraren gañean ez da oraindik ori baño ume petral ta gaixtoagorik jaio. Gorrotoan artu zaitu. Ez dizu pake aundirik emango.

Uxatu zuten andik ollo loka ura ta lasaitu ziran.

Etziran oraindik amar minutu. Txikiak iru apustuak galdu zituen. Aundiari etzitziaion arnasik ere berotu noski.

Elkarri esku emanaz, denak aitortu zuten

mundu au aundia zala; alare, Dardar menderatu-ko zuenik etzala jaió.

Txikiaren zaintzalleak ala zioten:

– Gu gizon batekin jokatzeko asmoan etorri gera. Baña animalari onekin!... Eun kilotik beerago-koaren beldurrik ez dauka gureak. Datorrela nai duena. Ori, ordea, neurri guzieren gañetikako erral-  
doi bat da.

– «Amaren semerik bada» jo dezute erronka, ta ori ere ala izango da noski. Ez daukagu ukatze-rik.

– Ortan arrazoi dezute. Gure ixpiak daukate errua, Argiñarekin nor zebillen ez ikasteko. Ba-daukazute puska bateko txapelduna. Ori bilduko duenik ez da bolara batean azalduko. Zaartzaroak edo gaitzak ori ere botako du baña.

– Ni beñepein ez nauzute aurtengo txapelketan ikusiko –zion galtzalleak–. Atxurra ez banuen eskuetatik utzi, geiago irabaziko nuen.

– Ni ere ez naiz txapelketara etorriko. Gure erri-aldean dago noski garaillea: ollo loka bezela, kakareka joan dan ori. Berarekin saioxka bat egin nai nuen. Baña izututa aldegin du. Ni ez nabil ari txapela kentzeko asmoan. Ura zuretzat uzten det. Ez naiz burruka-zalea. Orain bezela, erronka «amaren semerik bada» botatzen badute, nik eutsiko diot. Gu ere amaren semeak gera. Neregatik, txapelketa oiek denak baleudeke.

– Arrazoi dezu, Dardar, –zion Argiñak–. Oitura mazal au ez degu galtzera utzi bear. Baña diru jokatzeko ori moztu. Bestela, azkenerako negozio bat izango litzake, ta bere kirol garbi izatea aituko litzaioke. Elkarrekiko asarre gaixtoa sortu. Gaur naigabe ta samiñik geiena diru galtzeak ekarri di-zuete.

– Ortan zurekin bat gatoz, Joxe. Guk ez ba-

gendu erronka zoro ori zabaldu ta ainbat diru ero-ero jokatu, orain askoz lasaiago geratuko giñan. Jakiña: ontzako urre oiek ez gaituzte lur jota utziko. Elkarte batek jartzen baiditu. Alare, min ematen digu orren buru gabe erronka oiek egiteak.

Irabazleak denentzat mokadu bana atera zuten ta pake-pakean berezi ziran. Sumindu xamarrak noski galtzalleak. Mendia añako gizona ez ikusteko, ai zer nolako ixpiak zeuzkaten! Baña Dardarrek txapelketari uko egin bazion, besteak aurrera jarraituko zuen.

Garaillea, berriz, iru ontzako irabazita, txoria baño alaiago biurtu zan bere artaldera. Urte guziko lanak etzioten ainbestekorik eman.

Dena utzita burrukari sartzeko zirikatu zuten. Baña naiago zuen etxeko pakea. Bein baño geiagotan ikusia zeukan artz gizarajoa, nagusi baten mende, sokatik lotua, mantenu-truke, jabeak irabazi zezan jendearen eder ezin egiñik. Aren bukaera nolakoa izango zan xaartzen zanean? Jo ta garbi. Berak etzuen olakorik nai, kabi goxo bat jartzeko asmoan zebillen-ta.

Joxe Argiñak etzion aurrera bultzatzen. Berak ere amaika zirikatzaile izan zituela; baño danei uko egin ziela ta etzegoela damutua.

Ordurarte, beñepein, bere bizi-modua baserri, bei ta ardiak ematen zioten. Gurasoen bizibidea ori zan eta maite zuen. Zertarako aldaketarik egin? Don Lukasek emandako iru ontzako urre aiek kezkatu utzi zuten, bai. Ain errex irabazi al zituen, izan ere.

Ordura arteko baserri-lanetan, etzuen burrukan amar minutuan añã atera. Egunaren ordu guziak eskax zituen lanerako. Jan ta jazteko añã alare ezin sortu.

Zer joera artu erabakitzeke oldozpen auek bu-

ruan zebilzkiela, bere andregai goxo otxan ura arin-arin beragana etortzen ikusi zuenean, uxatu zitzaizkion burutik aundinaikeri ta amets txoro aiek guziak.

Zer aurreratuko zuen, azokarik-azoka dabilkiten artza oietako baten antzera, besteren negozio-rako ibillita? Maite etzuen nagusi berekoi baten mende, gañera.

Sona emango ziotela? Ai zer aurrerapena! Gauza etzanean, bakarrik utziko zuten, irabazitako guzia nagusiak jasoz, jan ta jantziaren truke ta esku utsakin, Jainkoak eman zizkion doairik onenak galduta, usteldua, nork maitaturik ta nor maiterik etzeukala.

- Iruzurra ta ametsa dek ori dena -zion berekiko-. Naiago det ixil-ixilik, maite naun ta maite detan aingeru onekin bizi.

- Zer moduz, Joxe Iñaxio? -galdetu zion, ur-bildu zaneko.

- Ondo. Oso ondo, Anttoni. Amar minutuko lanik ez ta iru ontzako irabazi ditut.

Ordu bete an igaro zuten artalde erdi artan. Bere garaipenaren berri emanaz, benetan alai zegoen Dardar.

Txoratua geratu zan berri auekin artzai-alaba. Baña kezkatu xamar aldegin zuen etxera, «Ea onek lantegi orri eltzen dion» pentsatuz.



## DARDAR ARAGOI'N

Katalan bat bai omen zala beldurgarria. Burrukari gogorra, ordura arte an ezagutu etzuten bezelakoa noski. España zear azaldu ziran indartsuenak txautu zituela, ta azkenekoa aragoitarrak. Au ez menderatu bakarrik; iseka egin ta begi bat ondatu, gañera.

– Munduan bat bazan! –jo zuen katalan orrek ere erronka.

Aragoitarrak saminduak zeuden. Ia beti katalanakin berak gallentzen ziran. Baña urte artan angoak irabazi zuen. Etzeuden minduak galdu zutelako bakarrik. Eskubide osoa zeukan. Ortarako izaten dira burruka-txapelketak. Baña ondatu egin baizuen. Bere azkazal luze aiekin begia kendu ta isekatu ondoren biali.

Arixere berea eman nai zioten. Betiko umildu erazi. Ez ote zan iñon ere ura menderatuko zue-nik azalduko?

Len ere, Euskalerritik joandakoak egundoko garaipenak iritxi zituzten Aragoi ta Kataluña aldean.

Orain ere bai omen zala emen berdiñik gabea, Dardar esaten ziotena. Arrigarrizkoak kontatzen zituzten emendik ara joandakoak. Idi-parerik onenak baño indar geiago omen zeukala.

Jakiña: aiek dena etzieten sinistuko. Zerbait izango zala, bai. Katalana zapaltzeko, gañera, etzuten alakoaren bearrik.

Oso ezaguna zuten Joxe Argiña, garai batean ango onenak txautu zituena, eta bi gizon biali zituzten onengana, indartsu orrekin itzegiteko, bi tartekotza egingo ote zien eskari.

Larunbata zan Argiñaren ateak jo zituztenean. Ala bear-ta, orduantxe Dardar aren agintepean bere probak eta jiñasiak egiten ari ala arkitu zuten. Argiña bera atera zitzaien, ta zertara zetozen jakin zuenean:

– Atozte, atozte aurrera. Mutil ori emen ikusiko dezute.

Sartu ta ikusi zutenean, arrituta geratu ziran gizaki aren aurrean.

– Barea ez bada, indar ikaragarriak bear ditu onek.

– Ez du itxura bakarra. Baita eduki ere, bai.

Aien aurrean jiñasi batzuk egin zituen, eta gure aragoitarrak txoratuta geratu ziran.

– Ez zalantzik txikienik eduki. Munduari buelta ematen badiozute ere, ez dezute au autsiko duenik billatuko. Ni ez naiz onen itzala besterik izan.

– Zuk etzenduen, bada, an bat bakarrik galdu.

– Ez ta onek ere; ez du galduko. Jakiña: ango burrukariak ez dira emengoak bezin txukun ta garbiak. Bestela ezin dutenean, gaixtora jotzen dute. Onek ura ta naiago, artu ta aidean kanpora botako du-ta. Onen indarrak neurtzen ez da errexa.

– Berak joan nai ote luke?

– Ez da burruka-zalea. Pakea maite du. Baña, uste detanez, mundua pixar bat ikusteagatik, joango litzake. Ortarako, bertako lagun bat bear luke. Oraindik gaztea da. Ogei ta bi urte bete berriak. Mundu gutxi ikusia, alegia. Ango izkuntzik ere ez daki.

– Eta zu ez al ziñake joango, lengo lagun zaararak ikusiz?

– Ni baño ohea dezute noski Don Lukas, nerekin joaten zana. Emen ere arekin dabil. Or badago

beste kroska bat: olako erronketan bide erdira bil-  
du bear luteke burrukariak jokatzera. Aragoi'n  
egin beren saioa.

– Ez genduke besterik nai. Kastu guzia gure  
bizkar joango litzake. Irabazten badu, bai sari  
eder bat eman ere. Ortan aragoitarrak oso maza-  
lak gera.

– Bai. Ori sinisteko, ez degu urrutira joan bea-  
rrik. Nik aitor nezake.

Ori esanda, ostera Joxe Argiñak:

– Dardar, ator pixka bat. Auek aragoitarrak  
dira.

– Ta non dago Aragoi ori?

– Nai badezu ikasi, ez daukazu oraintxe auke-  
ra txarra.

Esku eman ez:

– Ongi etorriak.

– Zure billa datoz.

– Nere billa zer asmotarako?

– Katalan batek auen indartsua txautu omen  
du. Begi bat atera ta iseka eginta biali. Orren or-  
daña eman nai lioteke. Menderatu, alegia. «Mun-  
duan bat bada» jotzen omen du erronka, ta orain  
arte denak banaka-banaka zapaldu dituela. Joango  
al ziñake?

– Ez naiz oso burruka-zalea. Baña ango iz-  
kuntza ta bertako berri dakizkin batekin, eta nere  
ibillerak ordaintzen badizkidate, neri ez dit ajolik.

Argiñak itzuli zien arek euskeraz esana.

– Eskerrik asko –esan zioten–. Ez dezu xenti-  
morik galduko. Dena gure bizkar joango da. Ira-  
bazten badezu edo galdu, sari on baten jabe egin-  
go zera. Euskaldunak eta aragoitarrak beti lagun  
izan gera.

– Galdu? Ez katalan batekin beñepein!

Dardarren ateraldia entzunaz, par egin zuten aragoitarrak.

– An ez dute emen bezela jokutzen. Ango burruka zikiña da –zion Argiñak.

– Ez beldurrik izan. Begi bakarrak erakutsiko dio. Katalana, zakarra ezik, gaixtoa ere bada.

– Nere atzaparrak arrapatzen dutenean, goxatuko da –zion parrez Dardarrek.

Don Lukasekin ere itzezin zuten. Au txoratua geratu zan. Lenago Joxe Argiñaren itxu aurreko ibillia, ango berri bazekien.

Ortarako, bere guraso, anai-arreba, baita bere andregai ere, agurtu zituen. Au kezkatu xamar utzi zuen. Urrengo egunean bertan joan ziran.

Katalanari abisu biali zioten, nola euskaldun bat zetorren berarekin jokatzera ta bide erdira etortzeko Aragoi'ra.

– Baita Euskalerra bertara ere. Ni ikusi orduko, igesi joango da ura –arro-arro erantzun zien katalanak.

– Igesi? Nor? Ez, ura ez. I joango aiz –aragoitarrak.

Ango begi bakarrarekin ikasi zituen Dardarrek aren zakarkeriak. Don Lukasekin kalera ertetzen zanean, denak arrituta maitasunez agurtzen zuten. Oso konten zebillen ango jendearekin. Burruka-saio ura galtzerik, berriz, etzuen pentsatzen.

– Mundu guzian daude gizon onak eta txarrak. Auek, beñepein, mazal askoak dira, nere eder nola egin ezin asmatu dabilta-ta.

Esandako ordurako etorri zan katalana. Dardar ikusi zueneko, erori zitzaion oñetaraño biotza.

– Au, nik orain arte menderatu ditudan ez bezelakoa da. Alare, uste det laxter egingo ditudala onen lanak. Oraindik, gaztetxo ez-jakin bat, indarra besterik ez daukana, baita. Aundi motel oie-

takoa. Andik, alare, burrukari onak azaltzen dira. Au ere ala ez balitz, etzuten ekarriko.

Jendeak ikusi zituen biak kalean; ez elkarrekin baña. Denak Dardarren alde zeuden. Goputzez askoz ederragoa zala ta indar-itxura geiago zeukala.

Iritxi zan egun ori. Erritar guziak, burruka ikusi nairik, bildu ziran lekuaren inguruan. Gizon, andre, mutil ta neska, denak katalan arroa oinpean ikusi nai zuten.

Noizbait bere sarrera egin zuen katalanak. Bai jendeak txistuka artu ere. Gizon kankallu galanta bera ere:

– Jo txixtu, jo! Aurki txaloka bialiko nauzute, euskaldun motel orri berea ematen diodanean.

Bere ordurako euskalduna ere sartu zan, lasai-lasai, mundurik-mundu oitutako bat bezela. Txaloka artu zuten. Onek, eskuarekin denak agurtu ondoren, ala zion berekiko:

– Motell! Oraintxe, Dardar, ire indar ta iaioletan baliatu itzik. Bestela, leku onean utziko dituk ire itxaropenetan dauden auek eta Euskalerriko indar-sona. Au ez dek ango etsaia baño geiagoa.

Aragoi'ko begi bakarrak eman zizkion bere azken aolkuak: kontuz ibiltzeko, bazekiela katalanaren giltza mortala zer zan-eta.

Sartu ziran biak lauki artara. Erri guziak ikusi zezan, bertako enparantzan jaso. Inguruko etxeetako leioak ere jendez beteta zeuden.

– Au azkonarra ote da? – zion berekiko Dardarrek.

Katalanak eskuko beazetan egundoko azkazarak baizeuzkan. Aiekin galduko zuen aragoitarren begia. Berari txarrean asten bazitzaion, begiondoko ederraren jabe egingo zan orratik.

Biak, elkarri eskuak emanta, jarri ziran txintzarria jo zai, burrukan asteko. Jendea, urduri, ixil-ixilik, begira zegoen.

Jo zuen noizbait txintzarria ta ekin zioten lanari. Katalanaren joera beti bat: amar laban zorrotz balitu bezela, bi eskuak luzatuz sartzen zitzaion, aiekin begiak ateratzeko asmoan. Baña Dardarrek, bi besoakin arpegia estaliz ta burua makurtuz, katalana luzea baizan, bere besoakin arenak gora jasotzen zituen. Gero, gerritik elduta, buelta osoa ematen zion, lurrean txutik utziz. Ez dakit nola azpia buruarekin etzuen jotzen. Bi edo iru aldiz egin zion ori bera. Laukitik kanpora ere botatzen zuen, ta berak eskutik elduz igo erazi. Bazirudien arekin jolasean zebillela.

Jendeak ala zerizkion beñepein. Etzekiten nola bukatuko zan. Baña igertzen zioten katalanak alako bi indar bazeukala.

Sumindua zegoen katalana. Ume bat bezela, beti aidean baizebilkien.

Sei bat minutu bazeramazkiten. Dardar jolasean zebillen. Ez baizion etsaiari txutik jartzen ere uzten. Katalanak giltza mortal arekin ez bazuen lotzen, onek nai zuenean moztuko zituen etsaia-  
ren arrokeriak.

Bai-baizekien Dardarrek besteak zer maneju zeukan edo zer giltza erabiltzen zuen, ordurarteko indartsuak menderatzeko.

Zilipurdika erori zan aietako batean, jauzi bat eginta, atzetik bi besoakin eta leptik lotu zitzaion. Giltza orrekin ordurartekoak menderatu omen zituen, itotzeraño estutzen zituela, ta errenditu egin bear.

Aragoitar begi bakarra naigabetu zan:

- Nai zuenean menderatzeko aukera eduki ta

orra bere burua galdu! Ainbeste aldiz esan diot kontuz ibiltzeko-ta...

Don Lukas bazterrean zeukan. Onek ala erantzun zion:

– Ez beldurtu. Giltz ori egiten beraizik utzi dio. Laxter ikusiko dezu zenbateraño indarrak dauzkan.

Bitartean, katalanak atzeraka zeraman Dardar. Baña onek nai zuelako. Laukiaren erdiraño eraman zuen.

Jendea beldurtu ta naigabetua zegoen. Etsitzen asia. Euskalduna, naiz-ta askoz indartsuago izan, malezirik gabea zala. Besteak menderatuko zuela.

Katalanaren lagunak, berriz, oiuka zioten:

– Ito zak! Ito zak!

Dardarrek, erdi alderaño iritxi zanean, eldu zion katalanari bi beso ondoetatik gogor; eta, bitartean bere gorputzari eragin bizi bat aurrera egiñik, bere bi beso ta gorputzaren indarrez, gure azkonarra, sagar-zaku bat bezela, euskaldunaren buru gañetik aidean igaroz, bere aurrera erori zan ortzaz gora, bi besoak lotzen zizkiola. Gañean etzanik, azkazal beldurgarri aiek etzezaioten ezeren txarrik egin, bular gañean tolestatu zizkion.

Katalanaren ostikoak alperrik ziran. Aiek bakarrak zeuzkan aske.

Unetxo batean etzuen iñork itzik atera. Ezin sinistu ikusten zutena...

– Katalan, katalan! Azkonarra aleena i! Non dituk ire arrokeriak?

Epailleak besoa jaso zuenean «Aski da!» esanaz, ango txalo ta «*Viva el vasco!*»

Arrituta utzi zuen jendea. Aren indarrak neurtzen etzala errexa izango. Eun kilotik gorago ko gizona ain aixa atzetik aurrera bere buruaren gañetik eragin ziona etzala nolanaikoa.

Baña katalana, sumindua, txarrean erasotzeko asmoan asi zan. Lagunak geratu erazi zuten. Dardarrek esan ere bai:

– Obe dek, motell! Bestela, ai zer begiondokoa artuko uana!

Bizkarrean artuta kalerik-kale zebilkitela, leioetatik loreak botatzen zizkioten, oiuka:

– *¡Viva el vasco!*

Uste gabean, kale bazter batetik begira somatu zuen Bibote-Aundi amorruz. Bera izaki txapelduna; ta arek lekua ostu ziolako, tripa jaten.

Bazkaltzen ari zirala ere, etzioten pakean uzten. Denak omendu nai zuten. Baña Dardar burrukak baño geiago izutzen zuen omenaldiak.

– Au ez ote da zoragarria? –galdetu zion Don Lukasek.

Altzo'ko jiganteak aitari bezela erantzun zion Dardarrek ere Don Lukasi. Erraldoi edo jiganteen agermentera joana zan Altzo'koa ere Ingalterra'ra. Beste askoren artean izaki emakume bat ia euskalduna aña luze, ta norbaitek ala esan omen zuen:

– Auek biak elkarrekin ezkondu bear luteke.

Altzo'koari adierazi zioten zer esaten zuen jendeak. Onek, izututa:

– Aita, goazen emendik etxera.

Dardarrek ere ala erantzun zion Don Lukasi:

– Bai. Zoragarria da. Baña goazen emendik etxera.

– Zergatik etzenduke burrukari sartu bear? Mundurik-mundu olaxe ibilliko ziñake.

– Ori an lasai pentsatuko det. Orain goazen etxera.

– Biar gozean joango gera. Bitartean, Zaragoza alde au nolakoa dan ikusi zagun.

Arratsalde osoan, erriaren omena artuz, an ibi-



Ili zuten. Baña ez bere gogoz. Arek naiago zuen etxera etorri.

Arrats artan, zenbat amets etzuen egin? Aragoitar oiek egin zioten omena! Berak ezin zutena euskaldun batek iritxi zuelako, konten ziran. Sari ederrak ere eman zizkioten. Orain bazuen etxea erosteko aña.

Dena utzita burrukari sartzeko ere ibilli zan. Baña beti bereak zetozkion gogora. Guraso ta anai-arreba aiek etzuten olakorik nai. Sinismena galduta egoskortu egiten omen zirala. Andregaiaren irudi goxoa ere maiz etortzen zitzaion irudimenera.

Urrengo goizean, bada, etxerako bidea artu zuen, an lasaitasunean obeto pentsatu zezan zer erabaki artu.

Bidean zetorrela, ala esan zion Don Lukasi:

- Kezketan nator.

- Zergatik ori?

- Bibote-Aundi ikusi det serio-serio bazter batetik begira. Nork eman dio orri dirua? Ta zer egi-teko zekarren?

- Bibote-Aundi borondaterik gabea da. Ori Basajaunek, nai duen bezela dabilki. Zalantzarik gabe, arek sarituta joana izango da. Ordez, edozer gauza, norbait iltzeko ere, anbat eskatuko dio. Etzaite piatu batere oiekin. Benetan naigabetu ditugu, beren berririk gabe gure konponketa Argiñarekin egin degulako.

- Oiek nerekin zer ikusi daukate? Ez naiz iñoren morroi. Aske-askea bai. Ta neronek aukeratu-ko det nai detan bidea.

- Ori ala da. Baña oiek billatu ta asi ziñalako, orain beste batekin joatea etzitzaien ondo irudituko.

## GARAIPENAREN ONDOREN

An gertatuaren berri eman zien guraso ta anai-arrebai. Baita andregaiari ere. Baña auek kezkatu xamar geratu ziran. Zoramenez mintzatzen zala ta garaipen ta goratarre oiek ez ote zitzaizkion barrunegi sartu. Zer joera artuko ote zuen?

Dardar, ordea, odol otzekoa izaki, ta ango gertakariak etzuten geiegi lilluratu. Jendearen aupako ta palakoak, goxoak izan arren, etziran arentzat egiñak. Naiago zuen etxeko pakea.

Bereala, bada, artaldearekin larrera joan zan. An zebilela, uste gabeko ikertxo bat izan zuen.

Zein etorriko ta Bibote-Aundi. Txerriak bezela kurrixkaka eraso zion ura bera. Basajaunaren aldetik, ea aien sallean kontrabandista sartzea nai zuen galdetzera zetorren.

Dardarrek burrukatu zuen gazte ura, beste ballaratakoak menderatu ta txapela jokatzeraz azaldu zitzaionean, Bibote-Aundi erretiratu egin zan. Baitaitzekien arek ikusteko ere etzuela; ta, lotsagarri ez geratzearren, ura etorri zitzaion, «Kaixo, Joxe Iñaxio!» agurtuz.

– Ongi etorri, Praixku!

– Ango garaipen ta aupakoak laxter aztu zaizkizu.

– Gu bezela gurasoen mende biziltzen oitua dagoen batentzat, nazkagarriak dira.

– Bai. Egia diozu. Ango mintzairik ulertzen ere ez. Ta nik txapelari uko egin nion. Berdin banekien galduko nuela.

– Bai, Prasku. Gazte zauli, bizi ta indartsua da ura.

– Emendik aurrera orren ametsetan ezin bizi-

ko gera. Entzun al dezu egundo Basajaunaren ize-  
nik?

– Entzun bai. Baña nor da ori?

– Jainkoak daki. Arek jakin bearko. Guk ez dakigu beñepein. Amar urte auetan orren sallean nabil ni; ta nor dan, ziur esateko, oraindik ez det ezagutzen. Etzaio arpegirik ikusten ere. Artza bati bezela, ille-bizarrak estaltzen dizkiote bere aragiak. Sudurra, orixe agerian nabarmenena. Luze xamarra, gañera. Gurekin dabillenean bestetan ez da iñon olakorik azaltzen. Bi arpegiko gizona, dirudienez. Estalki oiek erantsiak ibilliko ditu noski. Ta, gure artetik aldegitean, kendu ta antzaldatua azaldu gizartearen. Olakoa da gure nagusia. Baña alde z aurretik komeni zaizu jakitea, batere kontzientzirik gabea dala. Ondo badatorkio, odol ixurtzeak ere ez du geiegi kezkatuko. Baña artaduna edo ordaintzallea, zuk ondo ezagutzen dezun beste bat da: Don Lukas. Basajaunak agindu bezela ordaindu bearra dauka onek, aren mendeko bat dalako.

Dardarrek etzekien zer pentsatu. Bibote-  
Aundik etzuen jakingo, edo bietan bat, agian biak, gezurretan ariko ziran. Borondatez laguntzen ziola esan baizion bein Don Lukasek. Ala artu zuen erantzuna:

– Arrigarria ez bada ere ori: amar urtean bere mende lanean jardun ta nor dan jakin gabe? Baña, neri esan zidanez, artaduna ez da orren langille. Bere lagun bat dala ta ez diola ezer kobratzen. Arek badakiela nor dan. Baña ixilik gordetzea komeni dala.

– Ori ez nekien.

– Eta ondo saritzen al dute?

– Ez da beste munduko mauka. Baña irabazi garbia. Lana ere, guretzat beñepein, sasoiaren gau-

den ta indar puska bat degunontzat, ariña. Errexa egiten zaigu. Eguneroko gure lanik utzi gabe egin dezakeguna. Geiena jota ere, joan-etorria iru orduko txangoa. Gogozkoa zaizun edo ez jakiteko, joan ziñezke ikusi bat egitera. Gaur, zazpitan, olako ardangeletan arrapatuko nauzu, eta elkarrekin joango gera Artza edo Basajaun orrengana.

– Arrazoi dezu. Ikusi bat egiteak ez digu kalterik egingo. Patrikarako diru pixar bat garbia irabazteak poz ematen dit. Emengoa sendirako izaten baita. Gurasoak ere, lanerako ezer gutxi ta asko bear dutenak. Gure aldetik dena merezi dute. Aiek guregatik egiña ez daukagu ordaintzerik. Zazpitan, bada, an izango nauzu. Nolako nagusia dezuten ikusi nai nuke.

– Eta zer moduz Aragoi aldean?

– Billaua aleena i! –zion berekiko Dardarrek–. Nik bezin ondo dakik ango berri.

– Nerekin emen jokatu zuenak txautuko zuen ura. Aren indar ta iaiotasun guzia azkazalak begitik sartzea zan. Beste gañerakoan, ez da emengoa aña. Baña, irabazi ondoren, egundoko omena egin zidaten, «*Viva el vasco!*» oiuka. Emakumeak, berriez, leiotik loreak botatzen zizkidaten. Beretako bat bezela omendu niñuten.

– Sari ederrik ere emango zizuten noski?

– Bai, bai. Ez naiz asarre etorria.

– Jolasean ibilli omen ziñala esan didate.

– Ez diote dena gezurra. Nai izan banu, bost minutuan bilduko nuen. Itxura pixar bat eman bear zaio, ordea. Ikusleak kontentu asko geratu ziran beñepein. Artu ta aidean buelta emanik, len bezela txutik uzten nuelako, goxoa jartzen zan. Lotsatua noski. Amorruez erasotzen zidan, zituen indar guziakin. Azkonarrak añako azkazalak bazituen.

– Eta lan ortan jarraitzeko asmoan al zera?

– Ez det gogozkoa. Naiago det, artza bezela panderoa jota dantzan ibilli baño, fameli batean etxeko pakea.

– Emen, etsairik ez daukazun ontan, zergatik proba txiki bat ez egin, gure erri xaar onen izena mundu zear zabaltzeko?

– Ditudan doairik onenak jaten dizkidanenean zokoan uzteko? Nerekin irabazten duten arte ibiliko naute. Gero, or konpon! Jakiña: nik larunbateroko nere trebetzea ez det utziko. Oraingoan bezela, «Bat bada!» erronka jotzen badute ta nork lagundurik badaukat, egun batzuegatik noranai joango naiz. Baña angoa bukatu ta bereala etxera biltzekotan.

– Ortan zurekin bat nator. Ez det emendik ateratzeko gogorik eduki, zuk lana egin ta besteak jasotzen dute saririk onena-ta. Agur, Joxe Iñaxio. Zazpietarako joaten bazera, an arrapatuko nauzu.

– Agur, Praixku. Ezeren okerrik ez bada, nerekin kontatu.

– Nagusi orrek ain begikoa duen au bera ere ez da trapu zuzena izango –zian Dardarrek, Bibote-Aundi joan zanean–. Dena ikusi zuen ta, ezer ez baleki bezela, neri galdetu. Zer ote dabil bi ijito auen artean?

– Artaldea etxera sartu ta aita-semeen esku utziz, Joxe Argiñarengana joan zan. Aragoi'tik etorri ezkerro ez baizuen arekin itzegin, eta aren maisutzari zor zizkion bere garaipenak. Ura, oitu bezela, lanean arkitu zuen.

– Arratsalde on, Joxe. Inguru au dena alperrez beteko dezu.

– Bai. Ortatik obeto dago, langilletik baño. Zer moduz Aragoi alde ortan?

– Jende beroa dago an. Uraxe menderatu nue-

nean, egin zizkidaten goratarreak! Bizkarrean artu ta kalerik-kale, alajainkia!

– Bai. Onean mazala bezela, txarrean gaixtoa da ango jendea. Zer moduzko mutilla zan katalan ori?

– Emen jokatu niona baño eskaxagoa, nere iritzian. Gaixtoa, ori bai. Azkonarraren azkazal aiekin begiak ateratzera sartzen da ura. Beste gañerakoan, jolas bat neretzat.

– Zu oiek ez bezelakoa zera. Zuk indarra daukazu. Eta jarraitzeko asmoan?

– Ez da neretzat egiten dan lana. Zer nai zenduke esatea? Ni pake-zalea naiz. Paris'erako ere bai omen daukat deia. Nik zer aurreratzen det, txoro-txoro batzun ikusgarri ibillita, gorputz ta animak galdurik zokoan uzten banaute?

– Nik ere olako deiak izan nituen. Baña beti ezezkoa eman nien, eta etzait egundo damutu. Nere aolkuaren bearrean bazera, orixe berbera esango dizut: etzoazela. Bein naastu ezkerro, oien atzaparretatik etzera ertengo. Bestela, denakin asarretu bearke dezu. Gau eta egun, ille motzak edo luzeak, ez dizute pakerik utziko. Bertako txapelketak? Besterik dira.

– Eskerrik asko. Ez daukat ortara ibiltzeko gogorik. Aristian lanerako aukera eman didate. Arri-tuko zera, nor etorri dan jakitean: Bibote-Aundi berbera, gizona! Basajaunaren partetik, gañera. Zer derizkiozu?

– Oiekin atarramentu onik ez. Praixku txoro gaixtoa da. Bestea, berriz, diotenez, billaua. Oien arteko berri gaixtoak dauzkat nik entzunak. Kontrabandorako deituko ziñuten noski? Basajaun orrek, oien buru egiten duena izan bear du.

– Bai. Gaur zazpiak aldean agertzeko asmoan geratu gera.

– Joateak eta ikusteak ez dizu kalterik egingo. Lanean asteak ere ez noski. Baña oien artean erne ibilli. Eriotz bat baño geiago egin ote dituzten iritxia da nere belarrietara. Bibote-Aundi orrek, amabost metrotik tirata, ez omen du utsik egiten puñalarekin. Neri gertatua esango dizut. Ni ez nintzan beiñere ondo etorri ez Basajaun ta ez Don Lukasekin. Itxuraz au gizonagoa da. Ez baidakit nor nor diran, biak bat badira ere. Basajaunarekin, Basajaun bezela, oso artu-eman gutxi eduki det. Nik txapelketa utzi nuen artan, bost edo sei zemai baño geiago egin zizkidaten. Munduz-mundu ez banuen ibilli nai, uzteko lantegi orri. Bestela, il egingo niñutela. Azkenean, katar beltz bat atean labanaz erantsia jarri zidaten. Uraxe bezela jarriko niñutela, txapelketara azaltzen banintzan. Ori dena oien lana zan. Bai-baizekiten, ni sartzen banintzan, etzala Bibote-Aundirik garaille atera-ko. Ta beren kutun ta lañezatua ori zeukaten. Izugarria zala uste zuten ta kukuak oker jo die. Xentimorik irabazten ez dan lana, ta askotan orko txangoak zedorrek ordaindu bearrak, utzi egin nion. Ez bainintzan batere oiekin piatzen. Askotan, elkarrekin trabesak egiten dituzte; ta, oiei komeni zaielako, geiagoo izan ta tongo egitera bear-tuko zaituzte. Nerekin alperrik ibilli dira. Ortan ni zuzena izan naiz.

– Orduan ijito-talde bat besterik ez da ori.

– Erdiz-erdi asmatu dezu. Bibote-Aundi, Basajaun eta Don Lukas, iru diran edo bi, obe dezu oietatik berex ibilli. Zu burrukara azaldu arte, azkeneko orrek etzidan itzik egiten. Orregatik, jakinñaren gañean jartzen zaitut, erne ibiltzeko oiekin. Bat subegorria bada, besteak ere bai.

– Lendik ere banekien etzirala ardi otxanak. Don Lukas dalako ori gizarteagokoa bada ere, as-

kotan ortik urrun al dago billaukeria? Oraindik zutzaz oroitzen diranak badira Aragoi alde ortan. Bazkaltzen ari giñan lekuan, batek baño geiagok esan zidaten: «Zer moduz Joxe Argiña?» «Ongi!» Zurekin ikasi nuela burrukan. «Bai. Ura burrukari txukuna zan. Bein bati ondo eltzen bazion, nekez askatuko zituen aren loturak».

– Bai. Lagun atsegiñak banituen nik an.

– Agur, bada, Joxe. Beste bat arte. Ea zer moduzko gizona dan, laxter ikusiko degu, Basajaun illetsu ori. Ez bazaizu gaizki etortzen, nik larunbateroko martxan pozik jarraituko nuke.

– Bai, gizona. Ordu beteko gora-beerak ez gaitu porrot eginta utziko. Neretzat ondo dator, nagitu ez nadin. Agur, bada, Dardar. Ta nai dezun arte.

Itzegin zuten ordurako an zan Dardar, eta bi erraldoiak batera azaldu ziran Basajaunaren aurrera.

– Ongi etorri. Olako kankallua nola sortu zera zu?

– Besteak bezela, amaren sabeletik.

– Zuk ere kontrabandoko lan ontan asi bear al dezu? Lan-eske etorriko ziñan...

– Ez nator kontrabandora. Lan-eske ain gutxi. Len gabiltzan lekuan ere, lanetik obeto daukagu, ontzako urretik baño. Ni zure izenean deitu nautte.

– Bai. Don Lukasek esan zidan, etzenduela burrukako lan ori oso gogozkoa. Kontrabandora-ko aproposa ziñala, ta orregatik deitu zaitut. Nere sallean sartu nai badezu, aukera jarriko dizut, zar geiegi daukagu ta aiek bializ. Ez dira ortarako gauza. Beti salletik zintzilik dabilta. Gazte-sail bat bildu nai nuke.

– Komeni zaidan edo ez, ikusi egin bear le-



nengo. Baserriko lanetik ez datorkigu irabazirik. Bizi-modua aukeratu naita ere, ontzako urre batzuk gabe motx geratzen zera. Lanaren saria ona bada, nik ez det atzerarik egingo. Sasoi daukagu ta au da gure ordua.

– Kontrabandoan, denak dakiten bezela, arraixku aundia ta irabazi gutxi.

– Arraixkua denena da. Kaja zaarrak mendirik-mendi dabilzkinena geiena noski. Galerazi nairik armatuak dabilzan oiekin, burrukik geiena oiek daukate. Zuek, arraixku gutxiagorekin, gordetik lan egiten dezute, ta irabazi pollitak jaso ere bai.

– Irabaziak ez dakit. Baña galerak bai. Nere bizkar joaten dira geienak. Iru orduko lana da zuena, gutxi gora-beera. Neke aundi gabea, batez ere indartsu ta sasoiko oientzat. Orduko edo txango bakoitzeko onenbestean dabilza besteak. Zuri ere pozik emango dizut ainbeste, ondo baderizkiozu. Zerorrek ikusi.

– Bai, bai. Proba txiki bat egingo degu. Ta, irabazi gutxikoa edo arraixku aundikoa dala iruditzen bazait, asi bezela geratuko naiz.

– Bost ibiltzen dira emendik. Orain sei zurekin. Onerako geiegi noski. Saltzeak ere lanak baiditu. Inguru auetan erri koxkorrak baidaude. Zer moduz Aragoi alde ortan?

– Emengoa baño jende beroagoa dala angoa. Garaipenaren ondoren, erri guziak egin zidan omena. Baña sari gutxi eman.

– Ori denen lantura da. Ez al daukazu lan orri jarraitzeko asmorik?

– Nik eltzetik babak atera ta besteak jan? Norbaitek jasoko ditu irabaziak. Bide ortatik ez nijo. Neri ezer gutxi eman didate, ta ziur nago aiek sa-

rituko zutela. Naiago det, eguneroko lanarekin, etxeko pakea.

– Arritzekoa da, Dardar, zure joera. Mundu guziaren aotan ibilli bear zenukena.

– Indar-ots ta omenak ez dute nere sabelik beteko. Gauza naizen arte zainduko naute. Ni bainaz aien irabazirako tresna. Ta gero, nor egingo da nere jabe? Gosea ta miseria besterik ez. Joxe Argiñaren aolkuak barruraño sartu dira nere buruan. Ta biotzean ere bai. «Zuk jakingo dezu zer egiten dezun –esan zidan Joxe Argiñak–. Baña ni, zure lekuan banengo, ez nintzake Euskalerritik ertengo. Bizi-modua galdu gabe, emengo txapelketari jarraitu. Munduz-mundu joaten bazera, urte batzutan ez dezu geiagokorik arkituko. Oraindik luzaroan gora joango zera. Baña arraixku txarrekoa da lan ori zure gorputz ta animarako. Azokatik azokara dabilzkiten artzak bezela, nagusiaren doñura dantzatu bearrean zera. Ari komeni zaiolako, askotan, geiago izanta, galdu bearko dezu. Jana ta jantzia emango dizkizute. Zuk lana eginta, aiek irabaziko dute. Egundoko sonak zabalduko dizkizute, aiek irabazteko. Indarrak joaten zaizkizunean, utzia, errea, zokoratua, gaixo ta arratoia baño arloteago, illa non erori ez dakizula geratuko zera. Ez etxe, ez fameli. Bitartean, nagusiak urrez beteko dituzu. Ta beste indartsuren baten billa joango dira, ura ere xurgatu dezaten. Nere aurreroko Iñara esaten zioten indartsuari, orixe egin zioten. Ta, azkenean, gizarajoak bere burua il zuen. Jakiña: denak ez dute azken ori izango. Baña urrats ori ematerako, ondo pentsatu». Ori dena esan zidan Joxe Argiñak, eta ez daukat zokoan uzteko. Alegia, gorputz ta anima, biak usteltzen dirala.

– Ori ezin ikusia da, bera baño geiago zerala esan ez dezaten.

– Datorren guziari, batere lotsik gabe aitortuko dio etzala nere itzala ere izan. Ez, Basajaun, ez. Biotz-biotzetik eman zizkidan neri aolku auek, eta betetzen alegiñak egingo ditut. Etxeko pakea asko maite det. Oraingo burruka-saio ontan naiko eskarmentua sartu didate. Kontrabandora etorriko naiz. Baña ni ez nauzute mundurik-mundu ibilliko. Ori ez da neretzat egiña.

## DARDAR KONTRABANDISTA

Urrengo egunean, esandako orduan, an azaldu zan Dardar. Andik aurrera, igandea ez beste egun guzietan egingo zuen bere txangoa. Illabetero ordaindu. Baña Don Lukasek. Ura zegoen ortarako.

Andik laxter ezkondu zan, baña andrearen etxera, eresia zeukana osaba-izebak uzten zuten arte.

Izugarria etzan ango irabazia. Baña iru ordu ere bereala joaten ziran. Illunpetako lana, gañera. Balio zuen noski kontrabandoan saiatzeak.

Illabete batera, Bibote-Aundi beste lanen baterako aukeratu zuen Basajaunek, eta aren lekurako beste gazte bat ekarri.

Sallean iru, xaartu xamarrak ziran: bi ezkonduak ta bestea mutil zaarra. Jainkoak zekien ezkerro Basajaunaren aurrekoekin asiak. Askotan ezi-

ñean ibiltzen ziranak, besteak etorri ta ezin iritxi-rik.

Nagusiak bein baño geiagotan esan ere bai:

– Gera zaitetze beingoan. Zuek ezin dezute geiago. Egunen batean, or nonbait bidean arrapatuko zaituzte. Eta gu kontrabandorik gabe geratuko gera.

Ezkondiak, nora bildua bazeukaten eta utzi zioten lanari. Mutil zaarrak ez, ordea. Beti ala erantzuten zion:

– Ez dago gaizki esana. Baña emengo sos pixarrrak kentzen badizkidate, zerekin biziko gera?

– Ori ez da nere egitekoa. Orain arte, illabeterik utsegin gabe, ez dizutet gaizki ordaindu. Emendik pasatako agure guziak mantentzen ezin asiko gera. Bestela ere, naiko lanak badabilzkigu. Joxe Marik-eta eskatu bezela utzi diote, arrazoitara makurtu diralako.

– Oiek ezkondiak dira. Badaukate beren familia, ara biltzeko. Nik, mutil zaar onek, jabe gabeko txakurra, sos batzuk ez badaramazkit apupillotza ordaintzeko, nork artuko nau?

– Lapur asko dabil bide oietan. Ertzañak zer esanik ez. Egunen batean, arrapatu edo garbituko zaituzte. Eta kaja bakoitzak asko balio du.

– Ajola zaizu gure biziagatik, kontrabandoa iritxi ezkerro. Len ere illak badira. Baña kontrabandoa norbaitek ekartzen zuen.

Sumindu zan Basajauna arrazoi aiekin, eta ala erantzun zion:

– Or konpon zaite! Abisatuaren paltan etzera galduko.

Gure mutil zaarrak betiko martxan jardun zuen. Basajaunak igerri bezela, illunabar batean etzan iritxi. Baña bai berak zekarren kontrabandoa.

Dardar oartu zan. Etixerakoan ikusi baizuen norbait, kaja bizkarrean, txabolara sartzen. Eta Bibote-Aundi iruditu zitzaion. Baña illaren aztarrenik etzan azaldu.

– Nola liteke ori? –zion Joxe Iñaxiok–. Aren zama ekarri duenak, jakin bear luke ura non galdu dan.

Lapurren aitzakia egin zuten.

Itzegiteko oraindik egokiera obeak etorko zira-la-ta, ixilik geratu zan.

Andik illabete batzutara, ikazkiñak billatu zuten, txara txiki bat erre zutenean. Baña ordurako ezur uts. Zerekin illa zegoen, ezin ziteken ezagutu.

Beren ibil-bidetik ia bi kilometrora arkitu zuten. Astoak ere badaki, il da gero ara eramana zala. Lapurrak etziran ara eramaten ibilliko. Korapillo au ezin askaturik, amaika oldozpen ibilli zan Dardarren buruan.

– Nork ekarri ote zuen aren kontrabandoa? Il zuenak, zalantzik gabe. Zer egiten ote du, sallean ez dabillen Bibote-Aundi arek? Ez ote du orrek, Basajaunaren aginduz, orrelakoren bat egin? Ez baizan lapurren lana.

Esan ziotenez, Basajaunak etzuen kontzientziarik. Bibote-Aundi, berriz, borondaterik gabea. Tresna bat bezela, nagusiak zer agindu, itxuitxuan ura egiten zuen.

– Eziñean dabiltzan agure zar auek, garbitu nai dituzte. Urrengoan erne ibilliko naiz orratik.

Andik iru bat urte inguru, beste bat galdu zan. Mozkorraren aitzakia eman zioten. Ez zaarra zalako. Askotan ezin iritxirik zebillena. Aren aztarrenik etzuten atera. Itxura txarreko lana. Eskaxena beti ta baldarrena. Aien ordeko, gazte sasoi-koak artzen zituen.

Dardarrek etzeukan oraindik orren beldurrik.

Gazte ta sasoikoena bera zegoen. Baña besterenak ere min ematen zion.

Iñori etzion itzik aipatu. Baña lagunena artean bazebillen naiko kezka: bazutela norbait kontrabando-bidean ixpi egiten ziena, ta eziñean zebiltzanak garbitzen zituena, Basajaunaren aginduz noski.

Andik aurrera, Dardar eskaxenaren urbil xamar ibilliko zan, ea ezer ikasten zuen.

Urrengo urtean, irugarrena. Ta sei urte zera-mazkien kontrabandoan Joxe Iñaxiok. Ez zaarra zalako. Baña aula, erdi gaixo zebillena. Ta gazte ta sasoiko talde bat geratu zan.

Baña Dardarrek karraxia entzun zuen; eta aballa bizian, igesi joan bearrean, laguntzera joan zitzaion. Bai iltzallea ikusi ere. Dardarren urratsak nabaitu zituenean, besteak igesari eman zion. Berreunen bat metrora, pago baten ondotik, zeletan jarri zitzaion. Arratsa izan arren eta urruti xamar, illargi bikaña baizegoen, ura etzan besterik: Bibote-Aundi.

– Ea demonio orrek ortarako utzi zuen kontrabandoa!

Bizkarretik sartu ta bularretatik aterea zeukan puñalaren zuloa.

– Aula ta gaixoa zala... Alare, ez da txantxetan ibilli... Nork il ote du? Ezpairik gabe, Bibote-Aundik. Onekin baditu iru eriotz sei urte auetan.

Argiñak esan zionez, etzuela amabost metrotik tirata, puñalarekin utsik egiten...

Zeramazkien diru pixarrak kendu zizkion, alargunari emateko, ezaguna zuen-ta.

Beste lagunak baño ondotoz beranduago etorri zan. Lagunak urduri zeuden, azkeneko biak palta ziran oraindik-eta. Noizbait, eraso aurreko trumoi illunaren gisa, an azaldu zan.

– Eta laguna non galdu dezu?

– Bidean. Gizarajoa, pagadi zaarraren ondoan, luze ainbat zabal, illa... Egundoko puñalazoa eman diote. Bizkarretik sartu ta alderik-alde zulatu. Ni urbiltzen ikusi nauenean, igesi joan da iltzalea. Obe du, bai. Bestela, azkenekoa izango zuen ori. Bibote-Aundi, kontrabandoko laguna, iruditu zait, urruti xamar zegoen arren.

– Zaude ixilik, gizona! Ori ezin ditekena da.

– Zergatik kendu zuen orduan gure salletik? Ezin zuelako etzan izango. Ni asi ezker, baditu iru. Gure nagusi Basajaun deabru orren aginduz dabil ura xaar ta aulak iltzen, gero gazteak artzeko. Urrena ikusten detanean, bereak eta bost entzun bear ditu. Eroak gerala uste al du orrek?

– Etzaite geiegi berotu, Dardar, eta obeto er-tengo zera. Gizon maltzurra da ori. Zu galtzeko moduak ere ea egiten lituken...

– Ori jana daukat: urrengo eraso neretzat izango dala. Baña bera ere balebilke erne. Nik nere bidean arrapatzen badet, aztuko zaizkio gizon-iltzeak. Orrek ez duela amabost metrotik utsik egiten. Ortan ere nik irabazten diot. Berrogei metrora nik begia jartzen detan lekuan sartuko da tiratako arria. Eskuetara ezker, txitoarena egingo diot. Oloak aleenak! Zuek ez al dezute lagunik maite? Gu ere zaartu arte emen bagabiltz, onek edo besteak sari berdiña emango digute: puñalazoa bizkarretik eta zulora. Ordaindu aurretik joan dira irurak. Illabete osoko aien irabazia beretzat. Ikusten detan bezin aguro, arpegira bota bear dizkiot gertakari auek guziak Basajaunari, eriotz auen errudun bera da-ta. Nai al dezute apustu txiki bat egin? Etxerako aitzakitan, zeleta egin dezaiogun or goitik. Ordu erdi baño len kontrabandoarekin Bibote-Aundi etorri baietz!

Esan ta egin. Andik minutu gutxira, zarrakazarraka, beren aurretik igaro zan, kaja bizkarrean zuela.

– Ez al nenbillen ni zuzen? –oiu egin zuen Dardarrek.

– Bai. Gure begiak in ikusi deguna ez daukagu ukatzerik.

Ez dakit nola etzan Dardar txuxenean txabolara jetxi, bertan txikitzeko. Baña lagunak etzieten utzi.

– Lagaiok gaurkoz. Biar Basajaun etorriko da ta itzegingo degu.

– Baña demonio ori ez det gaur baño erosoago arrapatuko.

Bazekiten urrengo egunean Basajaun azalduko zala, zekarten berriarekin itzegitera. Ori zuen betiko oitura.

Urrengo arratsean, Dardar kontrabandoarekin iritxi zanean, an zegoen Basajaun. Baña oraindik etzekin gertakari guzien berri. Gizona il zutela bai; berria ekarri zuten beñepein. Baña igerra zion asarre xamar sartu zala.

Basajaun berak itzezin zion lenengo, adarra jotzeko asmoan:

– Asarre zatoz gaur. Bidean zerbait egin al dizute?

Itzbidea jarri zionean, laxter artu zuen erantzuna, berak uste baño latzagoa:

– Neri ez. Baña lagun bati bai. Iñori egiak arpegira botatzeko ez daukat beldurrik gero... Alde-rik-alde Bibote-Aundik zulatu zuen ura. Nere begi auk ikusia. Ni nabaitu niñunean, igesi joan zan. Baña ez nik ezagutu gabe. Pago aundi baten ondolik begira zegoela oartu nintzan.

– Bai. Mozkortzen zerate ta okasioak sortu. Ortik datoz ondoren auk.



- Kontuz gero nerekin, Basajaun, nagusia bazaitut ere! Odol otzean gizona iltá, oraindik iseka egiten al diguzu? Ni asi nintzan ezkerro, au bada irugarrena. Ta beti aula ta eziñean dabillena, ta illaren azkenean. Gixaixo oietako bat il orduko, berria badator, ta gaztea. Or dabillena Bibote-Aundi da. Ondoren, berak ekartzen du kontrabandoa. Zurekin itzegiña ez balego, nola liteke ori?

- Ixilik zaude, Dardar, ta obeto aterako zera. Mozkorra pasatzean, itzegingo degu.

Exerita zegoen lekutik, jauzi bat egin zuen Dardarrek, zezen batek bezela, ta txutik aurrean jarri zitzaion:

- Bai al dakizu zer esaten didazun? Ez didazula berriz olakorik aipatzen! Gaur oraindik ez det baxo-erdirik ere edan. Eta, denen aurrean neri mozkorra deitzeko, ez daukazu eskubiderik.

Izutu zan Basajauna eta etzion itzik trukatu.

- Or ez dabil mozkorrik, iltzallea ezik. Ori, ondo pentsatuta egindako lana da. Bestela, zeñek ekartzen du onera, illak uzten duen kontrabandoa? Erantzuiozu orri! Zalantzan banengo, ez nuke orrela itzegingo. Ziur badakit ura dabillela. Atzo denok ikusi genduen, gu ezkutatu orduko nola ekarri zuen arek galdutako zama bizkarrean. Orregatik atera naiz nere onetatik. Ai zer azken goxoa opa diguzun!

- Uxoa artu nuela uste nuen ta artza erten zait -zion asarre Basajaunak.

- Nik, berriz, artzarekin asi nintzala uste, ta deabrua bera gertatu. Ez naiz ez uxu, ez artza. Zuzen dabillanak ezin lezake nere beldurrik eduki. Baña zure negoziarako komeni etzaizkizunak aurretik eramate ori, ez orain eta ez gero, egundo ez det ontzat artuko. Munduko urre guziak baño

geiago balio du neretzat lagun urko baten biziak. Eriotz auek bukatzen badira, ixil-ixilik zure sallen jarraituko det txintxo, egun bat utsegin gabe. Baña ez badira mozten, urrengoan ortzak erakutsiko dizkizut.

Basajaunek etzion erantzun. Baña Dardarren azkeneko itzak zerbait lasaitu zuten. Bere eginkizunak bete ondoren joan zan; baña sumindua, denen aurrean argi ta garbi salatu zuelako. Indarra besterik etzeukan astaputzari, erakutsiko zion norakin zebillen.

Dardarrek oraindik an jarraitu zuen. Erne, ordea. Etzuen asko irabatzen, baña ondo etortzen zitzaion. Begi-belarri, batez ere kontrabandoarekin zetorreanean eta txara ta zugaitzpetan. Etzan gañera beñere leku beretik ibiltzen. Garbian etzeukan aren beldurrik. Ori Bibote-Aundiak berak bazekien. Bi edo iru arri koxkor aski zituen arekikoak egiteko.

Indarraren paltik etzeukan ezker, ol lodi bat lotzen zuen garrondotik ipur gañeraño, bizkar guztia estaltzen ziola. Onen gañean kaja, aundi xamarrak izaten baiziran, zeraman, ola bete-bete. Atzetik tiratzen bazion, eta ala zuen oitura, kajan sartua geratuko zan puñala. Bai-baizekien, Basajaunek besteen artetik kendu naiko zuela. Ez eskaxa zalako. Eriotz aien berri ikasita, denen aurrean arpegira kantatu ziolako. Asko zekien. Agian salatu zezaken, gañera.

Beren sari-legea artuta, ia kontrabandista guziak batera ibiltzen ziran elkar babesten. Baña bein, zamaren billa berandu joan zalako, beste denen atzetik zetorren, erne bide guzian. Bibote-Aundi iruditu baizitzaion, kaja aundi aiek artzeko lekuan, bazter ezkutu batetik begira.

Artu zuen bizkar gañean luze ta zabal, burua

makurtuz, bere atze guzia babesten zuela bada ez bada.

Alako txara bazterreko bide txigorrera igarotzerakoan, arkaitz baten atzetik tira zion indar guziakin. Baña, Dardarren zorionerako, erdiz-erdi bizkarrean zeraman zamari sartu zitzaion. Sube gorri batek bezela buelta eman zuen onek, zoritxarrez. Bestela, berak jarritako sarean eroriko zan.

Tira zionak, otsaz gañera, Dardarren eragiñean ezagutu zuen kajari sartu ziola, ta igesari eman zion. Dardarrek beti berekin ibiltzen zituen kaiku-  
arri aietako bat laster zuen atzetik. Utsegin, ordea. Tiratzeko batean, oñak larren batean lotu ta muturka erori zan. Orretzek salbatu zuen. Burrunda zeriola, buru gañetik igaro zitzaion.

Zutitu ta, zijoala, tira zion beste bat, eta ezkerreko beso-buruan jota botean joan zan arria. Alako «Otx!» bat esanta, arrainoak ez badu, laxter igaro zituen txara arteko bideak.

- Orren besoak aballa zirudik. Kaskarrean arrapatu baniñu, etzidaken parra gaizki egingo.

Orduan aren eskuetan erori balitz, bertan txirtxillatuko zuen.

- Urruti xamarrera ere nere aran beltzak mingarriak dituk, Praixku. Ire anketan lotu dan lar madarikatu orri eskerrak ematen al dizkiok. Bestela, gaur nere atzaparretan utziko uan bizia -esanta, bere bidean joan zan.

Besteak baño ondotoxoz beranduago etorri arren, an zegoen Basajauna. Ez noski Dardarren zai, ura onuzkero txara-bazterren batean illa izango zala uste zuen-ta. Baña kukuak oker jo zion.

Ura, ausarditsuegiaz gañera, geiegi zekiena izaki. Azkeneko eztabaidan, aren aurretik larri asko

aldegiña zan. Salletik kendu ta beraren mingaña moztu bearra zegoen.

– Non dezute Dardar? –galdetu zien lagunai.

– Ez dakigu. Beti sallean etortzen gera, ta gaur atzera geratu zaigu, kontrabandoaren billa berandu joan dalako.

– Ea ari ere zerbait gertatu zaion.

Orixe esaten ari zala iritxi zan, Bibote-Aundik sartu bezela, oraindik puñala kajan zeukala.

– Ez, Basajaun. Ez noski zure naiaren paltan. Baña Dardar bizirik dator. Ikusten al dezute, kaja onek ondoraño nola daukan puñal ori itxatxia? –oiu egin zuen, zama maiaren gañean utziz.

Bere lagun guziak izuturik ikusi zuten.

– Baña nork tira dik ori? –galdetu zion Basajaunek.

– Umeak iruzurtuko dituzu; baña ez ni. Billaua aleena zu! Etzenduen uste, ez, gaur ni emen ikusterik. Aitortu zazu bein, badakizu ori norena dan-ta. Ni asi ezkerro, iru gizon il dituen borreroaren puñala da ori.

Beste kontrabandistak ere, izutu xamarrek baña suminduak zeuden. Patxara xamarrean itzegiten bazuen ere, etzuten orduan bezin asarretua egundo ikusi Dardar, amorruez gorputz guzia dal-daraka zeukan-ta.

– Ago ixilik. Obeto aterako aiz –erantzun zion Basajaunek.

– Ixilik egoteko, lau ankeko bat bezela eriotzera saldu nauzu-ta? Nagusi jauna, ez gero neri gero desapiorik egin. Oso-osorik nere eskuetan zaude ta sumindua nator. Ez geiegi zirikatu. Ez nauzu ezagutzen ni ondo. Arraixkuan dagoen lagun baten alde, bizia ere jarriko nuke. Ta ixilik egoteko neri? Eskerrak kaja bizkarrean nekarrenari, ta tira didana beldurrak zegoela. Alare, neri

ixilik egoteko? Zuk, gure biziarekin jolasteko, zure ukulloko txalak generala uste al dezu? Zure griñakoa banintz, bertan itoko zinduzket. Baña ez naiz ola-koa. Nere barrenak ez didate ori agintzen. Alare, ortan jarraitzen badezu, etzera oiean ilko. Kontuz, orren mende lanean ari zeratenok! Orri komeni zaionean geratuko zerate bidean, beste gure iru lagun maite aiek bezela. Garaiz erretiratzeko asmoak ez badituzute artzen, eta, jakiña, Basajaunarentzat azkeneko irabaziak utzita, beste Bibote-Aundiren bat izango da zuentzako ere, arratsean barea bezela zulatuko zaituztena. Ura dabil, gure nagusi maltzur onek sarituta, gure ta bere lagunak iltzen. Neri tira didanean, ederki ikusi det. Esker-rak ematen al dizkio, bere anka aundi artan lotu ta bota duen larrari. Bestela, orain an zegoen puñal onekin lurrari josia ta ortzaz gora.

Indarrean kajari kendu zion puñala.

– Onek iru lagun maite, gure langilleetakoak il ditu. Laugarrenak ementxe bertan il bear luke, len esan detan bezela, ez banintz kristaua. Gutxiago merezi zutenak eraman ditu aurretik.

Barru artan etzan ezer entzuten, erraldoi aren oiua besterik. Puñala eskuan zeukala, gozoa zegoen ura. Beldurrak aidean zeukan jendea, batez ere Basajaun. Billaua bazan ere, etzeukan arrokeri geiegirik, Dardarrek noiz aldegingo zoratzen, ixilixilik bere txokoan.

Indarrean tira zuen eta txabolaren atzeko ol batean, eskulekua jotzeraño sartua, geratu zan.

– Olaxe tiratzen du arek, eta arrapatzen due-nari ez dio atsegiñik emango. Ta zuk, Basajaun, bota zor didazuna. Berdin ez det zurekin geiago lanik egingo, oso kontentu nenbillen baña.

– Nik ez dakart xentimorik nerekin. Lan ori Don Lukasena da. Eskaiozu ari.

– Alperrik ibilliko zera gero igesi, ordaindu nai ezik. Andik edo emendik, nik artuko det nere-a. Dena barkatzen dizut. Utzi bizitzen pakean. Eta begirozu nere bidean jarri. Nik ere baditut lagunak.

– Mandazaiak gera eta guk ere nonbait or ibilli bearko degu. Agian bide oietan elkar topo egin genezake.

– Bejondeizula! Pakerako bada, ori izango da biontzat onena, ta nerekin lagun bat geiago bazen-duke. Txarrerako bada, berriz, nik ere gudarekin erasoko dizut. Guk ere, beartsuak izan arren, badaukagu bizitzeko eskubidea –esan ta, ixil-ixilik aldegin zuen andik.

– Ori dek animalia, ori! –zion Basajaunak dal-daraka.

– Bai. Baña mazala. Biotz oneko gizona. Ba-koitzari txuxen bere izenez deitzen dakiena. Orren lekuan beste norbait izan balitz, larriak izango ziran. Emen etzan ixkanbilla au ortara bukatuko.

– Ez dabil ori gezurretan, ez. Etzuen, bestela, orrela itzegingo. Ez da lurraren gañean, orren in-darrak dauzkan beste olako gizonik, au bezela as-takeriren bat egin gabe joango danik. Onek, gerta-tuak garbi-garbi kontatu. Dena barkatuz aldegin du, ain urbil eriotza ikusi ta gero. Guri ere naiko zer pentsatua utzi digu.

– Zuek ere nai badezute joan, langille-paltik ez det izango.

– Kobratu baño len ez beñepein. Bai. Barea bezela bidean zulatzea baño obe genduke ori. Ondo pentsatu bearra daukagu. Nori txarrik egin dio Dardarrek, lanean ari dala bidera atera ta pu-ñalaz iltzeko? Arek ez du egia salatu besterik egin. Denok dakigu iru il dituztela. Azkenekoa il zute-nean, ederki ikusi genduen Bibote-Aundik nola

ekarri zuen kontrabandoa. Ez genduen errex geratu erazi Dardar. Txabolara joan ta an arrapatu nai zuen. Ori salatu zuelako, iltzea merezi ote du gizonak?

– Orrek esan duen bezela, Bibote-Aundi bada-bil or, –nik ez det sinisten ori–, bide oietan ez da beste eriotzik egingo.

– Ez al genduen, bada, gerok gure begiakin ikusi nola Praskuk ekarri zuen ildakoaren zama? Alare, ori egia badiozu, guk jarraituko degu, orain arte bezela, lanean. Baña Joxe Iñaxio benetako babesa zan guretzat.

Urrengo arratsean ere joatekotan geratu ziran. Baña denak Dardarri eman zioten arrazoi. Bazekiten etzala gezurretan ari.

Zor zitzaiona kobratzera joan zan Dardar Don Lukasengana. Baña Basajaunek ez ordaintzeko agindu omen ziola.

– Eskerrik asko denoi, onekin bukatzen dira gure adiskidetasunak-eta. Burrukarako bideak utzi nituenean, ez nuen arrazoi makala, ez. Joxe Argiñak ere zuekin erne ibiltzeko esan zidan. Orregatik ez nintzan aurreragi sartu.

– Baña, Dardar: nik ortan zer erru daukat?

– Don Lukas ta Basajaun, ta Basajaun da Don Lukas, ez naiz nere lanaren ordañik artu gabe geratuko –esanta, aldegin zuen.

Urrengo arratsean, denak baño lenago joan zan, ta kaja aietako bat etxera ekarri zuen. Ez bazioten ordaindu nai, or konpon!

Basajaunaren langilleak laurekin etorri ziran. Bostgarren langillea utsik.

– Bost etziran, bada, ekarri bear zenituzten zamak?

– Guk ez ditugu lau besterik arkitu.

– Dardar madarikatua! Aren lana da ori.

Oraindik beste iñork ez dit egin olakorik. Ausarditsua da benetan. Baña norekin dabillen ez daki.

– Olakorik ez dizula iñork egin? Aukerik eman al diezu, orain artekoak, illabetea osatu aurretik, puñalaz josi dituzute-ta? Anbat aiek ere egingo zuten ori. Irabazitakoa beren alarguentzat etzan gaizki etorriko.

– Zor niona baño askoz geiago eraman dit, orde.

– Ordaindu bazenio, arek etzuen eramango. Zer nai zenduke: dena zuretzat uztea? Besteok ere bizi bear degu. Arek eramana bada, ori ere ez baidakigu, etzaigu ondo egiña iruditzen. Baña bere saria ez badiozu eman nai, berea eraman du. Oraintxe bertan ekarriko dizut kaja ori, zor diozuna ordaintzeko dirua ematen badidazu. Zuk ez dezu ondo ezagutzen Dardar. Artu-emanean txuxena da ura.

– Aurtengo urtea joaterako, erakutsiko diot nik ari kaja ori arena edo nerea dan. Au ez da ortan geratuko.

– Nai dezuna egin zazu. Baña ortarako ez dezu arrazoirik. Danik errexena da ori konpontzen. Len ere esan dizugu nola.

– Ez det konponketarik nai. Irain-ordañak artu gabe ez da geratuko.

– Arekin, bada, oso leku txarrean sartuko zera. Gaizkian asten bada, aren erasoak ere ez dira goxoak izango, besterik azaldu ez dan bezelakoa da-ta.

– Puñalak egingo ditu aren lanak.

– Len ere aukera ederra zeukan, tira zuenak uste gabean erasota. Alare, arma galduta, bera joan da igesi. Puñalarekin ere ez ote da zuek aña izango? –zion batek.



- Orra orain nola aitortzen diguzun len ukatua -besteak.

- Len ukaturik ez det nik baieztu.

- Eroska ori or zebillenik etzenduela sinisten. Orain, berriz, puñalak egingo dituela orko lanak. Norenak, Bibote-Aundiarenak ezik? Arek il ditugure lengo iru lagunak; ez lapurrak.

- Orrek merezi du.

- Dardarrek ez du olakorik merezi, ez dio iñorri txarrik egin-ta. Agian zerori eramango zaitu aurretik.

- Aski degu. Utzi ni pakean. Ez det zuen aolkuen bearrik.

- Itxi zaite zure egoskortasunean. Laxter gera nagusi gabe.

## **BASAJAUN TA BIBOTE-AUNDI**

Erremindua aldegin zuen andik Basajaunek. Etzegoen bromarako. Denen aurrean lotsagarri geratu zan. Bere billaukeri guziak argitara azaldu zizkion. Azkenean, langilleak ere aurka atera zitzaizkion. Eta Basajaun ta Don Lukas, ta Don Lukas ta Basajaun, Dardarrentzat dena agerian zegoen, eta bere askatasuna ta izen ona aren eskue-tan. Aren mingaña ixildu erazi bearra zeukan.

Kontrabandoko kaja ebatsi zion urrengo egunean, gordeko gela txiki artara deitu zuen Bibote-Aundi.

Au, agindu bezela, txuxen etorri zan. Baña ez

ate aunditik sartu. Larri aldegin bear izan zuen andik, Dardar beste iru artzairerkin jokoan ikusiz, urte batzuk lenagoko mai artan bertan. Eskerrak etzala muslaria oartu. Bestela, anka-joko ederra egin bearko zuen. Laxterka etzuen arrapatuko noski. Baña aren eskutik kaiku-arri aietakoren batek bai.

Ezkutuko atean deitu ta Basajaunek berak zabaldu zion.

Miserere bat egiña azaldu zan gure Praixku: lepotik zintzilik zeukan zapi batean babestua ezkerreko besoa, zurbil ta goibel benetan.

– Arratsalde on, Basajaun.

– Baita zuri ere. Bidea aztu egin al zaizu?

– Ez Baña Artza emendik metro gutxira or ari da jokoan, eta ez nuke orren atzaparretan erori nai, nagoen bezela gañera.

Goitik asi ta beeraño aztertu zuen Basajaunek, gizon-modu ura tankera artan ikusita arriturik.

– Orduan gure etsai ori or ari da jokoan?

– Baita lasai aski gañera.

– Zergatik ez diozu berea eman urde orri?

– Urrutira ere beldurgarria da ori. Sar zaite bertatik bertara.

Basajaunek, itxuraz benetan errukiturik, ala galdetu zion:

– Gizona, zu zearo eroria zatoz. Zer gertatzen zaizu ezkerreko beso ortan?

– Or jokoan ari dan orren aran beltzak egingdako lana da ori. Autsirik ez det izango noski. Baña bai minbera. Artzaren atzamarkak txarrak izaten dira. Arek bialitako erregalia. Presaka asi zalako, ez nintzan beraren atzaparretan erori. Ni ere beldurrak nenbillen, kaja-otsa entzunta, ez ote nuen illa izango. Zirauna bezela biurritzen ikusi nuenean, igesari eman nion. Zaurituagatik, erne

arekin. Eskerrak erori nintzan. Bestela, bertan illa utziko niñun. Librako kaiku-arria, alajainkia, burrunda zeriola igaro zitzaidan buru gañetik. Arek jo baniñu, seko bertan geratuko nintzan. Etzegoen atsegin Artzaren aurrean.

– Buruaren gañetik pasa ta bizkarrean jo? Bat baño geiago tira al zizkizun batera?

– Lenengo arria, txistuka nere buru aundi ontara zetorrena, igaro orduko, aren eskuetan erori ez nendin, zutitu ta aide egin nuen andik. Baña bigarren aran beltza ere, nik nai baño lenago etorri ta ezkerreko bizkar-gain ontan jo. Egundoko jauzia egin zuen. Nere puñala parregarria da orren arri baten ondoan. Eta atzetik datozenak kontatu itzazu. Berrogei bat metrora jo niñun, eta ez dakit nola ez nintzan muturka erori. Alare, ez det uste ezer autsirik izango detanik.

– Mundu guzia irentsiko zenduken oietakoa dirudizu, ta neskatx guri baten lanturakin al zatoz onera?

– Neskatx baten lanturak diozu? Arrats santu guzian ez det begirik itxi. Olako igurtzi bat ematen badizu, «Otx!» esan bearko dezu zuk ere. Ez dago, ez, jolasik orrekin. Etsai baño lagun izateko ohea da ori. Aballa bera baño ere zauliagoa da orren besoa. Ta begia jartzen duen lekura dator arria.

– Bere mutur aiek mazpilduko zenituela-ta, arro or ibilli etzera, bada? Gaberdian txaran gal dutako neskatx bat baño izutuago zabilta zu orren ondoan. Oraintxe bertan ere ez daukazu aukera txarra, ainbeste alditan jalki zaizuna betetzeko.

– Bai. Ortarakoxe nago. Maltzurkeriz ere lanak emango ditu orrek.

– Noski, mendia añako gizona utsegingo zenuen, bada?

– Ori ez da egia. Nik ez nuen utsegin. Txuxen asko joan zan nere puñala. Baña bizkarrean zerman kajan itxatxi, esku-lekuraño sartua.

– Besteak ain errex il dituzu, ta ori izaki bearezkoena ta ez dezu ondo arrapatu. Zergatik? Beldurrak joan zeralako.

– Arrazoi pixar bat badezu. Beti beldurrak urbiltzen naiz ni orrengana. Alare, erdiz-erdi sartu nion. Baña orrek etzebilkien, besteak bezela jarrita, zama.

– Goxoa etorri zan. Izugarriak esan zizkidan, langille guzien aurrean gañera. Ez niola ordainduko zorra ta Don Lukasengana. Arek ere etzion eman.

– Basajaunek ukatzen badio, Don Lukasek nola ordaindu?

Eta parrari eman zion Bibote-Aundik.

– Baña billau arek epela sartu dit: besteak baño lentxeago joanta, kontrabando-kaja ostu ta beretzat eraman. Ori ez diot egundo barkatuko. Aurtengo urtea joaterako garbituko detala ziña egiña daukat. Utzi itzazu bide oiek. Aurten orren lanak egiten badituzu, ondo sarituko zaitut. Baña demonio orrek ez du nere bizkar olako parrik egingo.

– Aizazu: arrazoi ematen diot. Ez du berea besterik eraman. Nik ere zerbait pentsatu bearra daukat, ez badizkidazu gaur artekoak ordaintzen.

– Oraintxe bertan ordainduko dizkizut. Eta, ura garbitzean, bi alako.

– Garbitu? Ea arek galtzen gaitun biok. Animala gaixtoa da ori benetan. Oso zalla egokieran arrapatzen. Beldurgarria baita. Besteak bai, eskue-tara orduko. Ni baño eskaxagoak baidira. Au, or-

dea, oraindik iñor ezagutu ez detan bezelakoa. Ta, arrapatu ezker, txikituko niñuke. Atzo ere ez dakit nola ez nintzan bere atzaparretan erori. Ainbeste diru irabazi dezute orren bizkar, eta orain, berea eskatu dizuetenean, iltzera saldu. Edozeñek asmatzen du zuekin. Neri ere zer pentsatua ematen dit zuen joerak: ez ote diran nere lanak ere saritu gabe geratuko.

– Zu ere oien beldurrak kutsatu al zaitu?

– Kutsatu edo... Zer esatea nai zenduke? Eriotzak or daude.

– Alegiñak egin itzazu beñepein.

– Aurtengo urtea joaterako ura edo ni galduko generala, ziña egiten dizut. Nonbait arrapatu baneza eroso... Baña benetan arraixku txarrean sartuko gera biok. Arek, onuzkero, buru argikoa baita, zu nor zeran ikasiko zuen.

– Asmaketa arrigarri bat ere badaukat. Arekin ez diozu bizitzen utziko. *Eltzaorra* ipiñi diot izena. Aren orroak lertu eraziko ditu abereak eta gizon-emakumeak. Dardarren berri dezunean, emango dizut. Badakit bizitzera beste baserri batera dijoala. Laxter ikasiko degu nora.

Ordura arteko sariak kobratuz, eta urtea bukatu baño len Dardarekikoak egiteko ziña egiñaz, agurtu ziran langille-nagusiak. Baña bere arraixkuak bazituen: etzala errex ura tirabidean jarriko.

Andik bi metrora musean ari zan etsaia, olakorik pentsatu gabe. Erasoak erakutsiko zion bere burua nola babestu.

## DARDAR ETA ARTZAIAK

Donosti'ko bertsolari-txapelketa batera joan nintzan bein. Guda aurreko kontuak dira auek.

Batean auxe izan zuten gaia: bertako maixuak, euskaldunak alegia, bear lirakela; ez, ordura arte bezela, erdaldunak. Errenteri'ko bertsolari batek au esan zuen, aurrekoari erantzunaz:

Gure asabak artzaiak ziran,  
aiek nola erakutsi?

Zalantzik gabe ala izango zirala. Batzuk, beekoak, nekazari ta artzai; besteak, berriz, alde-rraiak: udaran mendian ta negurako beera. Goi oietan neguan artaldea bizirik aterako duen artzai-rik ez baita gaur. Orduan ere berdin izango zan.

Mendiak basamortu utzita, udazkenero bezela, jetxiko ziran artzaiak beeko babesetara, itxasertze-ko ordeketara alegia, goiko mendi-gañak tristura-pean geratuz. Illabete batzutan elurrak aginduko zuen an. Baña udaraberrian apainduko ziran gal-lur aiek.

Ez dute aldaketa au oso atsegiña izaten artzaiak. Beera bear orrek goibeltzen ditu goian dabilzanak. Ez dute jetxi nai. Zurubiak, jetxi ta igotzeko omen dira. Al balute, goian geratuko li-rake.

Udaran, goian paketsu ta lasaiago bizi. Ardiak bota larrera ta txakur txiki bat aiek zaintzeko. Bel-lar motxa, baña guri ta fiña, atsegiñagoa dute ar-diak, beeko zakar ta izotzak errea baño. Larreak ere ordaindu bearrik ez.

Ardientzat ere ez da atsegiña izaten aldaketa au. Udaberria urbiltzean, laxter asiko dira gora begira beeka, ango larreak irrikatuz.

Urte artako negua gogorra zan. Benetan latza. Jendeak bazeukan sukai-txokoak utzi ta mendira ateratzeko gogoia. Ekaitzak, beñepein, egoskor eta setati irauten zuen.

Nekazariak larrerik-larre zebiltzan, beientzat otegiñan. Untz beltzari ere erasotzen zioten. Ne-guan dena ona du, goseak dagoen aziendak.

Alare, geldi-geldi eguzkia goratu alean, otzaren indarrak aultzen ari ziran. Tarteka egun alaiak bazetozen. Lurmenak billatzen zekien artzaiak, etzituen egun auek galduko. Larre motxa baze-goan, eta goxatu ederra artzen zuten egun oietan ardiak.

Martxoa edo Epaila etorri zan. Artzaientzat beldurgarria omen da illabete au. Lengoak aitu ta berririk sortu ez, gorrotoan daukaten illa.

Bein, erri batean, artzaia aukeratu omen zuten alkate. Jakiña, artzaien botoarekin, eta egutegitik Martxoa kentzekotan.

Izen berria jarri bazioten ere, ura beti Martxo ta lengo lepotik burua. Alare, urte artan tankeraz-koa egin omen zuen. Artzaiak, beñepein, kontentu geratu zirala. Ogei ta bederatzira iritxi zanean, batek arro-arro Martxoari iseka egin omen zion:

– Ai, Martxo, Martxo! Nere ardirik aulenak errekarik aundienari aixa egin zioke salto!

Artaldeak erreka igaro zuenean esan omen zion ori.

Martxo, ain goxo igaro zana, asarretu zan. Orrilla edo apirillari egun ta erdi eskatu zizkion. Bai onek eman ere.

Asi omen zuen euria, ta egundoko ugoideak atara. Ta artzai arroaren artaldea, erreka igarotze-rakoan, urak eramane zuen. Aaria bakarria geratu zan, ta ura sasia trabatua.

Askatu ta bizkarrean zekarrela, azkzalakin artzai gizarajoari begi bat kendu zion.

Geroztik, *zozo-mikote* izenarekin ezagutzen ditugu egun auek.

Udaberria badijoa aurrera. Enarak, ia lurra ukuituz aldaroak egiñaz, badijoaz gure barrutietan barrena, egaka ariñean, bazterretara begiratu ere gabe. Ez dute iñon geratzeko betik.

Artzaiak asi dira mendirako ametsetan.

Kukuak egin du sarrera. Erroma'ko zubian kantatzen omen du onuntzakoan, martxoaren ogei ta bostean. Leku berean aruntzakoan ere; baña San Pedrotan.

Mendi-gañetan sortu da belar goxoa. Ekaitzak baletozke ere, motxak. Ordurako ia goienez bai-dago eguzkia. Egunak ere luzeenez. Beroak gogor jotzen du. Ortik aurrera, udazkena arte, aukera dago gure mendietan.

Beari agur egiñaz, badijoaz gure artzai alde-rraiak beren artaldeekin goiko larreetara. Baña beeko baserrietan ere etzan ardi-paltik izango. Nik ala ezagutu nuen beñepein.

Artzaiak beeko babesean zebiltzan bitarte, Dardarrek egin zuen etxe-aldaketa, osaba-izebei erosita.



## ELTZAORRA

Ardiak beeko kutsuak garbitu ta beren bizimoduan sartu ziranean, eta bildotsak ardi zaarren artean jauzika ta jolasean zebiltzala, egundoko orroak nabaitu zituzten arrats batean mendi-egal aietan. Inguruko bi edo iru erri koxkorretan, izutua jendea, kalera erten ta ura zer izan ziteken galdezka. Baña iñork etzekien zer erantzun, eta orroak eten gabean jarraitzen zuten.

Zer pentsatu etzekiela geratu zan jendea, ta iñork erantzunik ezin billatu. Etzitzaion igertzen urrutiko edo bertakoa zanik. Ezta beetik edo goitik jotzen zuenik. Baña beti atzetik eta bertan, bellarri ondoan, eta ordurarte iñork oraindik entzun etzuen bezelakoa. Urrutira joan edo ez, beti gañean. Gauaz eta mendiko ixiltasunean, denak alai ta pozez bizi ziran orduan, bat-batean zabaldukako karraxi itxusi ta sarkorrak. Mendi-abereak, aske zebiltzanak beñepein, entzun zuteneko, denak igesari eman zioten. Lau aldeetara banatu ziran.

Aizkatu ziran artzaiak ere, izutuak, zer gertatzen zan jakin nairik eta benetan urduri, ango abereen ixkanbilla nabaitu zutenean. Berak ere atzera begiratzen zuten, andik norbait orroa jotzen ari ote zitzaien.

– Zer demonio ote da au? Oraindik olakorik ez degu entzun. Lur jota geratu bearrak gera. Ez da abelgorri bat bizirik geratuko.

Bordan etzeuden artaldeak, izututa, beren txakur ta guzi aldegin zuten.

Noiznai, laukoan ta irrintzika, ikusten etzutenari ostikoka zijozten abelgorriak, artalde artean

barrena, ankapean ardi batzuk lerdakatuz eta beste batzuk aidatuz ostikoan. Beren zorabioan, nora etzekitela, askok beren buruak galdu zituzten. Besteak, berriz, andik egunetara azaldu ziran kilometrotara. Ernari zegoen bakar batek etzuen ume jatorrik egin.

Ardiak beeka, beiak marruka ezin egonik, auntsak merruka, txakurrak audika kateak eten bearrean, txerriak kurrixkaka, katuak miauka, olloak kakareka... Basurderik ere etzan geratu inguru aietan. Oraindik olakorik!...

Alperrik ziran artzaien egiñalak. Berak ere izutuak baizebiltzan. Eta, ankapean ez artzezkeroz, bordako babesera sartu ziran, nai zutena egin zezatela. Bizia zan lenengo. Ta, eziñaren eziñez, barruan negar egin bear; ondasun guzien ondarena begien aurrean ikusiz. Beren bizitza guziko nekeen saria ta sendiko bizi-modua goi-beak jota geratuko ziran. Eta orro izukor ura etzan ixiltzen...

Geiago etzutela bururik jasoko ta beren buruak il nai zituzten batzuk. Ainbeste etsi gabeak baziran tartean. Aiek galerazi zieten, itxura ainbat kalte etzutela izango ta ez etsitzeko esanaz.

– Kalma, kalma! Ez degu uste ardietan kalte aundirik izango degunik. Abel gorriak bai. Oietatik asko galduko dira. Baña oiek ematen dutenetik ez gera biziko.

Giza-emakumeak geratu ziran beren lekuan, zer ote ziteken ura galdezka ta aien ondorenak ikasteko beldurrak. Neskatxen bat edo beste, ziotenez, izuaren izuz lertuta, illak izan bear zuten. Naiko ixtillu sortu zuen orro itxusi ta sarkor arek.

– Artzai gizarajoak! –zioten, eta lotara joan ziran.

Amar kilometroren barruan berdintsu entzuten

omen zan: Ez aundiago ta ez txikiago. Orrek geiena larritzen zituen abereak.

Orra artzaien mendi oparo ura basamortu biurtu!

Etzan noski ondamendi au denentzat gaizki etorri. Artzai beartsu langille aien bizkar, amaika aizunek egin zuten Amerika.

- Orra egun atsegiñen ametsak! Nora joan bear degu orain? -zioten artzaiak.

Ixtillu auek denak arratsean gertatu ziran. Eguna argitzean, ikusiko zuten zenbaterañoako kalteak egin zituen.

Goizean, itxituratik kanpoan zegoen ardi bakar bat ere etzuten bere lekuan arkitu. Aurreko larre aietan etzebillen bat bakarrik. Illik ere etzan ageri.

- Non sartu ote dira gure ardiak?

Beeraxeago bazeuden, zaldiak ankapean arrapatutako bakarren batzuk. Baña bizirik alerik ez. Txakurrik ain gutxi. Aiek etziran, bada, orro aiekin lertuko. Banaka-banaka sasi artean lotuak eta txokoren batzutan mordoskaka bazeuden bilduak, beren txakur ta guzi, elkarri babes egiñaz. Geienak bizirik arkitu zituzten noski. Baña artalde batekoak bestekoakin nastuak. Naspil artan denak lagun.

Artzaiak azaldu ziranean, benetan poztu ziran txakurrak. Bai ardiak ere. Zabalera atera ta baikoitzak bereak berexi zituzten. Eta, paketu ziranean, asi ziran larrean. Etzan ardietan kalte aundirik. Baña abelgorri ta beietan izugarriak noski.

Artzaiak batzar txiki bat egin zuten, zer joera artu erabakitzeko. Batzuk bereala urruntzekotan zebiltzan, beste alakoren bat gertatzen bazan, bat ere gabe geldituko zirala-ta. Baña geienen iritzia etzan ori.

– Ez oraindik –zieten–. Arratsean sartu ditza-  
gun ardiak artegietan, eta egunez bota larrera.  
Baña orro madarikatu orrek jarraitzen badu, obe-  
to pentsatuko degu.

Ortan geratu ziran. Baña batzuk aldegin zuten,  
udara lasai bat igarotzeko leku seguruagoa bazute-  
la-ta.

Beeko baserrietako beiak, itxiturari esker, etzu-  
ten andik igesirik egingo.

Dardarrek bere aziendak ukulloan zeuzkan.  
Baña, orro gaizto aiek entzutean, aizkatu zan,  
etxea lurrera zetorkiola. Alare, laxter antz eman  
zion karraxi aiek mendian zirala. Leiora erten za-  
nean, abelgorriak ostikoka ta laukoan somatu zi-  
tuen, lepoak autsi bearrean aldapa beera zijoazte-  
la. Esan ere bai berekiko:

– Ai, artzai gaixoak! Ez dezute nolanaiko ji-  
poia artu bear!

Egunsentian igo zan ango artzaiekin itzegitera.  
Geienak zearo larrituak eta etsiak arkitu zituen.

– Galera aundiak al dituzute? –galdetu zien.

– Ardietan ez. Geienak bizirik arkitu ditugu.  
Baña abel gorriekin Jainkoak jakingo du zer gerta-  
tuko dan.

– Zer asmotan zerate?

– Batzuk joan dira, leku seguruagoak badituz-  
tela-ta. Gure ardiak estalpean seguru daude. Bart  
kanpoan arrapatu balizkigu ere, ez genduen galera  
geiegirik izango. Baña orro oiek jarraitzen badute,  
joan egin bear. Ixtinga ortan ezin edukiko ditugu,  
udara guzian, ardi gaixoak.

– Bai. ori ala da. Urtutzeraño etorriko lirake.  
Zer izan ziteken ori?

– Zer dakigu? Egundo entzun ez degun bezela-  
koa.

– Eta gauza estrañurik ikusi dezute?

– Nik bai, goiko ermita ondoan –zion artzai batek–. Zu ainbateko gizon aundi bat, eltze bat astintzen. «Au zuretzat, Dardar!» esan zuen. Ori ez al da arrigarrizko gizon indartsu ori?

– Bai. Ala izan bear du; ta mendi ontako olako baserritan bizi dana. Artzai batzuk diotenez, goldean ikusi zuten atzo: bera aurretik idi-parearen ordez, eta emaztea atzetik. Biboterik bai al zuen orrek?

– Bai. Galantak gañera.

– Orain badakit nor dan. Indartsu orren etsarik biurriena. Egunen batean, bietakoren bat emen galduko da betiko. Bibote-Aundi au indartsua da. Baña bestearen atzaparretan erortzen bada, ez du geiago mendi au aizkatuko. Baña eltze batekin ateratzen ote ditu orro oiek? Ez degu gaur arte olakorik entzun.

– Ez dakit, bada. Eltze baten antzeko zerbait astintzen zuen, eta *eltzaorra* eman dio izena. Bar-katu: ez baziñan etorri, zure juzkua egingo genduen. Zu añakoa bada ori. Dardarrekin baditu bere istilluak, zertan dator mendi ontara, artzai gaixo auek ondatzera? Erasotzea dio berari.

– Ala bear luke. Baña zearka-zearka etortzen dira maltzurak. Bai ori ere. Ni aña luze bada. Baña kiloz ez da izango. Ezagutzen det. Puñalarekin da beldurgarria. Amabost metrotik ez du utsik egiten. Elkarrekin kontrabandoan ibilliak gera. Baña, eskuz-esku, ez du Dardarrek au ikusteko ere. Askoz indartsuago da. Mundu guzian ura menderatuko lukenik ezetz azaldu apustu egin nai luteke. Baña berak ez du olakorik nai. Pake-zalea da. Bibote-Aundi, berriz, eroska bat, norbaitek bultzata dabillena. Datorren urterako bukatuko al da auen guda!

Joxe Inaziok etzuen bere bururik agertu nai izan.

– Orra Basajaunaren zemaia –zion berekiko–: «Gu ere or ibilliko gera. Agian topo egin genezake.» Topo egin degu, baña ez pakerako. Etsai gaiztoak ditut. Baña berak ere ez dakite norekin dabiltzan. Asiera, beñepein, berak eman dute.

Erriko bikarioa ta alkatea ere igo ziran mendira artzaiekin itzegitera. Baña aiek an etzeukaten zer egiñik. Arek arrapatu egin bear zuen, bizia edo illa.

Urrengo arratsean berdin jarraitu zuten orroak. Artzaiak, berriz, artara bizitzerik etzeukatela-ta, banaka-banaka, goi xamarrekoak beñepein, joan egin ziran.

## ALKATEAREN KEZKAK

Negargarria zan benetan erriko mendi oparo aien utsuna. Len ainbeste ardi, bei ta zaldi mantentzen zituen lekua, etzan orain basamortu bat besterik. Iñor etzan geratu Dardarren ethez gora. Andik beerakoak, denak beren lekuan jarraitzen zuten. Dardarrek, bitartean, orroak beti gauaz izaten ziran ezkerre, egunez larrean ibilli ta illunabarean, ixkanbillak asterako, estalperatu.

Gizon-emakumezkoak oitu edo jarri ziran karraxi oietara. Arek bakarrak etzuela kalterik egingo. Baña abereak, gaur bezela biar ta etzi. Entzun

orduko, izuak aizkatzen zituen, eta al zuten leku-  
ra zoazen igesi.

Olakoetan oi dan bezela, asi ziran egundokoak  
asmatzen. Baña iñork etzekien ezer ere. Etzan be-  
ren buruak azaldu naia besterik.

Eguzkiaren sarreran, illunabarrero, bola baten  
itxuran etortzen zala, ta mendi-mutur batetik bes-  
tera biribilka ta jauzika ibiltzen zala, txiba baten  
antzera, karraxia zeriola. Baña ikaragarria zala.

Beste batzuk eransuge aundi bat ikusten zuten,  
zazpi burukoa, illun-bistan mendian geratzen; eta  
zazpi buru aietatik inguru guzira zabaltzen omen  
zituela bere orroak; eta egunsentian joaten zala.

Baziran sorgin izugarri bat ikusten zutenak ere,  
bere erratz gañean jarrita illun-urratzez azaltzen  
zana; ta aidean ara-onera ibiltzen zala; ta bere irri  
nazkagarri ura zala karraxi bildurgarri ura.

Errian entzuten zituzten esames auek denak.  
Batzuk sinistuko zuten; besteak ez. Izan ere, men-  
ditar bakar batek etzuen ezer ikusten, eta erritik  
ateratzeko beldurrak zeudenak ziran ameslari  
oiek.

Erretore jauna asarre zebillen, sorginkeritan  
oraindik geitxok sinisten zutelako. Onek beti ala  
zion:

– Or ez dabil ezer ere. Ta gezurra dirudi, eli-  
zatic erten gabe dabiltzanak sorginkeritan sinistea.  
Buru aulekoen irudimena besterik ez da ori. Gose-  
paseak daudenen buru-zorabioa. Egunero txule-  
ta-pare bana jango balituzte, ez lituzteke orro oiek  
entzungo. Bestela, oraindik okerrago, beren bu-  
ruak azaltzeko kontu-kontari gezurretan ari diran  
astaputz batzuk.

Meza nagusiren batean astinduko zituela eliz-  
tar guziak. Batez ere, orko ipuiak zabaltzen ari zi-  
ranak.

Onek ere etzeukan, bada, arrazoi osoa.

– Zoaz arratsean mendira, ta urrengo goizean ez dezu olakorik esango –esaten zion arpegira epailleak.

– Joango naiz. Baña ez ezer entzuteko itxaropenetan.

– Kea azaltzen danean sua ere nonbait badala ez degu esaten? –zion epailleak, erretorearen buru egoskor ura xamurtu naian. Baña ura beti berean:

– Bai, bai. Ori ala da: an kea bederenik azaltzen dala. Emen ori ere ez.

– Bai, erretore jauna. Orro oiek norbaitek ateratzen dituela aitortu bearra dago. Nik entzun ditut, erri bertatik gañera, garbi ta indarrean. Zuk ere, arratsetan erne bazaude, entzungo dituzu. Ikusi ez. Nik ere ez det ezer ikusi. Ta ez nago gose-pasea. Ez nabil nere buruaren goratzarrebilla ere. Baña orro oiek ikaragarriak dira. Goazen gaur arratsean Dardar edo indartsu orren borda ingurura. Andik ederki entzungo ditugu.

– Bai; kilkerren batzun kantu-otsa.

– Ai, erretore jauna! Kaska-gogorra zera, orratik. Eta arroa gañera. Gaizki esana badago, barkatu. Baña egoskorra zera. Erriko emakume guziak buru aulekoak balira ere, –ni ez naiz oien tartean sartzen–, or daude abereak. Oiek zerk izutzen ditu: kilkerren kantu-otsak? Len ere ortatik obeto entzungo zuten. Edo gose-pasatuak ote dira?

– Ori dena egia bada, nor da or dabillena? Sorgiña edo antzekorik ez dala badakigu. Gure sinismenak ez du olakorik onartzen.

– Arrapatzean esango dizut. Baña, zalantzik gabe, gizona, nor baita ere, or dabillena. Ta gaiztoa gañera. Ez dakigu zeren billa dabillen.

Erri guziak entzuten zuen eta sinistua zegoen. Etzan arritzekoa an zerbait bazebillela aitortzea.



Adimen zorrotzekoa noski, ta, denen iritzian, bi ankekoa. Baña ura nola arrapatu? Eta orro oiek zerekin egiten ote zituen? Artzai batek zionez, ermita ondoan ikusi zuen erraldoiak *eltzaorra* eman zion izena. Ta ori zer da?

Dardarrek bakarrik zekien nor zan ta zer nai zuen. Izugarriak esaten ari zirala entzuten zue-  
nean, par egiten zuen. Baña berak ere etzekien *eltzaorra* zer zan eta zerekin ateratzen zituen ka-  
rraxi ikaragarri aiek. Luzatu baño len ikasiko al  
zuten asmakizun orren berri!

Erriko jendea zer pentsatu etzekiela zegoen. Izan ere, ainbeste aldetara itzegiten al zan. Denak aitortzen zuten, ordea, etzala, txoro batzuk esaten zuten bezela, eransuge edo sorgiña.

Erriak etzuen sinisten oietan, eta intxixua edo antzekoren bat bai. Gaur oraindik ere badira orre-  
lakoak, bi ankekoak alegia.

Dardarrek bazekien ziur an etzala piztirik; bi ankekoa zala. Errikoen iritzirik nagusia ere ori zan; eta, pakea egitezkeroz, arrapatu egin bear. Ori, berriz, udaletxearen lana zan.

Bi batera biltzen ziranean, batez ere emaku-  
meak elizatik sartu-erteeretan, etzebilkiten beste berriketarik:

- Zer ikusi bear ote degu?
- Artzai guziak aldegin omen dute menditik.
- Bere burua maite duenik ezin liteke goiko bakardade ortan bizi. Orro oiek egiten dituen piz-  
tia ez da nolanaikoa izango.
- Ea arratsen batean errira sartzen zaigun.
- Orro oiek izutzen ez duten artzai bat bai omen da, egundoko gizona eta, diotenez, mun-  
duan dan indartsuenetakoa noski.
- Bera ote dan or dabillena, diote askok.

– Gizonak, danik eta indartsuena izan, ezin lezake ainbesteko karraxirik egin.

– Jainkoak libra gaitzala pizti edo erraldoi orren atzaparretatik.

Errian ere ederki entzuten zan, ainbeste kilometrotatik zetorren orroa.

Baña bat bazan denen artean, aberatsa gañera, egoki etorri edo ez, beti Dardarren aurka mintzatzen zana:

Txorakeriak zirala jendearen berriketak. Aldapako erraldoi ori zala orko intxixu bakarra. Dardar alegia. Bein baitu ta zigortzen bazuten, ango orro ta ixkanbillak betiko bukatuko zirala.

Lan gaixtoa egiten zion Dardarri. Jakiña, onek bazekien zer gertatzen zan. Basajaunek sutu zion guda zala ori; eta, bera galtzen bazuten, orro oiek ere bukatuko zirala. Ortan arrazoi zeukan. Ori, ordea, etzan txuxen jokatzea. Errugabea zala bazekien, eta etzuen bere burua babestu besterik egiten. Besteak gorrotoz zebiltzan. Aberats orrek etzuen egundo Dardarrekin itz txar bat izan. Onek bi burruka-alditan bere zaitzalle ibilli zuen. Ainbeste ontzako urre irabazita, zergatik asarretu ote zan?

Don Lukas, orren izena. Basajaunaren artaduntzat zeukaten. Baña Dardarrek bazekien aren berri. Beti zirika-zirika, berotu zuen endorearen burua. Baita udaletxea bere iritzira ekarri ere.

– Erraldoi orrek baitu bear du. Bestela, denok erotu eraziko gaitu –Don Lukasek.

– Ziur bagenek, saiatuko nintzake, arras egoskorra omen da baña –endoreak.

– Epaillearen agindu txiki bat aski dezu ortarako. Udalzañak baitu ta ekarriko luteke.

– Bai ote gero? Ez da zuk uste bezin errexa

izango. Ura txarrean asten badam bateonbat eramango du aurretik; eta, zuk diozun bezelakoa bada, iñoren eskuetara baño len joko luke txarrera.

– Batek ezin badu, amarrek lotuko dute, bai, ori ere.

– Baña zer aitzaki asmatu bear degu ori lotzeko? Oraindik ez dakigu ezer ere, erriko esamesak besterik, zuk zabaltzen dituzunak alegia.

– Au onera bitartean, pakean bizi giñan. Au etorri danean asi dira ixtillu auk guziak. Zein besterik izan liteke? Lenengo orroak asi ziranean, arrats artan ermita ondoan artzai batek ikusi zuena ere, erraldoi bat zan. Dardar ezik, zein besterik izan ziteken?

– Nere kezkarik aundiena or dago: gertakari auk erdizka kontatu bear. Artzai orrekin itzegin nuen nik ere. Arek etzidan zuk bezela esan: Erraldoi bat ikusi zuela, bibote aundi batzukin, +Dardarrek ez du biboterik–, eltze aundi bat astinduz; eta ala ziola: «Au iretzako, Dardar». Ongi dakigu, emen burrukari izandako Prasku izeneko erraldoi traste bat badala. Artzaiak ikusitakoak, aren antza geiago dauka bestearena baño. Ura eroska bat besterik ez da. Nork eragiten dio ari?

– Biboteak erantsiak izan zitzazken.

– Bai, Basajaun diozuten orrek bezela.

Itz auk entzundakoan, ixilik geratu zan Don Lukas.

Au ta endorea lagunak ziran. Baña epaillea etzan aukin ibiltzen. Erretorea zuen onek laguna. Ta epailleak eman bear zuen ura lotzeko baime-na.

Sendagillea erdikoa zuten. Ortan etzuen bere iritzirik eman nai. Baña, ziur jakin gabe, etzeukala iñork ura lotzeko eskubiderik.

Erretorearen iritzia oso bestelakoa zan, berriz:

Aldapa artan, Dardarrek erria zaindu besterik etzuela egiten; goiko intxixuak bat baño geiago izan zitezke; baña etzerala erriraño sartzan. Zergatik? Gizon ori bidean zegoelako. Etzuten arekin topo egin nai.

Eta erretoreak ematen zion bere konsejua epailleari:

– Batzuen esanagatik, ziur jakin gabe, etzaite nastu. Iñondik ere, gizon ori ona da. Gaixtoa dala esateko beñepein, arrazoirik ez daukagu.

Endoreak bein, Don Lukasek zirikatuta, ala esan zion epailleari:

– Noiz arte ibilli bear degu orrela? Bein betiko lotu zazu aldapan bizi dan erraldoi ori, bazter guztiak ondatzen ta nasten ari da-ta.

– Nola dakizu ori dala or dabillen deabrua?

– Errian ez da besterik entzuten.

– Arrazoi aula da ori. Erriak ez daki ezer, zuek esaten dezutena besterik.

– Ezagun dezu etzabiltzala gure saillean. Don Lukas berak ere ala dio, eta orrek zerbait badaki.

– Ori ez da arrazoia. Iñork arrapatu al du lapurretan edo orro madarikatu ori jotzen? Nik probak bear ditut, eta ez erriaren esamesak. Don Lukasekin itzezin det bein baño geiagotan arazo ontaz. Erraldoi orri gorroto puska bat badio. Ez dakit ez ote dagoen aurreraegi sartua. Orrek geiegi daki. Besteren esanagatik ez naiz ni or nastuko. Baña orko gaizkillea ori dala agertzen badidazu, oraintxe bertan aginduko det ori lotzeko. Endore jauna, konsejuxo bat emango nioke, baña bion arterako: etzaitezela Don Lukasekin geiegi nastu. Ori lotuko bagenu, orduan egingo lirakela mendi ontako pakeak; ori dala intxixu oien buru eta diruz eusten diena; eriotz batzuk ere badirala or egiñak tartean...

- Nork esan dizu ori?
- Epaillea naizen ezkerero, ezkutuan bego. Baña ez kontari jardun.
- Orrek ez du itxurik ere, epaille jauna.
- Zertan dabil orduan? Aurka zer egin dio Dardarrek orri? Utsegin nezake. Erretorea ere itxu-itxuan erraldoi orren alde dago. Besterik gabe, nik ez det or eskurik sartuko. Oiuka orren aurka ari diranak izan litezke tartekoak.
- Bai. Erretorea lekuko bikaña aukeratu diguzu. Zer daki orrek gertakari auen berri, orroa jotzen dutenik ere ez du sinisten-eta?
- Zuk eta nik baño geiago noski. Orrekin bein baño geiagotan itzegin du. Aitortu ere berarekin egiten dala uste det. Gizon mazala dirudi orrek.
- Bai, itxurak egiteko.
- Kontuz, endore jauna. Gu ez gera nor bes-teen barrenak epaitzeko. Sinismen beroko gizona da ori.
- Aurki au mundu guzian zabalduko da. Orduan bai joango dala emengo pakea.
- Dijoala, nai badu. Bide zuzenetik noala uste det. Beldur orrengatik ez naiz baztertuko. Gañera, ikusi zuen artzaiak etzion orren antzik eman. Prasku Bibote-Aundi burrukariarena bai. Non dabil ura? Berri auek zabaltzen galeraztea oso zalla da. Eziña noski. Baña, endore jauna, saiatzea zure esku dago. Bando baten bitartez adierazi zaiozu erriari, emengo intxixutzaz itzegitea galerazia dagoela. Ez baidegu pakea bakarra galduko. Erotzat artuko gaituzte, erri atzeratutzat, oraindik sorginkeritan sinisten degulako. Erretoreak dionez, go-searen ondorenak dira, adimen aulekoenak, eta ortan ez dezute parterik onena eramango zuk eta erretoreak: erria goseak daukazula, alegia, eta erretoreak oraindik sorginkeriz betea daukala bere

eliz-barrutia. Baña arrazoi geiago gabe ezin liteke gizon ori espetxeratu. Ez litzake gañera orrekin atsegin izango. Denborak erakutsiko digu biotan nork degun arrazoi. Otsoak an edo emen laxter azalduko ditu belarriak.

Naigabetua urrundu zan andik endorea. Orain bera zala errudun esango zuten. Baña epaillearen aolkua ontzat artu zuen. Urrengo egunean, bando batekin galerazi zitzaion erriari. Baña ez alperrik!

Inguruko erri guzietan entzuten zana. Beraz, denaren berri bazekiten. Aiek ixildu eraziko zituena amaren semerik etzan jaio.

Arrapatzeko or zebillena, bai, ta orduan egingo zirala pakeak. Ortarako udaletxeak indarririk ez bazuen, denak zekitena itzegitea ezin zitekela galerazi. Endorea bere buruaren alde ari zala orrela, bere eziña ezkutatu nairik. Erriaren ona zala bere lenengo eginkizuna.

## DON LUKAS TA DARDAR

Erriko esames auek guziak irixten ziran Dardarren belarrietara. Jakiña min emango ziotela. Bai-baizekien bere aurka geiena zein saiutzen zan. Baña ixkanbilla oiek guziengatik etzuen bere pake ta pazientzirik galtzen. Beste bat zuen bere eginkizuna. An zeuzkan etxean emaztea ta iru seme-alaba. Bat jaio berria, gañera. Aiek zaindu ta aurrera ateratzen, or zeukan lenengo buru-austea.

Orregatik, alkatearen kezkek eta ixtilluak etzi-

ran araña irixten. Nai zutena egin ta esan zezate-  
la. Bera pakean uzten zuten bitarte, etzan iñore-  
kin sartuko. Baña ukuitzen asten baziran, etzuen  
atzera egingo. Aldapa aietan zebiltzanak, maiz  
ikusiko zuten artaldearen erdian, erri aldera begi-  
ra, an zebilzkiten ixtillu aiekin zer ikusirik ez ba-  
leuka bezela.

Don Lukas zuen, bada, bere etsairik amorra-  
tuena. Erriko semerik sonatuena ta, askok zio-  
tez, ongillea. Baña billau ta biotz maltzurrokoa.  
Bere bi burruka-saio aietan berak egin zion zaitza-  
lletza. Ontzako urre batzuk eman ere bai. Baña  
ondotxo z geyago jaso zituen berak. Orduan gizon  
zuur xamarra, baña ona, iruditu zitzaion. Bein  
kontrabandoko lanean asi zanean, zearo otso biur-  
tu.

Basajaunaren berri etzekitela esaten zuten kon-  
trabandistak. Buru gabeak ziran edo gezurtiak. Bi-  
garren aldian saria artzera joan zanean, Basajauna  
Don Lukas bera zala ikusi zuen, antzaldatua. Ko-  
mediante bikaña. Berak jakingo zuen zergatik  
ibiltzen zan ijito bezela jantzita.

Ura eten gabean gaizki esaka ari zitzaion, en-  
dorea ta epaillea bera ere zirikatuz. Bein begitan  
artzen zuenik, etzuen noski bizirik utziko. Baña  
Dardar ez izaki pillakoa, aparteko gizona baizik.  
Galtzeko asmoan asi arren, onek ortzak erakutsi  
zizkion, eta bestea beldurtu.

Onean edo txarrean mendi artatik bota nai ba-  
zuten, alper lanean ari ziran. Etxea berea zuen,  
eta beste edozein kristauek ainbat eskubide bazeu-  
kan, nai zuen lekuan bizitzeko. Il edo bizi jotzeko  
asmoan zebillen Dardar, erru gabea zan ezker.

Basajaun ori, bere langilleekin nai zuena egiten  
oitua zegoen. Dardarrekin ezin, ordea. Onek gogor  
eraso zion. Orregatik, kontrabandoak utzita biali

zuen Bibote-Aundi, ea bazterren batetik josten ote zuen puñalaz. Bi oiek arrapatu ta beren merezia eman bitarte, etzan pakerik izango, ta joan ziran artzaiak etziran biurtuko.

Bi etsai oiek ezagunak zituen. Gaixtoak benetan. Bat agirikoa; besteak ezkututik egiten zuen lana. Etzekien tarte ortan besterik bazebillenik. Dirua zebilkiten eta etzan arritzekoa izango.

Goiko karraxiak etzuten beldurtuko. Egunez larretuko zituen ardiak, eta arratsean estalperatu. Etzuen uste, oraingoz beñepein, iñor aurrerago sartzen asiko zanik. Zuzenean berari eraso arte, etzan iñoren aurka sartuko. Beraz, aurreak erakutsiko zion nola dantzatu atzea.

Ia errira jexten zan guzietan, bazuen norbait galdezka zetorkiona, endore, epaille, erretorea bera ere bai, mendiko berriak ikasi nairik. Baña bein, lotsa gutxirekin, Don Lukas bera etorri zitzaion, dotore jantzian, zaldun-itxuran, bere zalantzak argitzera.

Sumindu zan Dardar. Alako nazka bat eman zion. Bañan alare etzan bere onetatik atera. Aren galderei erantzun besterik etzuen egin.

– Or goiko ikarak bukatu al dira?

– Ni lasai nabil, erasotzen ez didaten arte.

– Orduan, bat baño geiago badirala derizkiozu.

– Bai, zalantzik gabe. Bibote-Aundi ez dabil or iñork zirikatu gabe.

– Ori denon jakiñean dago.

– Ez dezute, bada, ala itzegiten. Nere belarrietara bestelako oiua datoz. Erri ortan nere etsairik gaixtoena zu omen zerala. Jendeak ala dio. Nik zer egin diot iñori, batez ere zuri, ni intxixutzat artzeko? Bitartean, Basajaun dabilela or. Nola liteke ori? Zergatik erasotzen nauzute?



– Arrapatuko bazenu, erriak eskertuko lizuke.  
– Erria ondo pakean bizi da. Ni nabil or gaizki, denen aotan, gaizki esaka, ez noski urrikaldu-ta, pozik urkatuko niñutekenean. Berriketak entzuten ditut nik or. Berak ere, ordea, balebiltzake erne. Ez diot iñori kalterik egin.

– Arrapa zazu ta orduan alde jarriko zaizkizu.

– Nere burua arrapatu bear ote det? Ni naizela ez diozute, bada? Erriko laguntzak ez du asko errextuko. Dena dala, kontuz nere bidean jarri. Ni galduko banaiz ere, besteren batzuk eramango ditut aurretik. Denekin pakean bizi nai det, nerea detan baserrian. Zer ari zera ni naizela esaten? Nik bezin ondo dakizu emen zer gertatzen dan. Emengo pakea egiten ez litzake zalla. Erri ontatik asi bear nuke. Ziur badakit nor dabillen, Baña ez det lekukorik.

– Nor da, bada, ori?

– Bego ezkutuan. Baña ez da komedianta txarra.

– Ez det or olako gizonik ezagutzen. Basajau-naren artaduna naizen ezkerro, bear nituzke nik arekin artu-emanak.

– Nik ezagutzen det. Baña ez daukat ezer egi-terik. Izen aundikoa da ta bi arpegiko gizona –esanta, geldi-geldi mendi aldera artu zuen.

## ENDOREAREN IRABAZIAK

Eltzaorra gaizto arek alderdi guziak etzituen txarrak. Norbaitentzat bazekarren negozioa ere. Begiak erne zeuzkaten batzuk, laxter igerri zioten orrek erriarentzat eta berentzat zekarren alderdi on ori; eta auetan erneena, noski, endorea bera zan.

Erriko ixtilluak zabaltzeko beldur zana, ta lenngo egunetan, arrapatzen zuenari sekulako zigorra emango ziola bandoa jo-eraziz erria zemaitu zuena, orain berri-zabaltzallerik sutsuena, lau aldeetara oiuka.

- Datozela, datozela denak! -zion, etorkiñak ugaritzen ikusi zuenean. Ura erriarentzat etorkizun bikaña zala. Orduan etzitzaion erriaren izen onagatik batere ajolik. Orain negozioa ikusten zuen; eta, jakiña, beretzat dirua zan. Lenngo etorkiñak aberatsak baiziran. Esku betean ori zekarten: dirua. Bereala asi zan, bada, bere lanean.

Orduko albistarien bitartez, aizatu zuen España zabalean. Atzerri aldean ere bai. Zetozenei sekulako ongi-etorriak moldatzen zizkien Udalaxeak.

Bizi-lagun gutxiko etxeetan artzen zituzten etorkiñak, eta geiena jende aberatsa baizan. Orduan ere, biziko baziran, lana egin bearko zuten beartsuak. Etzeukaten utzi ta iñora joaterik. Euskalerriko orro ta karraxiengatik ajola gutxi. Jende aberatsa zan, bada, or zebillena, ta ondo ordaintzen zuten beren apupillotza. Urte guziko bizimodua ateratzen zuten ortik sendi askok, etorkiñei beren etxeetan ostatu emanik.

Utsun guziak bete ziran, eta jende berria zeto-

rren, erromes-leku batera bezela. Bost edo sei izkuntza nabaitzen ziran erri artan, zijoaztenak egundokoak zabaltzen baizituzten.

Eltzaorra ori entzuteko leku egokiak jarritz, be-  
raizik ere ortarako, beren zaitzalle ta guzi, bada ez  
bada, asten zanean segurutik entzuteko, gi-  
za-jendeak jolas bat bezela artu zuen ori.

Artzaiak joan ta mendiak ustu, etzan orain en-  
dorearentzat kaltegarri. Aiek ere, jakiña, ortatik  
bizi ziran eta gauza on asko zekarzkiten errira.  
Baña onek zekarren etorkizunaren ondoan utsa  
zan. Ezer ez.

– Zorioneko eltzaorra ta zorioneko Dardar!  
–ori bazan beñepein orro oiek jotzen zituena, zion  
zoriontsu endoreak.

Zetozenei bear bezelako ostatua emateko, gau-  
za asko bear ordea; ta erri txiki kaxkar artan etze-  
goen ainbesterentzat modurik. Bertan sortzen za-  
narekin erriko jenderik geiena bizi arren, itzaiak  
eta mandoak zerbait bazekarten. Bearrak ordea  
ugaritu egin ziran. Zetorren jendeak asko bear  
zuen, ondo bizitzen oituak zeuden-ta. Ortatik ze-  
torren eziña. Beste bideren bat zeukaten billatu  
bearra.

Endorearen irudimenak eta aberastu-naiak zi-  
rikatuta, dirua engañagarria baita, laxter asmatu  
zuen ortik zetorren irabazia: kontrabandoa, alegia.  
Baña nola egin?

– Arraixkatu ta irabazi gabe geratzea eroarena  
litzake –zion, gauzak nola antolatu ezin asmatu-  
ribillenean.

Probintzi batetik besterakoak, eta ortik errira-  
koak, etzion kalterik egiten erriari. Ori errexan zan  
gañera, ta bazeukan bere irabazi pixarra. Amaika  
kontrabandista bizi ziran ortatik. Gutxik bazeu-  
kan, askok geiago edukiko zuen.

Baña, errira sartzerakoan, beste zergak zeuden. Oiek udaletxeak erriarentzat jarriak izaten ziran, eta ateetan bazeuzkan biltzalleak. Guk garai batean *guardabinoak* edo *xixeroak* esaten genien. Auek udaletxearen langilleak ziran. Auen ixillean sartzan zanak, erriari lapurreta egiten zion; eta, iñor arrapatzean, ondo zigortuko zuten. Zerga ori ordaintzekeroz, berriz, irabazi gutxi zetorren. Arraixkua, berriz, ia berdin.

Kontrabandoan astezkeroz, osoa egingo zuen: mugatik onunzkoa ta erriko sarrera. Alare, etzan erria galeran geratuko. Endore izateak etzion irabazirik ematen. Naigabea bai ugari. Nolabait aterra bear zuen nekeen saria.

Eraso zion, bada, kontrabandoari, ta irabazia bazeukala laxter igerri zion. Alare, oso baikorra zan, ta zoriontsu zero txiki batean bizi zana. Erriak zeraman martxan etzuen arraixkurik ikusten.

Baña etziran denak bere iritzikoak. Epailleak esanta, erretoreak ikasi zuen kontrabandoan zebillera, eta etzituela erriko zergak ere ordaintzen. Gogotik irabazten zuelako, aztu zitzaizkiola artzaiak eta mendian zebillen intxixua.

Sendagilleak ere zirikatzen zuen:

– Orrek ez du endoretzik merezi. Erriak jakin bear luke nola dabillen. Egunen batean egundoko pilipikaren bat bota bear diozu. Etzaio orri orrela utzi bear.

Berak etziran ausartzen eta erretorea bota nai zuten aurretik.

Don Lukas ere, bada, sumindua zegoen, endorea Basajaunari irabaziak kentzen ari zalako. Ari artara uzterik etzegoen. Bestela, Basajauna asarretuko zan.

Erriko gertakizunak zabaldu ziran lurbira

osoan, eskerrak endoreari. Erri guzia etorkiñez bete zan, eta dirua bazebillen autsa bezela.

Baña jendea, erdi galdua; lengo sinismena urritzen; oitura zuzenak usteltzen; erriko eliz txikia etzan lenago bezela betetzen... Diruz jazten ari zirala, egia. Baña, erretorearen iritzira, erriko jende apal ta xumea zabartzen.

– Dirua ona da –zion–. Baña eraspen geiegia ez. Ezin liteke ortara jarraitu: gizon batzuk aberasteagatik erri gaixoa ondatzen.

Larunbatean, gañera, gotzai jaunak egindako eskutitz txiki bat artu zuen. Arek bai daldaraka jarri zuela gure erretore jauna.

Sumindu zan; ta urrengo igandean, meza nagusian, egundoko itzaldi gogor ta garratza egin zuen, erri artan gertatzen zana salatuz eta endorea deabru baten berdiñeko jarriz, izenik esan gabe, baña denak ulertzeko moduan. Ordurako jendeak bai-baizekien nola zebillen.

Eliza bete xamarra zegoen. Aurreko aulkietan, beraizik udaletxearentzat aukeratuak, an zegoen endorea, denen buru, lenengo aulkian, bere makilla, guk *juizigorra* esaten dioguna, artarako egiña zegoen txulo batean sartuta, serio-serio meza entzuten, oitura zegoen bezela.

Erretorea, ebanjelioa irakurri ondoren, erri-gizonei begiratu zorrotz bat eginta, pulpitora igo zan. Aitaren egin ta puska batean buru-makur egonta, bat-batean oiur garratz bat egin ta agintariak batere agurtu gabe, eraso zion.

– Erri ontan zer gertatzen zaigu, entzule maitak? –asi zuen bere itzaldia. Bai erritarrak arretaz entzun ere.

Endoreak, burua makurtuz, ala zion berekiko:

– Emen dek arri-erasoa.

– Ogei ta amar diru zorritsurengatik saldu

dute berriro Jesus deabruen eskuetara, erriko sinismena ito eraziz eta beren biotzak zikinkeriz beterik. Deabruari ateak zabaldu zaizkio, eta oiek bat egin dute errikoekin. Okerrenak bertakoak dira, alare. Zeri begira daude erri-agintariak? Len, berri gaixto ori zabaltzen zuena zigortuko zenutela etzenuten zema egin? Zer egiten dezute orain? . Orduan txarra zana, ona ote da orain? Zerk atzeratu ta baztertu zaituzte orduan artutako erabaki aietatik? Munduko lau aldeetara zeurok ari zerate zabaltzen. Eta zergatik? Diru madarikatu orrengatik. Bai. Orrek lausotu ditu gure agintariak.

»Ederki ari dira aberasten; eta, diru orren ondoan, balio duen beste gauzik ez dago erri ontan. Zer balio du sinismenak, patrikarik ez badu betetzen? Zer balio dute oitura garbiak, arrotzari ateak zabaltzeko bestetarako? Zer onik dakarte? Dirua ezik, utsa!

»Erriko agintariak, bai al dakizute zerekin gbiltzan jolasean? Atzo artu nuen gotzai jaunaren eskutitza: emengo gertakizun auen txeetasun guziak bialtzeko ara. Ni beartua nago salatzer; ta, ez bada aldaketarik, ori egingo det, aren mendeko bat naiz-ta.

»Beste zerbait ere ikasi det, erriak jakin bear duena, nondik nora daramaten ikasteko. Zazpi mandorekin, alajaña, -nondik atera dute diru ori guzia?— kontrabandoan ari dira gure agintariak. Egundo baño geiago sartzten da errian, eta udaltxeko kutxak agortzen ari dira. Ez da xentimorik sartzten. Etzaio erriari oien zergik ordaintzen. Diru oiek noren patrikara dijoaz?

»Apaiza naizen aldetik ari naiz, ez beste edozein bezela, igerle baten gisa, eta ara zer esaten dizuedan:

»Erriak ondamendira daraman martxa au ez badezute lenbailen mozten, intxixuaren atzaparretan eroritakoren batengatik aurki negar egin bear-ko degu. Zertarako dituzute orduan, zikinkeriz irabazitako diruak? Orain artekoak emen utzi dituzte. Datozenak ere uztaipe ortatik igaro bear-ko dute. Jainkoari ez dio iñork luzaroan irrik egingo. Ez zirikatu, beraz, Jainkoa!

Sumindu zan endorea. Apaizak etzuen izenik esan. Baña erriak laxter igerri zion norengatik ari zan. Eta, zoritxarrez, erdiz-erdi asmatu ere. Ta, lotsagarri denen aurrean, bere juizigorra eskuan zeramala, errenka-errenka, oin bat motxagoa bai-zuen bestea baño, zearo asarretua erten zan eliza-tik, meza bukatu baño len.

Erretore jauna ere, egoskor xamarra izaki, ixilik geratu bearrean, besoak zabalduz atzetik oi- u egin zion:

– Orra, orra or diruaren kalteak! Orrek sinis- mena galdu du. Ez du egirik entzun nai. Ta nere itzak egiak dira, igerle-itzak. Nor dira, erriaren zoritxarrerako ta beren buruak aberasteko buruza- ritza ematen zaien agintari auk?

Ez-jakiñean zegoen erriko jendea ta arritu zan, beren bizkar diru egiten ari zirala agintariak ikasi zuenean.

Jetxi zan apaiza, asitako meza bukatzera.

Erriko pakeak ere igesi egin zuen. Bi zatitan berexi zituen erritarrak. Emakume-jendea, geiena erretorearen alde zegoen. Erritar geienak oni ema- ten zioten arrazoi. Sendagille ta epailleak zer esa- nik ez. Don Lukas, itxuraz beñepein beti endorea- rekin zegoena, itzaldi arek eztaietan jarri zuen, maltzur-maltzur etzegoela ortarako eskubiderik esan bazuen ere.

Orra endoreak beldur zuen lenengo uste gabe-

koa etorri. Erriaren lautatik iru, len berea zuena, erretorearen zoritxarreko itzaldiak kendu zizkion geienak.

Bere pekatuak ageri-agerian utzi zizkion. Izenik ez bazuen esan ere, endoreak bezin ederki ulertu zuen erriak.

## ERRETOREA TA ENDOREA

Elizatik ertetzea etzuen ongi egin endoreak. Ezin burutu, ordea, beti jo ta jo ari zitzaion apaiz egoskor aren itzaldia: erriaren bizkar aberasten ari zala; zergak ere etzituela ordaintzen aizkatu zuen. Ori endorea zala denak zekiten.

Kontrabandoan arrapatzen zutenen bati munta koxkor bat ezartzeko, oraintxe bai aginterik gabe utzi zutela.

Ilko zuen pozik erretore kaskallu ura, arek erriko gora-beeretan zertan sarturik etzeukan-eta. Ezin kabitu zan gizarajoa bere praketan. Baña ixilik eraman zuen, urrengo itzaldia gogorragoa egingo ziolakoaren beldurrak.

Urrengo goizean, patxaran-patxaran, sakristaua berekin zuela, ur bedeinkatu ontzia, ixipu ta guzi, ta otoitzen liburua galtzarpean, mendira igo zan erretore jauna, an ekaitz, izurrite, guda, trumoi ta tximist, legorte, ugolde ta sorgiñen aurkako otoitzak egitera, goiko San Markosko ermitaxora.

Eguraldi gozoa zegoen, eta apaiz-sakristauak,



lasai-lasai, etzeukaten ezereen presik, elkar-izketan igo ziran. Goiko ermitatxoan otoitz luzeak egin zituzten: santuen letariak eta nik bai al dakit zenbat olako. Gero, ermitaz kanpora, oiuka zion berriro apaizak lau aldiz:

– *Sancte Michael!*

– *Ora pro nobis!* –sakristauak.

Gero ur bedeinkatuarekin zipriztindu zituen inguruak.

– Ur bedeinkatuari deabruak usai txarra artzen dio –zion erretoreak.

– Bai. Gaurko zure araoketa onengatik, arrats ontan ere lasai joko du eltzaorra intxixuak. Ordu-rako aizeak eramango baidu dena –zion sakristauak.

– Dana dala, guk beñepein legea bete degu, ta ortik aurrerakoa Jainkoaren esku dago. Gizonak ekin ta Jainkoak egin –erretoreak.

– Au emengo bakardadea! Non ote dabilta gure artzaiak? –sakristauak.

– Arrazoi dezu. Len, igotzen nintzan bakoitze-ko, zortzi-amar artzai txapelak erantzi ta agurka emen urbiltzen zitzaizkidan, gazta eder bana eskeñiz eta biotz-biotzez gañera, «Berrori ere etorri al da, bada, mendi-alde auk bedeinkatzera? Ar bitza gazta kaxkar auk, anbat berorrek obeak edukiko ditu baña» mazal-mazal esanaz, zekartena ezer gutxi balitz bezela. Emengo artzaiak ez dakite, opariz ez bada, eskerrak ematen, orrekin itzari indar emanaz.

– Aiek etziran orduan, zuri araoketara lagunduz, esku-utsik legea betetzera bakarrik etortzen. Beren ezerezetik zituzten gauzik onenak eskeintzera bai. Beartsuaren legea ori da: duena eman ta artu ez.

- Bai. Emengo artzaiak oparo askoak ziran be-  
ñepein.

- Eta orain ez al dezu gaztarik jaten?

- Nola nai dezu nik gaztak erostea? Ni beartsu  
bizi naiz, beartsu, errian artzen detan pixarrare-  
kin. Erri arlotea da au, ta kanpotik datozen abe-  
rats oiek oso emalle kaxkarrak dira. Ortatik or-  
daindu bear zuri ere elizako lanak.

- Neri emandakoarekin etzaizkizu asko urritu-  
ko.

- Nik artzen detan erdia, ortxe ortarako da.  
Zuk egiten dezun lanak ere, zer geiago merezi du?  
Kandelak piztu ta itzali besterik egiten al dezu?

- Zenbat atzera-aurrera egin dituzu aurten?

- Onekin baditut bi. Beti urtearen lau giroetan  
igotzen naiz, nik emen otoitzak oien alde egin ta  
Jainkoak giro on bat eman dezaien.

- Bere eskutik utzi ote zaitu? Ez dizkizu  
entzuten. Bestela, nola intxixu madarikatu ori bia-  
liko zigun?

- Ori gureztat ezkutua da. Berak jakingo du  
zergatik. Baña Jainkoak beti entzuten ditu gure  
otoitzak. Eskatua ez badigu ematen ere, aren or-  
dez beste zerbait luzatuko digu. Guk baño obeto  
daki zer komeni zaigun. Baña ni, bizi naizen arte,  
ez naiz artzai maitagarri auetzaz aztuko.

- Ori, ori! Beartsu auetzaz norbait oroitzen da-  
nean, ez da gutxi. Oiek dira gizonak, beren ezere-  
zean aberats asko baño oparoagoak.

- Etzazula zalantzik egin. Baña oraindik eto-  
rriko dira, gure endore jaunari ajolik ez bazaio  
ere. Azkenean, Dardarrek garbituko du mendi au.

- Ea bera dan emengo intxixua.

- Askoren iritzia ori da. Baña ez nerea. Gizon  
ori ez da orren eroa.

- Zertatik antz ematen diozu?

– Zertarako ari bear du orroa jo ta orroa jo? Noren aurka, mendi guziaren jabe geratu dan ontan? Ez da ori, ez. Beste norbait edo norbaitzuk dabilta emen. Beldur gaiztoak artuta bizi naiz, intxixu ori ez dala bakarrik izango. Zirikatzaile biurriagoren bat ez ote dabillen orren inguruan.

Igo bezela jetxi ziran biak, baña ametsetako gazta eder aiek irrikatuz.

Erriko sarreran endorea topatu zuten, eta sumindua eraso zion erretoreari:

– Zuk atzo egin zenduen itzaldi biurri ura egiteko ez dago eskubiderik. Erriaren aurrean leku onean utzi nauzu.

– Ez zuk egin zenduena egiteko ere: denen aurrean elizatik erten eta igande batean mezik entzun gabe geratu. Nere itzaldiak baño, orrek kalte geiago egin dizu. Nik ez nuen iñoren izenik aipatu, gertatzen zana erriari esan besterik. Ori da nere egitekoa: zuzentasunik-eza salatu. Zuk, zure erteerarekin, egia niola aitortu zenduen. Erriko jendeak, ez-ikasia bada ere, begi zorrotza dauka.

– Ez. Zure astakeriak entzuten egongo nintzan. An ez al zenduen ikusten erriaren beatzak ni berexten niñula?

– Erten ziñalako.

– Erriaren bizkar bizi omen naiz; bear diran zergak ez omen ditut ordaintzen; sinismena galdu omen det; erriko jende xumea oker-bidera eramaten ari omen naiz... Deabru baten berdiñeko utzi niñuzun atzo. Etxetik ertetzeak ere lotsa ematen dit. Olako izen gaiztoa erriaren aurrean zabalduta, endore batek zer egin lezake?

– Gertakizunen berri ondo ikasi ta gero itzezin nuen. Ez txoro-txoro ta gorrotoz. Gezurra esan nuela garbitzen badidazu, datorren igandean de-

nen aurrean belauniko jarri ta barkazioa eskatuko dizut.

– Utziozu orri pakean. Erriko endoreak itzal pixar bat geixeago merezi du.

– Arrazoi osoa daukazu ortan. Baña ez lapurretarako. Ta neregatik itzal ori ez dezu galduko. Nere eginkizuna ez da besterik: gaizki dagoena salatu, gaizkillea aipatu gabe. Beste oiek erriaren esamesak dira. Ta badakizu: ondo gogoan artu alako erderazko esaera ura: Otsa daraman ibaiak, ura ere badaramala. Erriaren salaketak beti aintzat artu bearrak dira, batez ere endore batek. Egia badio, zuzendu. Arazo ortan ez daukat zertan sarturik. Ni animen artzai nago. Baña erriagintariak aren serbitzurako aukeratzen dira; ez nai dutena egiteko. Etzaitut zu bakarra sartzen. Uztarpe ortan nago ni ere, erriaren serbitzurako etorria bainaiz.

– Erriaren ona billatzea pekatu da orduan?

– Iñork ez du olakorik esan. Ori da zure egin bearra. Baña etorkin kaxkarin oiek ez dute erri ontan on aundirik egiten. Aberats alperkerian bizi diranak eta gorputz-animaz usteldutako jende asko dabil emen. Oiek ekartzeagatik jaiak antolatzen ibiltzea ez dago ondo. Dagoeneko, erriko neskatz iñoxente batzuk asi dira atzetik. Oien izkuntzik ez badute ulertzen ere, loxintxak bai, ulertzen dituzte. Ortatik letozken ondorenak ondo neurtu ta ikasi al dituzu? Orduan bai erriak zu salatuko ziñukela.

– Erria nastu ta bi zati egin dezu beñepein, ta orren ondorenak, bai, garbi asko ikusten ditut. Edozeñek konponduko du au orain. Emaztea ere zearo aurka jarria daukat. Ikusten nauen bakoitze-ko, ez dit besterik salatzen.

– Ori, endore jauna, ez da nere errua, zurea

baizik, zuzen etzabiltzalako. Ni ortarako apaiz egin nintzan: erriko okerrak salatzeke ta onez-onean txuxen eramán arazteko. Ez banu beteko, Jainkoaren zigorrak laxter joko niñuke. Apaiza igerlea da. Gogorkeri-zigorketan zuek zerate iaioak.

– Ez ote zera gero zu besteren gauzetan nastu? Eta zigorra merezi?

– Irakurri zazu Ebanjelioa, ea Jesusek nola itzegin zuen. Aurka dagoenik ez dezute entzun nai. Aldekoa bakarra. Zigortu? Zere burua betiko ondatu nai badezu, aukera oberik ez daukazu. Zemaia ez naute nere bidetik baztertuko. Ez, endore jauna, ez. Zuzen ez dabillenari min emango diote nere salaketak. Utzi dezala bide ori. Bestela, aurrera ere salaketan jarraituko det. Izenak gorde-ta, ori bai. Ez daukat beste eginkizunik, eta garbi esango dizut: intxixu ori kentzeko modurik ez badezute egiten, larriagoak etorri ditezke. Egun samiañak iritxi litezke erri maite ontara. Or dabilena, edo dabiltzanak, zerbaiten atzetik dabilta, ta aurrerago sartzen asiko dira. Orko zirikatzailea ez ote dabil gero barrurago sartu nairik? Agian zure lagunik maiteenetakoa, errian bizi dana. Ori bai zuen egitekoa dala, ta lenengoa gañera: etorkiñak baño lenago dira gure artzai gaixoak. Malkoak zetozkidan, mendi oietako utsuna nabaituta.

– Or dabilena ez da Dardar besterik. Orrek mendia beretzat nai zuen, eta ederki iritxi du bere naia. Don Lukas ere nerekin bat dator ortan.

– Ni ez, berriz. Ori ez da orren eroa. Mendia irabazi badu, zertarako dabil orruka zuek aberasteko? Orren beldurrak dabilta intxixuak, aurrera ezin ausaturik, amar gizonen indarra badauka berak bakarrik-eta. Ori balitz ere, saia zaite egia ja-

kiten. Ez, batzuk diotelako, ori artu errudun. Orduan ikusiko dezu zure alde nola itzegingo detan. Baña lenengo lotu or dabiltzanen eskuak. Bestela, gorriak etorri litezke erri gaixo onen gañera.

– Zertan antz ematen diozu? –galdetu zion endoreak.

– Erri ortan egundoko kontrabandoa dabil. Ez zurea bakarrik. Basajaun esaten dioten bat dute buru, kontzientzirik gabeko gizona. Il bear bada, illerazi ta aurrera. Ta ori nor dan iñork ez daki. Orregatik, zure bi semeak arraixkurik txarreanean dabiltz kontrabandoan. Basajaunek moztu naiko baitu. Ta intxixu ori ortara etorria ote dan, eraman-ekarria ugaritzeko, ta arek saritua, entzuna nago. Badakizu, endore jauna, abisatzen duena ez dala lapurra –esan ta joan zan erretorea bere bidean.

Endoreak etzekien zer pentsatu:

– Nola ikasi ote du orrek gauz auen berri? Aitortzatik, ziur asko. Dardarrek esanta agian.

Baña etzuen apaizaren aolku zuzenik entzun nai izan. Bere negozioan jarraitu zuen. Apaiza zi-juala elizara ta utzi agintariei erriko gora-beera guziak.

## IGERPENA BETE

Ondo ari zan gure endore jauna. Danetarako ausarki ateratzen zuen dirua. Zazpi mandorekin astero bi atzera-auurrera. Mandazaiak, berriz, bere bi seme. Erriko zergik ordaindu gabe, Ameriketa

bertan zeukan, etorkin aberatsak ordurarte bezela jarraitzen bazuten beñepein.

Erretorearen itzaldiak asko naigabetu zuen. Errian orain geienak billautzat jotzen zuten, benetako lapurtzat, erriaren etsai, igande artako itzaldiak begiak zabaldu erazi zizkien-ta.

Diruari maitasun geiegi artu zion. Etzuen iñoren aolku onik entzun nai, berriz. Geroztik ere, erretoreak, bide ori galerazteagatik, Dardarrek bein esan zizkionak kontatu zizkion.

Baña endoreak par egin zuen, erraldoi aren gezurak sinisteko ain xinplea zalako erretore jauna, ta berean jarraitu zuen.

Don Lukas berak ere, lagun-itxuran, noski, or bazala kontrabandisten buru egiten zuen Basajaun esaten ziotena. Uzteko kontrabando ori. Bestela, ibiltzeko erne, arratsen bat gorria ez bazuen ikusi nai.

– Aolkua da ori edo zemaia? –erantzun zion endoreak–. Kontrabandoa ez da zillegi. Arek ainbeste eskubide daukat nik ere ortarako. Arrapatzen badet, larrutik pagatu bearko du dena.

– Zu bazabiltza, bada. Edo, endorea zeralako, dena dezakezu?

– Nola dakizu nik kontrabandoan ekartzen ditudala, errian bear diran gauzak?

– Erretoreari galdeiozu eta arek erantzungo dizu.

– Bai. Erretorea ta auntzaren gaberdiko eztula berdiñak dira. Nere izen ona zikindu besterik etzuen egin.

– Orregatik etzaite asarretu, kontrabandoan zabiltzala badakigu-ta. Neri ez dit ajolik. Baña lagun bezela esaten dizut erne ibiltzeko.

Endorea asarre zebillen. Denak bazuten aolkuren bat eman bearra. Erritarrak ere bi salletan ba-

natuak ikusten zituen, erretorearen itzaldi ondoren. Min ematen zion. Polliki-polliki salaketak ere asi ziran. Batez ere emakumeak zeuzkan aurka, erretorearen alde. Alare, batzuk ontzat artzen zuten berak zeraman bidea. Jakiña, sarraski ortatik zerbait irabazten ari ziranak.

Beste asko, ordea, itzaldi sutsu arek ernetu zituen. Etzala, alegia, dirua gauzik onena. Endoreak artu zuen bidetik, batzuk aberastuko zirala; besteak, berriz, len baño okerrago geratu, gure artzai gizarajoak bezela. Eta etorkin oiek beren oitura lasaiekin erria usteltzen ari zutela. Iritzi ontakoak ziran emakumerik gejenak, eta endorearen emaztea zoratuena.

– Mendiko ixkanbillak ez gaitu ainbesteraño izutzen. Erriko zarata au okerragoa da. Gau ta egun emengo jendearen ibillia! Gurasuok gure seme-alabak ustel oietatik ezin berexirik. Eta erru guziak zuk dituzu –zion emazteak noiznai bere senarrari.

– Zaude ixilik, emakumea, buruko miña egi ten didazu-ta. Beti sermoi nazkagarri orrekin! –erantzuten zion, eta tripak jaten aldegiten zuen andik.

Eraso gaiztoagoa laxter etorriko zitzaion. Erretorearen itzak ez bazituen entzun nai izan ere, bereala beteko ziran.

Oartu zan noski Basajauna, endoreak asi zuen kontrabandoaz, eta ori berak zeraman martxarentzat kaltegarri zala. Don Lukasek ere adierazi zion arraixku ori. Otsoak laxter azalduko zituen belarriak.

Endorearen bi seme kontrabandistak, aitik esanta, beti goiz xamar etortzen ziran, eta mendiaren ezkutuko egaletik, intxixuak orroa jotzen zuen lekutik urruti.



Bibote-Aundik ikasi zuen noski zer joko egiten zioten, Basajaunak esanta. Lenagoko garaiak baño len eraso zion, aiek zetozen inguru artan.

Endorea etxetik entzun eta urduri leiora atera zan.

Eltzaorra entzun orduko, aizkatu ziran gure mandoak. Bota zituzten beren zamak. Lauk etxe aldera jo zuten; baña zearo izutuak.

Ikusi zituen endoreak eta txarrena pentsatu zuen: eltzaorrak bidean arrapatu zituela. Etzan aien artera sartzera ausartu. Barrendik atea zabaldu zien eta berak sartu ziran. Baña bera leioan geratu zan, zer entzungo.

Andik puska batera, aldapak beera laxterka somatu zuen bat. Bai bereala ezagutu ere bere semea zala, ta atarira erten zan.

Bere seme zaarrena zetorren, izutua ta negarez.

– Zer gertatu zaizute?

– Okerrena, aita, okerrena!

– Anaia non galdu dezu?

– Goiko artzai-txabolako erdiko zutoiari josia puñalarekin intxixuak!

– Orduan illa?

– Bai, aita, bai, zoritxarrez!

– Ai, nere seme maitea! Orixen bear genduen orain! Orra erretorearen igerpena! Nola deskuidatu zerate?

– Lasai-lasai kontu-kontari gatozela, uste gabeen entzun degu eltzaorra. Mandoak, irrintzika ta ostikoka, asi dira jauzika. Bota dituzte zamak. Aiekin etzegoen ezer egiterik. Dena zegoen bezela utzi ta etorriko giñan ere pentsatu degu. Baña ohea izango zala goiko txabolan gordetzea denak. Ara bildu ditugunean ta ertetzerakoan, aurreko atean azaldu zaigu intxixu ori, bidea ixten digula.

Ikaragarria! Bibote aundi batzukin, sudur luze bat, puñal aundi ura eskuan muturretik artua, trumoi baten otsean oiu egin digu:

– Mutillak, bizia maite badezute, anka emendik, dena dagoen bezela utzita!

»Guk egoaidera ederki ikusten genduen. Baña ez nuen uste arek ikusten giñunik, eta ez giñan ateratzera ausartzen. Atean baizegoen bere arma-rekin jarria.

– Ez al dezute entzun edo bertan geratu naiago dezute?

»Tira dio bere indar guziarekin nere anaiari, ta belarri ondoko txokon guri ortatik sartu ta beste aldetik ertenaz, zutoiari josia utzi du. Ni orduan atzeko leiotik jauzi batean erten ta etorri naiz. Biak txabolan geratu dira. Utzi ditzagun gure alperrikako negarrak, aita, ta goazen. Garbitu bear degu intxixu ori.

– Nola ordea? Besteren bat ez badigu iltzen...

– Deitu ertzañak, eta gure bi txakur aundi oiek artuta goazen. Ura bordan kontrabandoak ikusten ibilliko da. Txakurrak nai ta nai ezkoak ditugu. Bestela, beste norbait il da igesi egin lezake.

Esan ta egin. Lau ertzain armatuak eta aita-semeak bi txakur aiekin, txuxenean, kontrabandoak utzi zituzten lekura joan ziran.

Bordara iritxi ziranean, bi txakurrak itxumustuan barrura sartu ziran. An zebillen intxixua kontrabandoak ikusten.

Ango txakur-zaunka ta karraxiak eta intxixuaren oiu ta ixkanbillak!

Ortzetan txikitua izango zutelakoan, joan ziran barrura. Baña an etzegoen intxixurik. Txakur batek zauri txiki bat bazeukan; baña ezer gutxi. Intxixuari, ordea, galtzen erdia ortxe kendu zioten. Odol-arrastoak bazeuden. Txakurrarena ere

bai noski. Leiotik erten zan, au kanpotik itxirik. Baña odola ixuriz aldegin zuen.

Txakurrak, atetik erten ta zaunkaka egal artan gora igo ziran.

– Madarikatua! –zion semeak–. Or zebillen, baña iges egin digu. Alare, baditu bereak. Ez du suerte malaka. Nere anaiaren eriotza ez da ortan geratuko.

Bi ertzain bertan utzita bada ez bada, intxixua etortzen bazan ere, aita-semeak, beste bi ertzaiñekin, illa artu ta errira etorri ziran. Andik noizbait nabaitu zituzten txakurrak atarian.

Aitak semeari onela galdetu zion:

– Dardarren antzik artu al diozu?

– Ezta itxurik ere. Mee ta aulagoa iruditu zait.

– Emendik aurrera, erasoari eraso egin bearko diogu.

– Madarikatu orrek, negarra ekarri digu etxera. Baña zure arrokeriak ere ez dute luzaroan iraungo. Ordañak artuko dituzu.

Illetak egin ziranean, erriak ondo erantzun zuen. Negar egin ere bai. Dardar bera ere an ikusi zuten serio-serio.

Endoreak betiko utzi zuen kontrabandoa. One-la zion:

– Orra etxeko eriotz batekin gure kontrabandoak bukatu! Orko irabazi guziak deabruak eraman ditzala! Gaurtik aurrera alegiñak egingo ditut intxixu ta bere bultzagille Basajaun urde ori arrapatzeko. Egundoko gizona dala; inguru guzian ez dala alakorik ezagutzen, Dardar besterik. Bibote aundi batzukin, sudur luzea, xerall xamarra. Ez dira auek Joxe Iñaxioren ezaugarriak...

Baña nork zekien? Beldurrak aidean eta illunpetan ikusi zuten bere semeak. Nolakoa zan antz ematen etzan errexa izango. Biboteak erantsiak

izatea ere... zergatik ez? Oraindik Dardar zala-koan zegoen endorea. Baña nola arrapatu? Lotzeko agindu bear zuena, beraren alde baizeukan.

Erretoreak igerri zuena, etxetik asi zaio. Orra lenengo eriotza egin. Nor izango ote zan urrengo?

- Ez dala aldapako artzai ori orko intxixua? Ea ortan ere arrazoi duen. Basajaun dala kontrabandisten buru. Nor ote da ori? Don Lukas bere artaduna lagun maitetzat eduki arren, ea bera dan billaua.

Galdera asko egiten zizkion endoreak bere bu-ruari. Baña batek zeukan arrazoi: erretoreak. Arek igerria asi da gertatzen. Bere etxean gañera. Dardar izan edo ez, geiegi arrotu etzedin, arekikoak egin bear zituzten.

Etzebilkien buru-auste makala. Orain nondik sortu errian bear zana? Alare, etzan iñor oartu ezer palta zanik. Denetik zetorren nai aña. Gure Basajaunek, etxetik atera gabe ta arraixku gutxirekin, nonaitik zekarkien naiko gauza, saritutako langilleen bitartez. Eta iñork etzekien nor zan bera.

Endorea arritua zegoen. Ordurarte etzuen uste erri artan ainbeste kontrabando sartzen zanik. Ez bera besteren ogibidea moztera joan zanik ere.

Basajauna, bera baño erneago izaki. Ixilik eta mandorik gabe egiten zuen lana. Bera ezkutuan geratuta, ordekoak bota aurrera. Erriko zergik ordaintzen ote zuen? Ezetz zerizkion.

Arrapatzean, denen ordañak eman gabe etzan geratuko. Kenduko zizkion berriz kontrabandoan ibiltzeko lañezak.

Intxixuari baño amorru aundiagoa artu zion kontrabandista orri, nor baizan ere. Astindu bear zituen udal-ertzañak, ea arrapatzen zuten.

## DIRUAREN ATZETIK

Udaletxeak batzar txiki bat egin zuen, eta ogei ta amar ontzako urre jarri, intxixu ori bizirik edo illa arrapatzen zuenarentzat. Etzan sari txarra.

Laster asiko ziran amets orren atzetik, ustez zerbait ziranak.

Bitartean, Basajaunak bota zuen bidean jarri zitzaion etsai bat. Baña beldurgarriena aldapa artan zeukan oraindik, besteren itxilluak ikusten lasai bizi zana, sari ura azkenean berak jaso bearko zuela pentsatuz.

Onen esanak etzituen iñork ontzat artu, eta etzion iñori beldurrik sartu. Dirua! Uraxe ikusten zuten. Aren ametsetan jarri ziran, arraixku guziak aztuta.

Intxixuak, berriz, ondo saritua ta geiagoren itxaropenean Dardarrekikoak egiten bazituen, bere atzetik zebillenari etzion utziko. Bestela, bera galduko zan.

Arek, iñor oartu gabe egin nai zuen lana. Mendia zenbat eta askeago, orduan ta errexago urbilduko ere, lekukorik gabe, etsaiarengana. Arratsean mendi artan zebillena, bada, beti arraixkuan ibilliko zan. Eta, errian askok uste zuten bezela, Dardar izanik ango intxixua, segurua etzan izango aren etxe inguruan ibiltzea, bere zelatari bezela.

Bibote-Aundik ikasi zuen bere buruari saria jarri ziotela. Zoriontsu par egiten zuen berekiko, esanaz:

– Pollita izango litzake sari ori nik irabaztea. Orren buru aundi ori, Dabid'ek Goliat'ena bezela moztuta, ori esku batean, bestean eltzaorra, ori dala intxixua ta udaletxera joango banintz, nork

antz eman bear lidake, nere biboteak moztu ta gero? Orri buru moztea, ori izango da zalla. Ez baita beñere arraixkuan jarriko.

Zelatariak asi ziran beñepein. Lenengo izen emandakoa, bertako udalzain bat zan. Sasoiko gizona, ta bera ere gizaki ederra ta indartsua. Zerbait bazala uste zuen oietakoa.

Dardarrek ikusi zuen mendi zearretik igotzen, onek ez ikusteagatik noski.

– A, gizarajoa! Nere zeletan al zatoz? Or zabitzen bitartean, ez daukazu arraixku txarrik. Gorago joaten bazera, berriz, odolkia bezela txulatuko zaituzte. Or konpon! Ez dezute intxixu ori zuek bakarka arrapatuko, aren berri ez dakizute asko-ta.

Dardar lotara joan zan, etxe-zaintzalle bat jarri ziotela ta kontentu:

Onen etxe inguruan igaro zituen lenengo iru arratsak. Jakiña, au zelatatzen. Baña etxe artatik etzan iñor atera ta sartu, zelatariak zionez. Orrekin etzuen, ordea, saririk irabaziko. Il edo bizirik arrapatu egin bear zuen.

Iru arrats aietan ere astindu zuen intxixuak eltzaorra. Onek etxe artara urbiltzeko gogo aundirik etzeukan. An arraixku txarra zegoen.

Zaintzalleak, berriz, etzuten goiko pagadi zaarrera igo nai. Dardarren abixuak ez bazituzten sinisten ere, gogoan zeuzkaten. Urbilleneko etxetik urruti arekin topo egin bearrak, tximak txutik jarri erazten zizkien. Baña arrapatuko bazuten, ara joan bear.

Urrengo arratsean gorago jarri zan, pagadi zaarraren inguruan. Baña goiz artan etzan errian azaldu.

Beldurrak artu zuen endorea. Beste bi udalzainekin igo ta pagadi zaarraren ondoan auspez, bere

odol ziatuaren gañean erantsia ta illotza, arkitu zuten.

Ea Dardarrek arrazoi zuen, arek or nor zebillen bazekiela esaten zuenean; edo berak, iñork ez antzik ematearren, goien egiten zuen lana.

Puñalez illa zegoen, bizkarretik sartu ta bularretatik ateratzeraño muturra. Sastako ikaragarria. Exerita zegoen lekuan josiko zuen noski. Zeramazkien armak etzioten asko balio izan gizarajoa-ri.

Dardarrek, ardiekin zebilela, jexten ikusi zitu-  
tuen.

- Gizarajoa! Ez da, bada, esanaren paltan. Amaikak joan bear dezute ankaz aurrera, gora joateari ez badiozute uzten.

Ezer ere erabaki gabe galdu zuen bizia.

Beste egun batzutan etzan iñor ausartu. Ameslari-entzat dirua pozgarria zan. Baña udalzain gizarajoa puñalarekin alderik alde zulatua ikusi zute-  
nean, jendeak atzera egin zuen.

Beste bat ere laxter etorri zan endorearengana, ta onen baimenarekin zeletan jarri au ere. Lenengo iru arratsetan Dardarren etxea zaindu zuen onek ere, lengoak bezela. Baiña andik etzan iñor erten ta sartu. Azkenean, saria irabaziko bazuen, udalzaña bezela, goiko pagadi zaarraren ondora igo zan. Goizean, ordea, etzuten errira sartzen ikusi. Non ote zegoen?

Erriko jendea joan zanean, udalzaña arkitu zutenetik inguru xamarrean, puñalaz atzetik aurrera-  
ño zulatua arrapatu zuten, auspezka eroria bere odol-putzuan ta illa.

Orra bi eriotz, ezer garbitu gabe.

Ura ere nola jexten zuten ikusi zuen Dardarrek. Goibel-goibel begira egon zitzairen, ezkutatu ziran arte.

- Emengo intxixua ez naizela ni, noiz oartuko ote dira erriko agintariak? Orduan laxter egingo genituzke orrekikoak.

Egunez, jendeak, txarak, ar-zuloak, denak astindu zituzten. Baña an etzuten negargarrizko utsuna besterik arkitu.

Etzan, bada, intxixu ori geldirik egoten. Artzai-txabola geienetatik arkumeak ebasten zituela, ta denak bibote aundi bat ikusten zuten, ta ezin arrapatu.

Dardarren bordara etzuen oraindik sarrerarik egin.

Bakarrarentzat, ikusten zanez, arraixku txarra zegoen, ta lau jarri ziran elkarrekin, arrapatzen bazuten saria lau puska egitekotan. Egonean edo ibillian, laurak batera, etzala aiek denen aurka auzartuko-ta.

Arrats batzuk orrela igaro zituzten. An etzala iñor azaltzen, orroa bai ugari, ta lasaitu ziran eta bakarka jarri, mendi inguru guzia lauren arte ederki artzen zutela.

Intxixuak ere, ordea, pagadi-petik berak nola zebiltzan ederki zaintzen zituen.

Alako batean, karraxi bat entzun zuten. Laxterka joan ziran. Beste irurak ikusi zuten geldi-geldi nola sartu zan intxixua pagadira, beren laguna bertan illa utzita.

Intxixua ikusi zutenak, berriz, gizaundi bat zala zioten. Nongo deabrua ote zan ura, gizonak ain aixa arrapatu ta iltzeko? Bakarra ote zebillen gero? Ori zuen Dardarrek kezki txarrena.

Errian askok bera zala bazioten ere, oraindik etzuten ukuitu, ez intxixuak eta ez agintariak; eta, berarekin sartzen etziran arte, betiko bizi-modua eramango zuen, udaletxearen saria azkenean berarentzat izango zan-ta.



Lenengo artzaiak bakarra ikusi zuen. Berak ere bai. Baziteken, ordea, beste lagunena bat edukitzea, etsaiak nondik nora zebiltzan salatzaile bezela. Basajauna ez baizan eroa. Zalantz onek buru-auste batzuk ematen zizkion. Berari erasotzean, orduan izango ziran kontuak.

Batzuk etsiak zeuden eta okerrena pentsatzen zuten: errira sartzen asiko zala. Ta beldurrak atzera erazten zituen. Modu artan lau gizon il zituenekin, bakarka nola ausartu?

Alare, denak etziran oraindik izutu. Dardarrek ikusten zuen etortzen, illunabar alde ortara, elizako sakristaua, ta naigabe ematen zion, intxixuaren puñalpean galduko zan beldurrak, ura ta erretorea beste lagunik etzeukan errian-ta. Baña azkenean gizon ernea izaki.

Arrats batzuk igaro ta, pagadi zaarraren ondorra igo zanean, Bibote-Aundi an baizan mutilla, orra non ikusten duen, makurka-makurka beragana datorrela, esku batean eltze bat, bestean puñal zorrotza muturretik artuta, egundoko gizon-puska. Lenengo, Dardar iruditu zitzaion. Meaxtagoa, bibote aundi batzukin. Besteak etzuen olakorik. Baña nork zekien, ez ezagutzeagatik, ez ote zituen erantsiak izango?

Izutu ta daldaraka, ertzañak gogoan, etxe alde-  
ra abiatu zan laxterka, animalia zakar aren aurrean bakarrik, larritua. Etsi zuen arrapatuko zuela. Askoz geiagoa izaki aldapa beera artan.

Dardarren etxe aurretik, atea jo edo ez jo an sartzeko ibilli ondoren, bera izan zitekela eltzarra-jotzalle ori ta eriotzak egiten zituena ta orain atzetik jarraitzen ziona, oraindik ez baizuen ondo ezagutzen, -illunpean ta beldurrak ezin igerri-, etxea utzi ta erri aldera malda beera artu zuen

sakristau izutuak. Kilometroak zekarzkiten biak laxterka.

Sakristaua oartu zan etzala etxe aurretik pasa kankallu ura. Zergatik egin ote zuen ori? Bide galtze izugarria. Eskerrak orri, aurea artu zion. Bestela, arrapatuko zuen. Intxixuak etxeari buelta ematerako, besteak txuxenean atzera utzi zuen. Alare, erriraño jarraitu zion, eta etzan sakristaua nai ordurako etxean sartu, urbil baizeukan etsaia.

Emazteari deitu ta atea zabaldu zionean, izutua sartu zan. Al zuten ondoena itxita, babestu zuten atea. Sukaldean pixtuta zegoen argia ere itzali.

Gizaundi ura, etxera baño len arrapatu etzuelako, sukaldeko kristaletik, kanpo aldetik alegia, begira zegoela somatu zuen sakristauak, zer itzegiten zuten entzun nairik, bere bibote aundi aiek kristalari erantsiak, erne barrura. Arek etzuen ezer ikusten illunera, abotsa entzun besterik. Barrungoak, ordea, ederki ikusten zuten kristalean zegoena, sakristauak beñepein. Emazteak oraindik etzan oartu ta ala galdetu zion:

– Norbait ikusi al dezu?

– Bai. Ta etxeraño atzetik jarraitu dit.

– Eta ezagutu al dezu?

– Urruti xamar ikusi det, eta illunpean. Gizon zangar beldurgarria. Baña ez det ezagutu. Inguru auetakoa ote da gero? Bibote aundi oiekin ez dago ezagutzerik.

Estuāsuna zan, bai, ura sakristauarentzat.

– Berriz joan bear al dezu?

– Ezta pentsatu ere! Suerteak lagundu dit. Bestela, aren puñalaren puntan geratuko nintzan. Diru zikin ori baño geiago maite det bizia.

Esaten zuten guztia entzunaz, oraindik leiotik begira zegoen gizaundi ura, eulia bezela, bibote

aundi aiek kristalean zapalduak zeuzkala. Margotzeko brotxak ziruditen. Sakristauak ederki ikusten zuen. Emazteak ez, ordea, oraindik. Onek, senarra izutua, itzik ezin asmatu ari zala antz emanik:

– Etzaitu nolana izutu! Zer dezu? Beldurrak daldaraka zaude –esan zion.

– Leiora begira zazu.

Begiratu zuenean, karraxi egin zuen, ura bere puñal zorrotza eskuan zeukala ikusi zuen-ta.

– Ori animalia! Ori al da intxixua? Baña ez Dardar! Praixku burrukaria da ori!

– Zaude ixilik! –eskatu zion gizonak–. Bestela, itxilluak izango dira emen.

Puñala astinduz, alako zemai bat egin zuen Bibote-Aundik, emazteak ezagutu zuela ikasi zuenean.

– Ori barrura dator, eta al degunarekin babesu bearko ditugu atea eta geron buruak. Bestela, biok bertan ilko gaitu.

Ori esan zueneko, Bibote-Aundi buruan joko ez joko, tximixta bezela, kristala txetuz, sartu zan sukaldera pelota añako kaiku-arri borobil bat.

Nork tira zuen ere begiratu gabe, makurka-makurka, iru milla arrainuk ez badu, laxter ezkutatatu zan Bibote-Aundi erri aldera.

– Ori bai norbaitek izutu duela! Laxterka ezkutura joan da. Arri orrek buruan jo balu, aztuko zitzaizkion puñalak eta eltzaorrak.

– Artzaren barrutietan sartze ori etzaidak komeni –esan zuen Bibote-Aundik, eta mendiaren beste aldetik pagadi zaarrera jo zuen.

Aurreko leiotik begiratu, sakristauak beste erraldoi bat ikusi zuen mendi aldera artzen.

– Arritzekoa! Zer da emen? Zenbat intxixu dabil? Ez ote dira geiago, edo garai bateko jain-

koak ote dabilta burruka? Ori nor dala uste dezu? –galdetu zion senarrak emazteari.

– Len ere esan dizut: Praixku Bibote-Aundi burrukaria. Orren burruka-saio bat baño geiago ikusia nago ni.

– Jesus! Ori gizon tzarra! Orren begiratua! Gu biok aña bada bakarrik ori.

Sakristauak eta bere emazteak bikote pollita egiten zuten arren...

– Dardar ez det ezagutzen ondo. Baña onek badu geiagorik. Beste baten igesi joan da emendik. Au bai; au ezagutzen det ondo. Orain badakigu emengo intxixua ez dala Dardar –zion emazteak.

– Nik ez nuen ezagutzen. Kristaletik begira ikusi detenean, aurrez-aurre begiratzea ez naiz ausartu, zearka besterik. Baña arek ez giñun gu ikusten. Izan ere, sukaldea baño beerago dago arek oñak zeuzkan lekua, eta lepotik gorakoa eramaten zigun. Egunen batean ikusiko degu oietakoren bat illa mendi ontan. Au igesi joan da. Iaioa izango da puñalarekin. Alare, au izutzen duena, ez da nolanaikoa. Dardarren etxe aurretik igaro naiz. Orrek atzetik egin du buelta. Orduan artu diot aurrea. Zergatik etorri ote dan atzetik? Orain bada-  
kit, zuk au ezagutzen dezun ezkerok: aldapako orrek izutzen duelako. Bi erraldoien burruka dabil emen. Ez dakit zein gallenduko dan. Mendiko jabe nor geratu ote dabiltz?

– Diru zikin orregatik ez zuk zure bizirik arraixkatu orrela. Utziozu lan orri. Ez gaitu orrek zorionekoak egingo.

– Bai, Iñaxi. Ez degu diru orren bearrik izan gaur arte ondo bizitzeko, ta aurrera ere ez det uste.

– Utzi zaiegun bi erraldoi oiei, beren arazoak bien artean erabakitzen.

Udaletxeak, alperrik beren bizia ematen ari zira ikusi zuenean, galerazi egin zuen Dardarren etxez gora iñor joatea:

– Utzi pakean mendian intxixuari. Jo dezala orroa, nai badu, aspertu arte. Tximixtak izutzen du jendea. Ura da beldurgarria. Trumoiak iñor gutxi. Agian bera joango da aspertuta. Zaindu dezagun denon arte erria, emen askoz babes errega-goa daukagu-ta.

Dardarren belarrietara iritxi zan udaletxeak artu zuen erabakiaren berri, ta ala zion berekiko:

– Bazenuten ordu, arratsean banaka ta binaka arrapatuko etzenutela etsitzeko. Animali gaixtoa dek ori. Denak izutu dituen ontan, arro geratuko zan gure intxixua. Orain erasoko zidak neri. Uste gabekoren bat izan ezik, bakarrik badabil beñe-pein, ez niok ni orren aixa menderatuko.

## **BASAJAUN TA BIBOTE AUNDI**

Basajaunak bazekien iñor etzala pagadi alde artara joaten ausartuko.

Erritarrak artara jarri ziran. Orroak etzion iñori kalterik egiten. Ezta aldapa artan zegoen Dardarri ere. Pagadia andik urrun zegoen. Etxez beera botatzen zituen ardiak, eta arratsean estalpera sartu. Mendi-gain aietan egin zezala nai zuen aña karraxi. Oni beldur bizia ziolako, ez baizuen beerago etortzeko biotzik.

Bibote-Aundi, berriz, erdi zoro oietakoa, bo-

rondaterik gabea, ezer egingo bazuen, norbaitek zirikatu ta zuzendu bearra.

Orregatik deitu zuen berriro taberna txikiko ezkutuko gelara, ordura arteko zorrak txintxo ordainduko zizkiola aginduz.

Arkaitz arteko bide txigor batetik, iñork ikusteko beldurrak, jetxi zan ardangelara. Baña bere zoritxarrerako, lenengoan bezela, orain ere an zegoen Dardar. Atetik sartzen asi zanean, ikusi zuen maian, eta gorputz guziak alako ikara bat egin zion. Bai laxter atzeratu ere, atea kolpean itxiz.

– Zein deabru dabil or? –galdetu zuen Joxe Iñaxiok.

– Enbata dakar noski. Aizea dabil bultza ta tiraka –erantzun zion lagunak, ez baizuen iñor ikusi.

– Bai ote gero? Ori, orren kolpean, norbaitek itxi du.

Eta txuxenean kanpora atera zan. Baña etzuen iñor ikusi. Ordurako, Bibote-Aundi ezkutatu baizan.

Biak zebiltzan elkarren beldurrak. Etzuten uste gabekorik nai.

– Milagro z iges egin diot –zion Bibote-Aundik–. Ez dakit nola ez nauen ikusi. Artz urdea, aleena! Beti orren beldurrak nabil, eta noiz-nai, uste gabea, bere atzaparretara sartzen naiz. Puñala eduki banu, erakutsiko nion nik orri.

Jauzi batean etxe atzera joanta, ezkutuko atean deitu zuen. Basajaunek zabaldu ta Bibote-Aundi ikusi zuenean, asarre xamar esan zion:

– Aztu al zaizu onerako bidea edo?

– Ez, Basajaun, ez. Or barruan baidago Artza. Ta, nerea kobratu baño len, ez nuke orren atzaparretan erori nai. Nork daki, neri zorrak ez or-

daintzeagatik, onera etorko naizela ez badiozu esan ere...

– Eroa aleena! Astakeri galantak esaten bada-kizu beñepein!

– Nik bezin ondo dakizu, billauen artean zer gertatzen dan.

– Utziogun orri. Zorionak ematen dizkizut. Zu zera mendi ortako nausi ta jabe.

– Aixa diozu ori. Errexenak egin ditut. Alda-pako buru-aundi ori arrapatzen izango da zalla.

– Beldur gaitza diozu orri. Txuri-txuri egiña sartu zera onera.

– Ez da batere arritzekoa. Arrapatuko baniñu, txitoarena egingo lidake. Ni erori banintz, zureak ere egingo zuen, zu emen egongo ziñala antz emango baizion. Galtzekeroz, maltzurkeriz ond-tuko det nik ori.

– Nai dezun bezela. Baña urte au joan baño len egizu orrekikoa.

Ordura arteko zorrak ordaindu zizkion, eta txoria baño alaiago geratu zan Bibote-Aundi.

– Etzazu eltzaorra ori geiegi dantzatu. Iñoizka ondo dago. Jakin dezala mendian zabiltzala ta zu zerala oraindik ango nagusi. Baña ixilka egin bear dezu lana. Ez da nai ta nai-ezkoa beti berari era-sotzea. Al badezu, kixkaliozu etxea edo ardi-es-talpea. Aur txiki oietako bat berdin, naiz emazte edo illoba gazte ori, bera ezin badezu. Nondik nora jo ez dakiela jarri zazu. Itxu-itxuan erasoko dizu orduan. Eskueta etorriko zaizu.

– Artzari olako azio bat egitea orren errea dala uste al dezu? Berak ere baditu begiak, eta aran beltzak ugari. Illoba txiki ori, berriz, deabrua bera baño biziagoa da. Dardar baño erneagoa. Aski du ori artaldea zaintzeko. Lepoko txarrantxa

daramaten otsoen aurkako bi zakur aundi dauzka. Sar zaite aien artera.

– Ez dizut agintzen presakaegi ibiltzeko, alpe-  
rrik zure bizia arraixkatuz. Baña aurten, al badezu  
beñepein, bota zazu ori, urte onek oraindik egun  
asko dauzka-ta.

– Ori galtzen badet, zer sari emango didazu?

– Orain artu dezun ainbeste bai.

– Orrenbesteko artza arrapatuta, ori bakarra?

– Urteak dauzkan egunetarako ez da sari txar-  
rra.

– Eta bitarteko arraixku ori?

– Utzi zaiogun orri. Bukatzen dezunean itze-  
gingo degu.

– Eltzetik babak atera arte. Bai, baña gero,  
sari orde ez ote da neretzat ere beste puñalen bat  
izango?

– Beti lelo bera jalkitzen didazu. Ez al dizut  
txuxen orain artekoa ordaindu?

– Bai; baña oraindik babak eltzean daude.

– Ez badabilkizu pulamentu geiago, badaude  
puska baterako.

Eskua bete txanpon ikusi zuenean, alako  
irrintzi txiki bat egin zuen Bibote-Aundik. Eta,  
esku gañean gurutzea egin ta musu emanaz, onela  
esan zion Basajaunari:

– Aurtengo urtea joaterako bietakoren bat ero-  
riko dala zin egiten dizut.

Eta, esku emanaz, erten zan andik, bañan ez-  
kutuko atetik, mendi aldera.



## ANTTONIREN KEZKAK

Egun batzuk lasaiak igaro zituzten. Orroa entzuten zuten goi alde artan. Baña orrek etzuen abereak besterik izutzen.

Basajaunekin bere elkar-izketa eduki ondoren, nola eraso ikasten ariko zan Bibote-Aundi. Dardarrek Migeltxo bere koñadu gaztea bialtzen zuen ardiekin, eta bera beti etxe inguruan zebillen, etxea zainduz gañera, ango lanak egiñaz.

Bere buru-austerik aundienak etxeoak zituen: emazte ta aurrak. Baña etxeak eta ardien bordak ere naiko ixtilluak ematen zizkioten. Beiak etxean zeuzkan. Ardiak, ordea, aldameneko borda batean; irureun ardi inguru. Ura kixkaltzen bazion, goi-beak jota uzten zuen.

Bere seme-alabak, txikiak, noiznai ethez gora zebiltzala ikusten zituen. Gazteenak oraindik illa-bete batzuk besterik ez. Aiek an ikusita, otxikara sartzen zitzaion biotzera.

Amak, berriz, naiko lana bazeukan etxean. Aurtxoak, berriz, etzituen etxean gordeta edukiko.

Oraindik etzion eraso. Baña bazekien, nondik eta nola eraso ikasten ari zala. Ta aurtxo aiek arrapatzea baño errexagorik... Begi-belarri zebiltzan bada senar-emazteak, txakur-zaunka guzietara arretaz. Ez baizekiten nondik, egunez edo gauaz, erasoko zien. Txakurra bera ere edena emanta ilko ote zuten beldurrak zebillen. Alare, bat baño geiago izan zitezken. Orrek ikaratzen zuen geiena.

Oraindik Dardarrek etzion eraso. Ez baizan etxe ingurura urbiltzen. Orduan, nai ta nai ez, berak ere ekin bearra izango zuen.

Ortaraño ere saiatu Bibote-Aundi. Lanak bukatzeko presaka zebillen. Basajaunaren aolkuak etzeuzkan noski aztuta.

Gau batean, lasai atsedeten zeudela, egundoko txakur-zaunkak ziran, eta oi u egin zuen Anttonik:

– Salta zaitea, Joxe Iñaxio, etxea sutan dago-ta!

– Etxe au sutan?

– Nola artu duen ez dakit. Baña or nonbait bada sua, kea dator-ta.

– Orixe bear genduke orain! Zuk, Anttoni. Seguruan jarri itzazu aurrak, guk sua itzali bitarte.

Jauzi batean erten zan kanpora, ta Anttonik arrazoi osoa zeukan. Artu berria ta etxe aurretik emana, aurrak lo zeuden gelaren ondoan. Ortaraño ausartu zan intxixuá. Baña, Jaunari eskerrak, eguraldi eze ta euritsua zegoen eta suak etzuen indarra artzeko betarik. Bereala, koñadu txikiak eta biak itzali zuten. Urrutira entzuten zituzten txakur-zaunkak ta ixkanbillak intxixuaren atzetik.

– Ori iltzen badigute, gaizki ibilliko gera. Ori bezelako etxe-zaitzallerik ez daukagu –zion Dardarrek.

– Ori arrapatuko duen intxixurik ez da jaio, osaba –zion Migeltxok. Koñadua zuen arren, osaba deitzen zion txikiak.

– Ez. Baña aski luke aragi-puska bat edendua ematea, ta akabo gure txakurra.

– Orduan aundi oietako bat jarriko genuke.

– Ez. Oiek arrapatu ezkerro, beste edozein ere txikituko luteke.

Eta emazteari:

– Eskerrik asko, Anttoni. Zu ez baziñan oartu, etxea kixkaliko ziguten. Gu aterako giñan noski leiotik jetxita. Baña ez dakit aurrak salbatuko genituen. Emakume oiek ez al dezute lorik egiten?

Edo, erbiak bezela, beti begi zabalik bizi zerate? Aldameneko gela txiki ontara ekarri bearko ditugu. Emendik su ematerik ez dago, leiora igo gabe. Ortaraño ez da ausartuko.

- Utzi oiek nere esku. Gaur bertan moldatuko ditut. Ez al dezu emendik joaterik pentsatzen, beste guziak aldegin dute-ta? Eskerrak gure txakurri. Orren ixkanbillak esnatu naute.

- Ez, Anttoni. Ni ez naiz emendik joango, bakarrik geratuko banaiz ere. Ezagutzen det ondo emen dabillen intxixua. Joango banintz, ez luke parra gaizki egingo. An ere ez liguke pakean utziko. Orrek, nai ta nai ez, illa edo bizia, arrapatu egin bear du. Orduan sinistuko dute ez naizela ni mendi ontako intxixua. Ardiak, bai, bialiko ditut aitaren etxera. Mingarria da, izan ere. Arkume bat iltzerakoan, naigabe ematen dit. Eta emen il ta txikitu ari dan ori, ni naizela diote errian. Irabazian edo galduan, bakarrik geratuko banaiz ere, lan au bukatu arte ez det atsedetik artuko.

- Bakarrik? Ez, Joxe Iñaxio. Noranai zoazela, nik jarraituko dizut. Zure etorkizunarekin bat egiña dago nerea ere. Azkena jo arte, ni aldamenean edukiko nauzu. Orren kezkarik ez eduki.

- Eskerrik asko, Anttoni. Banekien zure pintasuna. Ordu larrietan olako lagun batek ez du gutxi balio.

- Eta seme-alabak beste leku seguruago batera eramango bagenitu?

- Ez dago gaizki esana. Askotan nik ere kezkaz pentsatzen det gauz ori bera. Nai badituzu eraman, ez dizut galeraziko. Baña non daude seme-alabak beren gurasoen ondoan baño seguruago?

- Ori ere ala da. Bereak dituena geiena saiatu-

ko da. Nagusiaren ondoan seguruago dabilta ardiak, morroiaren mende baño.

- Ederki beude gure aldamenean. Ez geiegi larritu. Uste gabekoren bat izan ezik, dena ongi aterako da. Pentsatua daukat ori nola arrapatu. 15'ean gaude. Il au bukatzerako, amaituko da emengo itillua ere. Zuk beñepein seme-alabak ondo zaindu, gure zabarkeriz galdu ez ditzagun. Eta intxixuarekiko lana utzi neri. Illoba txikiak eta biok arrapatuko degu ori. Aur txiki auek kezkatzen naute geiena. Aren eskuetan erortzen badira, umeak dirala-ta ez die barkatuko, eroska oieta-koa baita. Nik, zelaian edo artzantzan nabille-  
nean, zainduko ditut. Beste gañerakoetan ez utzi gora ertetzen, Migeltxok eta biok etxe inguru au zaintzea erabaki degu-ta. Aizazu, Migeltxo: zu arratsean beldurtia al zera?

- Or goiko mendi ortan bai noski. Baña etxe inguruan ez. Emen ni arrapatuko nauen intxixurik ez da jaio.

- Bejondeizula! Ta ez dezu gezurrik esan. Zu or arrapatuko zaitun bi ankekorik ez da sortu. Etxeari su emateraño ausartu da. Geron buruak salbatzezkeroz, zerbait egin bearra daukagu. Ez dago orri ortara uzterik.

- Nik al detana egingo det, osaba. Esaidazu zertan laguntzea nai dezun.

- Nere asmoak auek dira, baña ez iñori kontatu: Zu, arratseko ordubietatik asi ta eguerdiko amabiak arte, aske geratzen zera. Nai badezu, lo egin ondo. Ori komeni zaizu. Eta, amabietatik ga-berdiko ordubiak arte, etxea zaindu. Baña, arratsean batez ere, erne ibilli. Egunez ez dio ajo-larik. Argitan noski ez da asiko. Ni ere emen arkituko nauzu. Baña len ere esan dizut, gauaz lau begi ta bost belarri bearko dituzula. Arek, gaztea

zerala-ta errukiturik, etzaitu utziko. Txakurra ere zurekin izango dezu. Orrek nabaitu gabe, etzaizu urbilduko. Iñor ikusten badezu, –urrutira ere ikusteko modukoa da, ni aña bada noski, bibote aundi batzugin–, laxterka etorri zaite etxera. Arratseko ordubietatik eguerdiko amabitaraño ni ibilliko naiz. Ulertu al didazu?

– Bai, osaba, bai. Dena ulertu dizut. Pozik egingo det ori. Ez nere beldurrik eduki.

– Ondo enborreko ezpala zera, bai, zu ere. Osaba ez du oraindik bi ankeko batek izutu. Ezta intxixu onek ere. Ixilik, gu oartu gabe, zer egingo digun kezka dabilzkit; eta, pakean bizitzezkeroz, arrapatu egin bear.

Iru edo lau egun bazeramazkiten. Arratsero entzuten zuten orroa. Baña gure zaitzalleak aspaldian oituak zeuden. Bera, ordea, etzan azaltzen. Ikusi ta igesi egiten ote zuen? Edo uste gabekoren batean gaztea arrapatu nairik ote zebillen? Txakur txintxo arek nabaitu gabe etzan iñor inguratuko.

Bostgarren ta seigarrenean ikusi zuen Dardarrek. Arek ere bai au noski. Begi erneko umea zan Bibote-Aundi. Ta bestearen berri ondo ikasia zegoen. Etzuen geiegi urbildu nai izaten.

– Or zegok sasi atzean.

Ta pagadira sartzen zan. An zeuzkan bere indarrak, ausartzen zana ezkuturen batetik puñalaz josteko. Besteak ere bazekien orren berri. Egokiago arrapatuko zuen oraindik.

– Erne, Migeltxo! Nik bi gau auetan ikusi det, goi xamarrean jartzen bainaiz. Baña, ez ikusia eginta, baso aldera iges egiten dit. Baliteke gaur goizago etortzea. Beti ez naizela ni egongo, eroa ez bada, oartuko al da. Ortxe berrogei ta amar bat metrora arte utziozu. Atea, bultza besterik ez duela egongo da, eta zatoz laxterka etxera. Emen

sartzea iritxiko bagenu, ez litzake sarean gaizki eroriko. Eta, beetik baletor, berriz, axaiozu txakurra. Aren ixkanbillara esnatuko al gera. Segundo gutxitan or naiz ni. Baña ez egin txorakeririk, bizia jokatzen dezu-ta. Intxixu orrek ez du biotzik.

Dardarrek pentsatu bezela gertatu zan. Intxixua oraingoan goizago etorri zala, ordu bata inguru ortan, ixil-ixilik, batere orrorik jo gabe. Erne zegoen ta ikusi zuen Migeltxok gizon kankallu bibote-aundi bat. Ordurako, onek ere ikusia zuen. Mendiaren itzaletik zetorren, gaztea oartu etzedin, geldi-geldi onengana urbiltzen. Berrogei ta amar bat metrora arte begira egon zitzaion. Gizon ikaragarria. Eskuan zerbait bazekarren, eltze borobil baten antzekoa. Ea arek bere osaba ere menderatzen zuen. Orduan igesari eman zion, eta laxterka sartu zan etxera, jarraitzen ote zion begiratzuz.

Osabak nabaitu zuen, eta jauzi batean jetxi, erne baizegoen.

- Norbait ikusi al dezu?

- Bai. Egundoko gizona. Zu aña bada ura. Eskuan eltzea bezelako bat bazekarren. Intxaur aundiaren ondora arte jarraitu dit. Ez nauela arrapatuko etsi duenean, gorako bidea artu du, trumoi batek bezela oi u egiñaz: «Artzarengana eraman nai al nauzu? Zoaz, zoaz ortik aurrera bakarrik!»

- Deabru orrek igerri dio gure asmoak nola-koak diran. Bakarrik al zan? Eta erremintaren bat ikusi al diozu?

- Nik bakarria ikusi det. Eta eltze ori besterik etzekarren, agerian beñepein.

- Urde ori ez da tontoa. Baña erori bear du goiz edo berandu. Orrengatik eskeñitako ontzako urreak ere, guk jaso bear ditugu. Eltze ori izango du deabruzko orro oiek ateratzen dituen edo eltzaorra. Joan zaite lotara. Ni jarriko naiz orain.

Ez det uste gaubela asko dauzkagunik. Neri esan zidanak, etzidan gezurrik kontatu: Basajauna asarre xamar zebillela ta presa ematen ziola.

Dardar erne igo zan, bere txakurra inguruan zebilkiela, anbat bazterren batean egongo zala zelelan jarria; ta erdiz-erdi asmatu zuen. Ote-mollo baten atzean kuxkurtua zegoen. Eskerrak txakurrari. Laxterka ta makurka igesari eman zion. Bai Dardarrek arri borobil aietako bat tira ere. Bizkarran jo ote zuen iruditu zitzaion. Baña oso urrutira.

– Ez dago Artzaren ondoan atsegin! –oiu egin zion Bibote-Aundik.

– Urbiltxeago izan baziñan, onuzkero nere atzaparretan zeuden.

Atzera begiratu ere gabe, laxterka ezkutatu zan pagadian.

Dardarrek garbi-garbi ezagutu zuen. Orain ziur bazekien noren aurka zebillen. Baña igerri zion beraren igesi zebillela.

Lasai-lasai exeri zan arri-tontor baten gañean, gutxieneko berrogei ta amar metroren ingurua ondo ikusten zuela. Baña bazekien etzala azalduko. Orroka jarraitu zuen:

– Jo aspertu arte! Ni ez naiz orrekin asko larrituko!

Arro zebillen Joxe Iñaxio, nai zuenean arrapatuko luken itxurak egiñaz. Baña Anttoni benetan urduri ta kezka betea bizi zan, eta ala esan zion:

– Bat baño geiago izan litezke, ta zergatik ez dezu errira laguntza eskatzen?

– Errian lautatik iruk intxixu ori ni naizela diote. Nor etorriko da neri laguntzera? Zure kezka oiek guziak dabilzkit nik ere buruan. Ni ilko baniñute, zuen lana bereala egingo bailuteke; eta, ni mendian naizela etorri ta zuek etxean galduko ba-

ziñuzte, biziko nintzaken urteetan ez nuke egun bat onik igaroko. Zoaz seme-alabakin amaren etxera, ta Migeltxo ta biok geratuko gera emen. Beti beldurrak, ezin giñezke ortara bizi. Intxixu madarikatua! Lasai egon bear gendukenak, ez gaituela pakean utziko. Baña, Anttoni, nai ta nai ez, orrekikoak egin bear ditugu. Bestela, orrek galduko gaitu. Bai, bai. Joan zaite. Guk ere alegiñak egingo ditugu.

Migeltxo etxean utzita, arantz ori biotzean sartua zeukala, joan zan Dardar mendi aldera.

Irurak inguru ortan ikusi zuen norbait bazijoala bere artegira; baña etzala Bibote-Aundi. Laxterka jetxi ta, bere ustez ia arrapatu zuen garaian, Migeltxo entzun zuen oiuka ari zitzaiola:

– Atoz aguro, osaba, intxixua etxean sartu da-ta!

Ia eskuetan zeukana; baña etzan iruzurra besterik. Buru gutxikotzat zeukan Dardarrek intxixua, ta laxter bere sarean bilduko zuelakoan zebillen. Baña Bibote-Aundik lotu zuen berean, aren atzetik urrundu erazi ta lasai etxean nai zuena egiteko.

Zorabiatua geratu zan gure Joxe Iñaxio. Eskerak Migeltxo erbiñude ura erne zegoela. Dardarriaña beldur bazion oni Bibote-Aundik. Segundo gutxitan osaba-illobak atarian zeuden. Atea zabalik arkitu zuten.

– Emendik sartu da orduan ori? –galdetu zuen Joxe Iñaxiok.

– Bai, osaba, maratillik eman gabe utzi deguta.

– Pollita izango zan, ni mendian nabillela, etxeakoak ondatu izan balitu. Arek ikusi ez gaitzan, leiotik sartuko gera. Zuk ixil-ixilik itxi



zazu atea. Leio au ere bai. Erten-biderik gabe utziko bagenu...

Dardar sartu zan lenengo; gero Migeltxo. Gaztea ixten geratu ta bestea gora, intxixua arrapatze-ra.

Goiko salan entzuten zituzten txakurraren zaunka-ixkanbillak, aurrak zeuden gela aurrean iruditu zitzaizkion.

## INTXIXUA TA ANTONI

Intxixuak ikusi zuen nola Dardar artegi aldera jetxi zan, ebatsi nairik zebillen gizonaren atzetik:

– Eufa! –zion berekiko–. Au dek nere ordua. Jarritako sarean erori dek astaputz ori. Baña beste erbiñude txikia non ote dabil?

Ustez seguru zegoen Artza oartu baño len, barrukoak il ta etxea sutuz igesi egingo zuela.

Atea zabal-zabalik arkitu zuenean, zerbait izutu zan gure Prasku, eta ala zion:

– Artza bera mendian dabillega, zergatik utzi ote ditu atea zabalik? Arek zabaltzen didan sarea ote det au, etxean sartu erazi ta bertan arrapatzeko? Urduriegi dabil agian gure Dardar, ta lausotu xamarra. Dana dala, urrats au eman bearra daukat. Ura etortzerako, nerea eginta aldegingo det emendik. Txiki orrek ematen dit beldurra, ez ote duen zelatari edukiko.

Illun zegoen etxe-barrua. Baña laxter oitu zan. Bere burua lasaitu nairik:

– Naiko beta badaukat. Aiek, ia argitu bitarte

ez dira etorriko, lengoetan bezela. Ta, dirudienez, biak dabilta mendian. Bitartean, etxeok nere atzaparretan itoko ditut. Ziri banatatik atarian jarri, zapo zar aundi oiek bezela, ta etxeari su emanaz aldegin. Sutan somatzean, etorriko da itxumustuan, eta maite guziak oiñ banatatik atarian txintxilik arkituko ditu illak. Alare, nere lanak ez dira orrekin bukatzen, bera galdu gabe. Ori bai izango dala zalla. Baña beti aurrera noa. Ta emen, bazter batean, itxogingo banio, naigabez erotua dabillega, azken zastada emateko...

Esneketariaren kontuak atereaz sartu zan etxera.

Barrura zanean, okerbidera jo zuen: ukullura. Atean bertan edukitzen zuten lotua, enkargoak egiteko zeukaten asto biurri bat. Arekin oztopo egin zuen intxixuak. Bai arek erantzuna aguro asko eman ere. Bi ankakin indarrean tira zion ostikoa, ta ipur-masalletan arrapatu ta ziraldoka bei artera bota zuen:

– Otx! Asto madarikatua! I ere artzaren morroia izaki! –esanaz, laxter atera zan bei artetik, aiek adarka asi baño len.

Ukulloa utzita, noizbait billatu zuen etxebizitza. Oraindik, lo zeudenak etziran oartu intxixua barruan zebillenik, Migeltxo ere an zegoen baño.

– Emen denak etsaiak ditut. Txakur txirtxil au ozkaka anka-zankoetan. Eskerrak ondo babestuak ekarri ditudan. Asto zikin orrek ere ez dit nolanaikoa eman, ala jainkia! Erdiz-erdi arrapatu ere daramadan puñala. Ia sartu zitzaidan sabeletik.

Eskuarekin ormak aztakatuz, noizbait billatu zuen sukaldea. Bean baizeukaten. An, berriz, aulki batekin oztopo eginta, egundoko zalapartak atera zituen.

– Iñor bizi bada etxe ontan, esnatuko nituen.

Andik gorako zurubia ere arkitu zuen. Begiak oitu zitzaizkion illunera.

Anttoni ta Migeltxo ere esnatu ziran. Txakurra zaunka ta karraxi somatu zutenean, txarrena pentsatu.

Migeltxok, gelako atea zabalduz, ikusi egin zuen. Orduan, leioa zabalduz, jauzi batean atera ta kanpora joan zan, osabari abisatzera.

Anttonik, benetan larritua, ala zion:

– Au, nere senarra il ta etxera dator noski, denak garbitu ta oni su emanaz aldegitoko asmoan.

Eskall-burura erten ta an ikusi zuen, ormaz-orma aztakaturik, bidea ezin billatuz goiko geletarra. Izutu zan Anttoni:

– Orra gure azkena! Beldur nuena etorri! Izan ere, bidea errex arkitu al du, nere senar buru-aundi ori atea zabal-zabalik utzita joan da-ta. Etxetik ez ote zuen lana seguruago egingo? Arrokeri ugari, besteak ere amaren semeak ez balira bezela. Ura ondatuta badator, gureak egin du. Migeltxo ere non ote dabil?

Etzuen alare Anttonik bururik galdu. Ukulluko zurubitik jetxita, sarde zorrotz bat gorotzetan ibiltzen zutena artuta, laxterka igo zan, ta bere seme-alaba txikien gelara sartu, al zuen ondoena atea itxiz, erreminta eskuan, zabaltzen zueneko zain. Aurrera egiten bazuen, sabeletik sartuko zion. Etzekien ezer iritxiko zuen. Gizon kankallu ura etzan atzeratuko. Alare, bere gorputzaren gañetik igaro bearra zeukan, seme-alabak arrapatzezkeroz.

Intxixua, bein gorako zurubia billatu zuenean, ormari eutsiz erori etzedin, igo zan, baña beti bere anketan zeukala ozka ta ozka txakurra. Bibote-

Aundi, berriz, ostikoka. Bere anka luze aiek etzeuzkan nolana lotuak edo estaliak.

Anttonik ederki entzuten zituen goiko salan intxixuaren urratsak: *krisk-krak*, ol-otsak. Non ote zebillen Joxe Iñaxio? Bizi ote zan edo Bibote-Aundik galdu ote zuen? Etzion onik egiten aren arrokeriak.

– Bizi bada ere, beranduegi etorriko da. Ordu-rako gureak egingo ditu.

Goiko gelak aztertuz, ara-onera zebillen intxixua, ia buruarekin sapaia jotzen zuela, –ura gizon tzarra!–, polliki-polliki. Etzuen ondo ikusten, eta etxeko berri ez jakinki, berriz.

Txakurra, beti ozka ta tira, bere oñetan zebilkien. Etzion unetxo batean ere pakean uzten.

– Burnizko zankoak ote ditu orrek?

Ate bat billatu ta sartu zan. Gela baten itxura artu zion. Oatzea utsa, baña epel-epela. Egatu berria noski andik artz-emea. Etzan aldegiña izango. Bestela, azkar ibilli bearko zuen. Leioa barrutik itxita zegoen. Senar-emazteen gela, ura izango zuten. Baña intxixuak zabaldua utzi. Artza etorri ziteken eta, bada ez bada, igesbidea billatu. Bestela, arekin etxe barruan etzan atsegin izango. Ura zabalik utzita, bereala arkitu zuen ate bat ondo itxia.

– Bere umeeekin emen egongo da artz ama.

Atean joagatik, etzion iñork erantzun. Zalla, berriz, idekitzeko.

– Ementxe zeudek ezkutatuta.

Indarrean bizkarrarekin bultza ta zabaldu ondoren, Anttonik eskuan zeukan sardearen erdoituta ortz zorrotz aiekin oztopo egin zuen sabelak. Baita zistakoren batzuk egin ere. Esteetara ez sartzezkeroz, jauzi batean atzeratu zan.

– Otx! Ala jainkia, txorrotxak dira sarde orren ortzak!

An zegoen Anttoni, gorotzez zikindutako erre-minta eskuan, biziarekin bere aurrak zainduz, ta aurrez-aurre egundoko gizon tzarra begira zeukala. Lendik elkarren ezagunak ziran, txikitan elkarrekin ibilliak. Orain aren mende bakarrik, ta sardeari indar geiago ez emanaren damuz.

– Aurrera pauso bat ematen badezu, esteetaraño sartuko dizkizut onen ortzak –illunetik ots egin zuen Anttonik.

Intxixuak gela-barrua ezin ondo ikusi, baña bai sardea, bere sabeletik metro erdiren batera, lau ortz zorrotz aiekin. Bere esteak irrikatuz zeuzkala, zistako aren oñazeak zerbait arindu nairik, zauriak igurtziz, ala esan zion:

– Artzaren andrea ere artza izaki.

– Zoaz emendik, bestela josiko zaitut!

– Bai, bai. Len ere ez dakit ez ote nauzun josi. Arramaxkaren batzuk baditut egiñak. Min ematen didate. Zu, Anttoni, len neskatx goxoa ziñan, bada. Mutil gazte bat bixitatxoa egitera etorrita, sardearekin sastaka artzen al dezu?

Intxixua, bere ustez, seguru zegoen. Beste bi orduan gutxieneko etzala an Dardarrik agertuko ta lasai zebillen, ondo esanean nola Anttoniri sarde ura kendu ezin asmatu-rik. Etzan errexa izango. Aren arramaxkak minberak ziran, berriz. Aurrera aldera mugitzen bazan, an zuen berriro ta indarez eragiña oraingoan. Gorotzetan zikindutako ortz zorrotz aiek ozkia ematen zioten.

– Gizon iltzalle zikin ori utika kanpora! Bestela, ondoraño sartuko dizut.

– Ez Artzaren zai egon. Arenak eginta nator.

Baña etzion sinistu. Une artantxe ixildu zan

txakurra, ta beera jetxi. Laxter oartu zan Anttoni. Bai, ordea, intxixua ere.

– Emen ezagunen bat badator: Migeltxo edo Joxe Iñaxio. Onek nabaitzean buelta ematen badu, sartuko diot barruraño.

Baña ezaguna izaki ta etzan ausartu.

Intxixuari damutu zitzaion, arekin izketan denbora alperrik galdua. Aiek bertan il ta igesi egitea pentsatu zuen. Bestela, bi suren erdian gelditzen zan.

Esan bezela, iritxi ziran etxeraño Dardar ta Migeltxo, ta ukulloko leiotik sartu.

– Urde ori etxean dabil. Zu geratu zaite, ta polliki-polliki itxi zazu ondo atea, betarik ematen badizu beñepein, ez dezan iges egin. Illa edo bizia bertan arrapatuko bagenu... Ukullotik igoko naiz. Bitartean, zaude zu ezkutuan, igesari ematen badio ere non dabillen ikusteko.

Lau jauzitan igo zan zurubiak gora. An ikusi zuenak biotzari jauzi bat egin arazi zion: Anttoni gaixoa, sardea eskuan, biziarekin bere seme-alabak salbatu nairik, eta intxixua, sardearen beldurak, atzeratu ta puñala tiratzeko moldaketan.

Baña aurrez-aurre zeukan sarrera ta amak egoaidera ikusi zuen Migeltxo atea ixten. Joxe Iñaxio ere etzala urruti izango pentsatu zuen.

Intxixuak ere ikusten zituen gaztearen lanak. Ez ordea Dardar. Au jauzi batean puñala zeukan besoa arrapatzen asi zanean, uste gabeen puñalari eldu zion. Orretzek salbatu zuen Bibote-Aundi.

Ordurako, arteera itxia zegoen barruan zegoe-lakoan billa asi ziranean, etzuten arkitu. Aldame-neko gelatik iges egin zien.

– Urdea aleena! Gelako leiotik atera zaigu. Suerte gaixtoa daukagu orratik! Goitik asi bagiña, bertan arrapatuko genduen.

– Bai ote gero? –erantzun zion emazteak, la-saitu xamarra–. Len ibilli da ori gela ortan. Bada ez bada, orduan utziko zuen zabalik.

– Ez da nik uste bezin tontoa. Ikaragarria ia gertatu zitzaigun. Deabru ori ez ote degu arrapa-tuko? Presakaegi asi naiz. Bestela, eutsiko nion. Naiago nuen zerbaitekin buruan jo banu. Orain, Anttoni, zoaz lotara. Zu ere bai, Migeltxo. Nik bueltaxka bat eman bear det.

– Kontuz, zai egon liteke ura atean.

– Bai. Gaurtik aurrera, erne ibilli bearrak gera. Ez dabil bakarrik. Sarean arrapatu gaitu: bestearen atzetik noala, sartu etxera. Eskerrak zuri, Migeltxo. Estuasunean bazera, axaizkiozu bi txakur aundi aiek. Orduan ikusiko da nola iges egiten duen. Anttonik bere eskuan eduki du gela-ko sarreran. Nai izan balu, josita utziko zuen. Baña ez du ortarako biotzik izan. Emakumea iza-ki. Ez dakit noiz izango degun beste olako auke-rik. Etortzea berandutzen badet ere, ez izutu.

Dardar, bakar-bakarrik, mendira erten zan.

## DARDAR TA INTXIXUA

Sumindua erten zan Dardar etxetik. Bi etsaiak eskuan eduki zituen, eta biak iges egin zioten. Ar-tegi ondokoak, bere ustez, etzeukan igesbiderik. Baña Migeltxoren oiua salbatu zuten. Etxekoak zituen lenengo. Bere emazteak barea bezela josiko zuen, nai izan balu. Baña utzi egin zion. Berari

ere berdin gertatu zitzaion, bizirik arrapatu nai orrekin. Ta presakaegi asi zalako, iges egin. Orain, nora etzekiela, bazijoan, etxekoak kezketan utzita.

Bereala ikusi zuen aldapak gora intxixua, sasi-bazter batetik eltzaorra arturik. An gorde ta etxera sartua noski.

Orpoz-orpo jarraitu zion, urrutitik. Ez aren beldur zalako, -bere arma galduta zijoan-, arek ikusterik nai etzuelako. Beti joan da joan aurrera, atzera begiratu gabe, intxixuak etzuen ametsik egiten ere, aren atzetik jarraika joan zitekenik. Baña Dardarri ere, berak asko uste gabe, norbait atzetik bazetorkion.

Ia bi orduko bidean, sasi, txara, arkaitz. Etzan ibilkari makala. Baña bide guzian etzuen bere bistatik galdu. Noizbait iritxi ziran arkaitz itxusi baten ondora.

Deabru ura, ordea, etzan txuxen bertara joan. Ortxe kilometroren bat errekan beera ta gora egin ondoren, sartu zan zulora.

Billatzen ere oso zalla zegoen. Ez baizuen aztarrenik uzten. Txakurrak, berriz, urean ezin usairik artu.

- Emen bizi ote da ori? -zion Dardarrek berekiko.

Elorri, urritz, sasi, txara, itxuan zegoen zuloa. Azkenean iritxi ziran bere sarrerara. Etzirudien arkaitz arek artesirik bear zuenik. Baña azpi-azpian arri aundi batekin estalia zeukan; ta apala, buru makur, sartu bearra. Basurde edo beste olako pixtiren batek, an zeuzkan gauzak lardaskatu ta ondatzeko beldurrak noski, itxiko zuen. Ura kenduta, buru-makurka an ezkutatu zan. Edozein gizonek ibiltzeko moduko arria ez, gañera.

- Orra ijito alper orren bizi-lekua.



Ar-zulo arek txikiagoak bazeuzkan inguruan. Aietako batean atsedentzeko asmoan zebilela, andik ertetzen zan arte, onean edo txarrean, areki-koak egin gabe etzala andik urrunduko, ordu erdi bat geroxeago, arri aundi arekin zuloa itxita joan zan.

- Ez dago gaizki. Barru ortan lo obeto egingo det.

Ta, sartu ondoren, ondo itxi zuen bere sarrera, Bibote-Aundik utzi bezela, arria ibillia zegoenik etzuela illunpetan ezagutuko-ta.

Egundokoa zuen bere barrunbea. Edozein sendi bizitzeko añakoa bai.

Egur-pilla gaitza zeukan bertara bildua. Su bikaña eginta joana zan. Tximinia zeukan ango arri-arte batetik gora. Baña eskerrak sua gauaz egiten zuen. Bestela, beeko baserrietatik ikusiko zuten, txaran gora zijoan kea.

Berak egindako arramarril zaar bat zeukan su gañean guritzen jarria. Suak ederki argitzen zuen barrunbe ura guzia. Jakiña, zoko illunak nonai gelditzen zirala. Aren dizdizera bai aztertu ere an zegoen guzia.

Zikiña benetan utsun ura. Ango ijito-usaia! Zorriak ere somatu zituen. Auek noski laxter itsatsi zitzaizkion. Sua baño beraxeago zeukan oatzea: belar-pilla ziztrin bat besterik ez, batere estalkirik gabea. Etzuen bearrik ere. An, udara ta negu, giro berdiña egingo baizuen. Etxe-bizitza ain zikiña zeukanean, nola ote zebillen bera? Urde baten antzera noski.

Oatzearen ondoan, mai txiki bat. Bere oñetan kaiku antzeko ontzi zikiña, odolez gorritua. Maia-ren gañean labain zorrotza. Auspo txiki bat ere bai maietik zintzilik. Beste burnizko ziri bat onen ondolik dilindan. Ura izango zuen bere burrunzi-

legea. Zertarako ote zituen tresna aiek guziak? Maia ta oatzea, atea ta suaren erdian zeuzkan, argiago izateagatik.

Ordu bete igaro ta etzan intxixurik ageri. Beldurrak artu zuen, sartzen ikusi ta ez ote zan bere etxe aldera joana izango. Bai benetan damutu ere ara sartua. Deabru arek begi erneak baizituen.

Zer egin etzekiela, ezin erabakirik, noizbait txixtuka zetorrela nabaitu zuen, eta txoko ezkutu batera gorde.

Beldurrak zebillela ederki nabarmen zegoen. Amar minutu baño geiago igaro zituen sartu nai ezik. Etzan berealakoan ausartu.

– Norbait ibilli da arri onekin –zion intxi-xuak–. Au ez dago nik utzi bezela. Aizeak, bada, etzuen ibilliko. Au mugituko duenik, inguru ontan bakarra dago: Dardar. Baña arek ez daki onen berri. Kezkati xamar geratu da ura etxean, eta zearo naigabetua, aren saretik iges egin detalako.

Urduri xamar zebillen gure Bibote-Aundia, ta amaika zalantza ibilli zituen, aurrera edo atzera egin.

– Pollita izango litzake Artza or barruan edukitzea nere zai. Aren atzaparretan erortzen bainaiz, nereak egin du. Len ere larri ibillia naiz.

Au dena entzuten zuen besteak barrendik.

– Ez dabil bera ere orratik leku seguruan –esanta, sartu zan azkenean, arkume eder bat besapean zekarrela, lotua baizekarren.

Lurrean utzi ta oatzepean zeukan puñal berria artuz, barrunbe artan bueltaren batzuk eman zituen. Etsaiaren inguru xamarreraño iritxi zanean, norbait bazegoela oartzen bazan, etzion pentsatzeko ere betik utziko. Jauzi batean lotuko zitzaion Praixku, puñalarekin beldurgarria baizan. Etsi zuenean, arkumea artu ta maiera joan zan.

- Urdea aleena! -zion Dardarrek-. Etzera gaizki bizi, arratsean danborra jo ta besteren bordatik arkumeak ebatsi ta janaz. Egun guzian gero, zerri batek bezela, zakua ondo beteta, ar-zuloan lo. Mantentzen zaitun Basajaun billau arek ditu erru guziak. Zaude, zaude pixka bat!

Bildotsa artu maiaren gañean, eta, an zeukan laban zorrotzarekin zintzurrean sastako bat eman zion. Erru gabeko arkume gaixoak, ostiko batzuk emanaz, maieko kaiku zikin artara ixuri azken odol-tantoraño, bere bizia galduz. Eta bereala, be-roa zegoen arte, anketatik eta besoetatik laban txorrotx arekin larrua ebakiz, maian zintzilik zeukan auspoarekin aizatu zuen. Gero sabelpetik luzerik-luze larrua ebakiz, gure arkumea zuritua geratu zan. Ondoren, jango zituen puskak berexiz, ortxe arkume erdia su gañean guritua zeukan arramarrillaren gañean ipiñi zuen.

Ura arramarrillan zegoen bitartean, bere sabelari begiratu bat egin zion. Lau zulo txiki ageri ziran, oraindik odoltsuak.

- Orra nere emazteak egindako lau arramaskak. Etzenduen asko palta, sardean sartuta geratzeko. Neke auek guziak aurreratuko zizkidan.

Atzera egin zuenari eskerrak. Bestela, ondoraño sartuko zitzaizkion.

Ontzi batetik espiritu pixar bat artu ta arekin garbitu zituen lau zauriak. Axalekoak ziran noski, baña minbera xamarrak.

- Artzaren emaztea ere artza izaki. Ez nuen asko palta, barea bezela zulatua lau ortz aietan geratzeko -zion Bibote-Aundik.

Gero, galtzak jetxiz, buruarekin atzera begiratu ta eskuakin pallakatuz, ala zion, alako «otx!» bat esanaz:

- Nere ipur-masallak minberak daude. Asto

madarikatua! Ez didazu nolanaiko zanpetakoa eman: jo ta seko bei artera.

Dardarrek ixilik par egiten zuen:

– Gure astoaren ostikoa izango du ori.

Arkume errearen usaiz bete zan barrunbe ura guzia. Bai Joxe Iñaxiok esan ere:

– Zatitxo bat jango nuke nik ere ortatik.

Gosetua baizegoen.

Erre zuenean, oatze ondora joanta, zagi ardoa ortxe ogei bat litrokoa, oraindik asi gabea, anpatua, aldamenara ekarri ta asi zuen aparria, tartekata, tarteka zagi aundi artatik edanaz, zenbaitek zato txikitik bezin aixa, zorrotan.

– Ez dizu arkume orrek onik egin bear –berekiko esanta, zoratuena ari zan orduan, ixilixilik atzetik joan ta bizkarrean ukuitu zuen Dardarrek.

– Kaixo, Praixku! On degizula! –esan zion–. Arkumea goxoa al dago?

Eskuetan zeukan puska mai gañean utzirik, jauzi bat egin zuen, beldurrak aidean, aopean esanaz:

– Dardar, ala jainkia!

– Bai. Uraxe bera.

– Nondik sartu zera onuntz?

– Orixe galdera! Zu etorri zeran lekutik.

– Oneraño bidea nork erakutsi dizu?

– Zerorrek. Zuri jarraitu besterik ez det egin.

– Antz eman diot, bai, norbait arri orrekin ibilli dala.

Beldurrak zegoen intxixua Dardarren aurrean.

– Bizia maite badezu, aldegin zazu emendik! Bestela... –oiu egin zion, arkumea il zuen laban zorrotza artuz.

– Pakean utziozu laban orri. Zuk besteren etxean sartzeko eskubidea edukita, nik zergatik

ez? Oraintxe bertan joango naiz, guri pakean utziko diguzula zin egiten badezu. Baña ez emen nerekin txarrean asi, ni nor naizen badakizu-ta. Ez det txerri-toki onen bearrik. Ertengo naiz, baña konponketa bat eginta. Bestela, zu botako zaitut zuloan beera. Ez nator zu galtzeko asmoan. Exeri zaitte ta jarrai zazu lasai jaten, nere baldintzak jarri artean. Zuretzako arrazoizkoak badira, konponduko gera. Arazo au erabaki edo zurekikoak egin gabe ez naiz emendik joango. Zuri baño askozaz gorroto geiago diot Basajaunari. Ari ez diot sekula barkatuko, aurrean belauniko jartzen bazait ere. Ura ez da lurraren gañean egon bear luken gizona. Badakit errurik geiena arek daukala, sari emanaz gizon iltzera zirikatuz. Nik ura nai det. Ez zu. Etzabiltz zure gogoz eta ez det uste iltzeko lantegi au oso atsegin zaizunik. Nolabait bizi bearra ta arek katean lotu. Orain zalla da zuretzat morrontza ori auste. Ordaindu gabe edukiko zaitu, ta besteren bat arkituko du zu iltzeko ere. Onuzkero badezu ortan naiko eskarmentu. Zuk asko dakizu, ta zure mingaña ere ixildu erazi naiko du, nerea bezela. Orregatik, zu galduarekin ezer gutxi aurreratuko det, ura bizirik geratzen bada. Beste Bibote-Aundiren bat erosiko luke. Munduan zear nonai badira olako eroskak, diruarengatik aita bera iltzera eskeñiko lirakenak. Ez nator, bada, beste egitekorik gabe, zure billa, konponketa bat egitera baizik. Komeni zaizun edo ez, ondo pentsatu.

Dardar sarrerako zulora atzeka zegoen. Bibote-Aundi, aurrera. Orduan sartu zan norbait ixilik barrura. Onak ikusi zuen; baña arek ez.

– Zurekin konpondu? Ez da errega izango.

– Nere baldintzak or daude. Ez dizut besterik eskatuko.

- Zer sari ematen didazu?

- Saritu? Nik ez beñepein. Gizonak iltzen dabilenari, urkamendia; ez dirua. Nola itxutu zera ortaraño, nere emazte ta seme-alabak galtzera joateko?

- Bizi bearra, Dardar. Bizi bearra guk ere.

- Eta besteak ez al daukate zuk ainbat eskubide? Odol-saritik bizi nai al dezu? Ortaraño erori al zera? Ortaraño iruzurtu al zaitu Basajaun urde orrek? Ez daukazu, arrainoak ez badu, gorputz, osasun ta adin txarra, beste era batera zure bizi-modua ateratzeko. Oraintxe jarriko dizut aukera, ala nai badezu beintzat. Zure nagusi ori nai nuke. Orren atzetik nabil. Neri egindako guziak barkatzen dizkizut. Arrapatzen bazaituzte, or konpon. Eriotz oiek zer merezi duten, badakizu. Bizia maitagarria bazaizu, esan non arrapatu nezaken bakarka Basajaun ori, Jainkoa beste lekukorik gabe. Epaillearen aurrean pozik salatuko nuke. Ez daukat ordea testigurik. Nik baño eldu-leku obeak dauzka arek. Ez det zalantzik egiten, ura galdu ezker, zurea ere egiña legokela.

- Eta zer egin bear diozu?

- Eta zer egingo lidake arek, egokieran arrapatuko baniñu?

- Nere ustez, ebatsi zenion kontrabando-kaja kendu.

- Ori da erantzuna! Oraintxe ordu batzuk, ni ez banintz garaiz etorri, zer egingo zenien nere emazte ta seme-alabei? Orixe berbera egin bear nizuke orain zuri ta gero ari: nere atzaparretan ito.

- Orduan zuk ere odol-saria ontzat artzen dezu?

- Ni ez nator odol-sariaren billa. Ez diot iñori orren ordañik eskatuko. Zuzen erru duenarengana noa. Ez, zu bezela, diru-truk errugabeko uxoa

iltzera, nerekin ezin dezulako. Gudan gabiltza. Berak eraso zidan eta lenbailen bukatu nai nuke. Ortarako arrazoi osoa daukat: nere burua babesteko. Ez, zuk bezela, eraso ontan zer ikusirik ez daukatenak diruagatik il.

- Arek dizkidan zorrak nork ordainduko dizkit?

- Deabruak, -ari serbitu baidiozu-, ez luke besterik eskatuko: egin dituen gaixtakeriagatik, zerrua. Zu or konpon zaite arekin. Bestela, ebatsi dezun arkume orrek ez dizu on aundirik egingo. Auzi au erabaki arte ez bainaiz emendik ertengo. Gau ta egun nere maiteak eta interesak ezin zaindurik ez gera ibilliko. Zer diozu? Komeni zaizun edo ez, ondo pentsatu. Bizia daukazu jokoan. Konponduko bagiña, nik pozik barkatuko nizuke. Ez diot iñori gaitzik egin nai. Benetan maite det, nereza ezik, besteren bizia ere.

Urduri zegoen intxixua aren aurrean. Burua makurtuz, ixillune baten ondoren, ala erantzun zion:

- Neri pakean uzten badidazu, esango dizut non arrapatuko dezun: len bizi ziñan erri txiki artako ardangela batean. Zuek askotan joaten zerate ara. Arratsaldean, zortzirak inguruan, etortzen da ango tranpizko zulora, baña atzeko basotik. Esandako orduan an zeleta egiten badiozu, bakarrik arrapatuko dezu. Baña erne ibilli: beti armatua dabil.

- Aren armagatik batere ez dit ajolik. Egia ote diozu gero?

- Elkarrekin izketan ari geran bezin egia.

- Eskerrik asko.

Eskua luzatu ta atzea eman zion orduko, ixilka sartu zan gizon arek egur batekin indarrean bu-

ruan jo zuen, eta gure Dardar, balantza batzuk egin ondoren, korde gabe seko lurrera erori zan. Onegia izanak galdu zuen.

## ERRIKO JAIAK

Mendi artan eriotzak asi ziran ezkerro etorkiñak asko atzeratu ziralako, Don Lukasek, gizon aberats sonatua ta erri txeak asko maite zuenak, jai aiek ondo ospatzea nai zuen. Dardarrekin burrukaldi bat antolatu. Baña onekin okertu zalako, beste zerbait pentsatu beariko, erriaren ta etorkiñen ederra egiteko. Gogotsu eraso zion bere lanari.

Egundoko jaiak egin nai zituen. Basajaunak aginduta noski, errira bear zan guzia bere mutillak ekarriko zutela andik edo emendik. Mandioren batean naikoa edukiko zuten pillatua ordurako.

Ortarako, udaletxera joanta, endoreari agertu zizkion bere asmoak.

Udaletxea etzegoen, ordea, oso diruz jantzia. Egun batzuk lenago ugolde gaixtoak izan ziran. Kalte aundiak egin zituen errian. Oraindik lokatzez betea zegoen. Zerbait balio zuena, urak eramana. Sendi bat ere bazan, etxea erori ta galdua. Udaletxeak, aurreratuak zeuzkan diru pixarrak txautu zituen erria garbitu ta martxan jartzen. Etzeukanak, bada, ezin eman.

Endoreak ere semea il berria zuen. Mendian intxixuak il zituen gazte aiek ere, oraindik etziran



aztu. Etzegoen, bada, erri txiki ura jolaserako. Naigabea ugari ta diru gutxi.

- Endore jauna -esan zion-, jaiak gañean ditugu. Nik aundikiro ospatu nai nituzke. Etorkin asko azalduko dala badakit, eltzaorra entzun ta Dardar ori ikusi nairik, -idien orde z bera aritzen dala goldean zabaldua baidago-, ea zer moduzko gizona dan ori.

Dardar arrapatu baño bi egun lenago ziran kontu auk.

- Erri au ez dago jai berexiak egiteko moduan. Or bota bear dan dirua, obe degu kale gorrian geratu diranei ematea. Nik dolua daukat. Erriak ere, aurten il diranekin naiko naigabea badu. Ta, jai ortatik irabazia badatorkizu, bota nai dezun ainbeste. Udaletxeak ez dizu eragozpenik jarriko. Baña berak ez dauka ortarako modurik.

- Oraindik ez degu olakorik entzun -erantzun zion asarre Don Lukasek-. Erria etorkiñez beteko zaigu, ta txistulari xingle batzuk ere ez dituzula ekarriko. Zure patrikari dirurik ez datorrelako, ez diozu jendeari asko begirutzen.

- Ajola die etorkiñei txistulari batzungatik. Erriaren onagatik datozela, uste al dezu, oiek? Udaletxean ez naiz ni bakarra. Besteak ere badaukate bere autitz ta beren iritziak azaltzeko eskubide osoa. Egin genduen batzarrean, denok ortan geratu giñan. Eta denon arte osatzen degu udaletxea. Galdeiezu aiei, ea jai berexirik egin nai duten. Etorkin oiekin aspaldian aspertuak gaude. Len maiteak nituen, zerbait bazekartelako. Orain, biraoa ta zikinkeria ugari. Zu ere etzabiltz erriaren alde. Mokadu goxoren bat aterako dezun itxaropenetan bai. Nik bezela, erretoreari galdetuko bazenio...

- Utziozu pakean erretoreari. Zuk jotzen digu-

zu adarra! Erriko jaiak nolakoak izan bear duten, arek erakutsi bear al digu? Arek zertan nasturik bai al dauka erriko jaietan? Ura sar dedilla elizan, bai, ta kito.

– Erretorea norbait bada errian. Zu bai etzerala iñor. Zertan zatoz onera zure iritziak jarri nairik? Ari ere entzun bearra daukagu. Emen geienak aren aolkuei gogotsu jarraitzen diete. Naiago nuen nik ere entzun banio. Etzan nere semerik mendi ortan galduko. Ari ez ta zuri bai? Zertaz daukazu zure burua? Edo zer nai zenduke: Udaletxeak ordaindu ta zuk nai zenduken bezela jaiak antolatzea? Erretoreak ez digu esan jaiak nolakoak bear diran, kontuz ibiltzeko baizik. Erri ontan santu-itxuran dabiltzanen batzuk ez dirala gari garbiak.

– Kontrabandorako bideak moztuta irabazirik gabe utzi ziñuzten ezkeru, beste bat zera zu orain. Ez dezu erriaren onik billatu nai. Patrikarako bakarrik.

– Ez dago orixe etxerako gaizki esana. Len ere esan dizut seme illaren naigabea biotz-muñetaraño sartua daukadala, ta errespetatzeko nere samiña. Lagun batek besteari emateko, arrazoi koxkorrak dira oiek, Don Lukas. Lendik gure artu-emanak oztu xamarrak badaude ere, ez dira orrela asko berotuko. Erri au zuk ainbeste maitatzen ez da zalla. Zer nai zenduke: errian ugoldeak utzitako diru pixarrak bertakoak ez diranei eman ta erria kale gorrian uztea? Neretzat au da lenengo. Kontrabando-kontua arpegira botatzen didazun ezkeru, ortan ere badaukat zuri zerbait esan bearra. Ta, itz-bidea eman didazulako, or dijoa: Esan didatenez, erri ontan dago nere semeak iltzeko agindu zuena.

– Nor da ori?

– Baneki, ez litzake luzaroan aske geratuko. Baña denborarekin dena azalduko zaigu. Aren leporako ez da erri ontan sokarik paltako. Erri ontan run-run aundia dabil, bateko Basajaun, beste-ko ez dakit nor. Baña egia azalduko da. Errexa da ori Dardarren bizkarrera botatzea. Gero ta sinistuago nago iñoxentea dala ortan, ta erri ontako gizonik jatorrenetakoa.

– Eta zuk noren zalantzak egiten dituzu?

– Ori, ziur jakin arte, nere barruan egosiko da. Baña jakiten detanean, norbaitek larrutik pagatu bearko du.

– Dardar, aspaldian aztua bear zuen erraldoia, zuek nor izan baziñate. Or ez dago ori beste intxixurik.

– Zergatik orren aurkako gorroto ori? Zer egin dizu orrek? Orren bizkar diru-putzu galanta egin ondoren jarraitu nai ez duelako ote da? Bere mingaña moztu nai zenuteke, egirik jakin ez dedin edo?

– Orain ta beti esango dizut ori dala emengo intxixua. Gizon ori ez da beñere nere arazoetan nastu, nere berri jakiteko.

– Ez dakit intxixua nor dan. Baña zuk orri arrazoirik gabe diozun gorrotoak, zer pentsatua ematen dit. Ori ez dala intxixua esaten duena bada erri ontan, eta ez det uste gezurretan dabilenik.

– Jakiña: erretore jauna izango da ori. Ondo sinisbera zera, txoro orren ipuiak fedeko egiak bezela artzeko. Itzaldi garratz ura entzun zendue-  
nean, etzenduen orrela pentsatzen. Errenkura uga-  
ri entzun genduen.

– Orduan min eman zidan benetan. Zuri, be-  
rriz, poza, esan zidatenez, nere lagun berexia ziña-  
la aitortzen bazenduen ere. Baña ondorenak, arek

igerri bezela etorri dira: eriotzak eriotzaren gañean. Ondo damutua nago, etorkiñei egin nien arrera beroa emana.

– Irabaziak bukatu ziranean, atzera egin zenuen, erri-maitasunez aztuta.

– Ori ez da egia. Semea galdu zitzaidalako bai. Nor baita ere, intxixu madarikatu orrek illa. Arrazoirik miñenak ematen ari zera. Len ere esan dizut.

– Badakit. Baña Dardarrek illa.

– Ez det uste. Beste semeak askotan ikusi du ori geroztik. Iltzalleak etzuela orren antzik ere esan zidan.

– Bai; bibote aundiak zituelako. Oiek eransten errexo da.

– Ez, orregatik. Aulagoa zala ta sudur luzea. Bestea, berriz, sudur motza da. Bai. Kontrabandoa egin nuen. Ederki damutu ere. Nere lekuan egon baziña, ez ote zenuen beste orrenbeste egingo? Zergatik ote zabiltz orren arretatsu, erria maitate dezulako? Zure emazteak, nereak ezik, olako astakeririk ez luke sinistuko. Ez dakit emengo kontrabandoa noren eskutik dabillen, erriari lapurrera gaixtoa egiñaz beñepein. Ori ote da erria maitatzea? Nonbaitik ikasiko degu gertakari auen berri. Uraxe bai lur jota geratuko dala. Urteetako zergak ordaindu bearko ditu, epailleak ematen dion zigorrez gañera. Oraingotik ez gera txorakeritan ibilliko.

– Zu ere asko ordaindu gabe ibilli ziñan.

– Bai larrutik pagatu ere. Ezkutu auek denak Dardarrek garbituko dituela dio erretore jaunak. Orduan izango dira ixtilluak.

Don Lukas maltzurra zan, ta bazekien, endorearekin asarretzean, geiena berak galduko zuela; ta ala erantzun zion:

– Umeak bezela emen ari gera gure tatxak elkarri eransten. Nik benetan jakin nai nuke, etorkiñen onerako ezer berexirik jarriko ote dezuten.

– Bai. Badezu noizbait arrazoitara sartzeko ordua. Jaiak beti bezelakoak izango dira. Ez degu erria baraurik utziko. Baña berexirik ez. Erria ez dago geiagotarako. Norbaitek, beretik jarrita, zerbait egin nai badu, erriaren zergak ordaindu ezkerro, nere ta udaletxearen baimena badauka.

– Ondo dago –esanta, asarre xamar aldegin zuen andik Don Lukasek.

Intxixuaren buruari saria jarri zion ezkerro, elkarrekiko artu-emanak oztu ziran.

Endoreak, bere ondamena ezkerro, andik eta emendik berri asko ikasi zituen. Batez ere, bere ondamenaren erru zuena Basajaun zala; kontra-bandisten burua, alegia. Ori nor zan ikasteko, sakon-sakon aстера zijoan erriko azterketa: zer zetorren, nondik zetorren. Etzuten geiago erriaren bizkar patrikarik beteko. Epailleak eta biak bat egin zuten orain. Bien arte ixilik lan egingo zuten. Erretorea ere etzan atzera geratuko. Erria diruzale oietatik askatu arte, etzuten onik izango.

Bigarren jai-egunean, Don Lukasek ikasi zuen Dardar intxixuaren eskuetan erori zala. Aren atsegiñak etzuen neurrik. Aztu zitzaizkion jaiak eta etorkiñak. Txuxenean endorearengana joan zan.

– Nik arrazoi ez banuen ere –itzetik ortzera oiu egin zion–, Dardar arrapatu dute bere eltzaor ta guzi pagadi ondoan.

– Zorionak. Ura bada intxixua, berea artu gabe ez da geratuko.

– Artu du noski berea. Ez omen zuen errenditu nai, ta illa izan bear dute. Biar, jaien bukaeran, arratsaldean, ekartzekotan dirala uste det.

– Ori egia bada, epailleak jakingo du intxixu oiek nor diran.

– Garbi ez dago, bada?

– Ez neretzat ta epaillearentzat.

Berri au bereala zabaldu zan errian. Jendearen pozak etzuen neurririk. Jaien bukaera bai zogarra.

– Azkenean Don Lukasek iritxi! Ori jarri bear luteke emengo endore!

Bazkalondoan jetxiko zuten, bada, intxixu ori. Erretoreak-eta ez bazuten sinistu nai ere, azkenean ori izaki orko gizon-iltzallea. Don Lukasek arrazoi atera. Jendea zoratzen zegoen eltzaorra ori zer zan jakiteko.

## ETXEKO UTSUNA

Jaiak bete-betean, erri txiki ura bere galgatik aterea zebillen, Dardar ta intxixua bazanik ere oroitu gabe. Baña Anttoni ta bereak naigabetuak bizi ziran. «Bueltaxka bat egitera noa» esanta joan zan. Baña goizerako azaldu etzanean, Anttoni kezkatu zebillen.

Artzaiak joanta, mendi aiek utsak zeuden. Ez, ordea, Anttoniren biotza bezin uts. Bai; etxea ezik, aren barrenak ere illunak zeuden benetan, eguzkirik sartzen ez dan mospela baño goibelago.

Bere biotzeko maitea galdu duen batek jakingo du noski orren berri. Ezerk ez dio pozik ematen. Ezerk ez du lasaitzen. Dena illuna da arentzat. Aren ondoan len ona iruditzen zitzaiona, txarra

da orain. Auts biurtu zaio dena. Bizirik gabeko otza arkitzen du, len arek bizi erazi ta berotzen baizituen. Puska guziak artaz itzegiten diote. Denetan aren aztarrenak ikusten ditu. Baña bera palta, eta egun eta gauaz artaz pentsatzen. Zalantzik gabe, ala ibilliko zala Anttoni.

Ura palta zalako biotza uts ta bildurrak aidean, senarra galdu bazuten berak ere galduak zeuden, beraren iritzian beñepein. Seme-alaba txikiak zerbait betetzen zioten biotza, aietan ikusten zuen senarraren aurpegia-ta.

Erriko jaiak ziranik, etziran oartu anai-arrebak. Biak lanpean ta kezketan. Arratsak, beñepein, beldurrak aidean.

Intxixuarekikoak eginta goizerako etxean izango zala itxaropenetan zeuden. Baña azaldu etzanean, zalantza larria sartu zan etxe artan. Ea bestea ondatzera joan ta bera galdu zuten... Ederki geratuko ziran orduan, esku ta oñak loturik, intxixuaren mende. Etzitzaion bere senarraren arrokeririk batere gustatzen, sudurreko aizearekin denak aidatuko balitu bezela mintzatzen zan-ta. Besteak ere amaren semeak izaki. Ta gutxieneko bi baziran, berak ikusi zituen-ta.

– Ura ez bada etortzen, zer egin bear det nik?

Eta negarrari ematen zion.

Migeltxo etzegoen orren eroria. Onek etzuen, alderatzekorik ere, oraindik etsi. Nork zekien Bibote-Aundi non biziko zan? Agian, andik egun erdiko bidean, joan-etorrian ere berea bear zuela. Illabetean ez bazan azaltzen ere, arek etzuen itxaropen osoa galduko. Presa geiegirik gabe egingo zuen bere lana.

– Migeltxo –deitu zion arrebak urrengo goizean, jeiki orduko–. Osaba ez da ageri, ta orain zuk egin bearko dituzu emengo lanak. Non ote

dabil edo zer gertatu ote zaio osabari? Ezeren okerrik ez izatera, arek goizerako etorri bear zuen -zion Anttonik, bere malkoak ezin txukaturik.

- Nere kezkek ez eduki. Beti bezela, alegiñak egingo ditut. Eta lasaitu zaite, gutxiena uste degunean etorriko da osaba-ta.

- Eskerrik asko, Migeltxo. Ez dezu egon bear aundirik izango. Nik ere zerbaitetan lagunduko dizut, betik izaten badet. Zure lasaitasun orrek ez du gutxi balio. Naiago nuke nik ere, orrela banengo.

- Len ere esan dizut lasaitu zaitezela. Oraindik ezin genezake etsi. Gutxiena uste degunean etorriko da osaba.

- Jainkoak ala nai dezala. Bestela, leku onean geratzen gera. Gizon kankallu ura bere puñalarekin aurrez-aurre ikusi nuen ezkerro, izutua bizi naiz.

Migeltxok artaldea atera zuen betiko lekura. Ukulloko lanak egin bitarte, bakarrik geratu zan, txakur txikiaren mende. Anttoni, berriz, bere lanetara. Arek ere etzeukan zer egiñaren paltik.

Orduak joan alean, larriagotzen zijoan Anttoniren biotza:

- Bizi ote da edo non ote dabil? Agian, zauritu ta bazterren batean, etxera ezin etorririk, gure bear gorrian.

Bazkalondoan anaiak ala esan zion:

- Ardiak larrean dabiltz eta, bada ez bada, txakur aundi oietako batekin bueltaxka bat egin bear det mendi alde ortan barrena. Agian, zauritua ere arkitu liteke.

- Ederki pentsatua, Migeltxo. Baña etzazu osabak bezela egin: bueltaxka bat egitera joan ta azaldu ez.



Goiko pagadi ta inguru aiek aztertuagatik, an etzuen iñoren aztarrenik billatu.

– Non arraie gorde ote dira oiek? –esan eta bere lanetara joan zan.

– Ez al dezu ezeren arrastorik arkitu?

– Ez. Bizia edo illa, ura ez da inguru auetan. Bestela, txakur onek billatuko zuen.

Illuntzerakoan, ala esan zion berriro Anttonik:

– Zabalik dagoen ta zuek sartu ziñaten leio ori itxi bear dezu lenbailen. Bestela, ortik sartu liteke intxixua. Atea ere, bere atalai ta guzi utzi bearko degu. Ni orren beldurrak aidean nabil, Migeltxo. Bein ura, ikusi nuen ezkeru, ausardi pixar bat geiago eduki banu, bertan josten nuena.

– Bai, arreba. Apalondoan, denak egingo ditut. Txakurra ere kanpoan utziko det. Orrek nabaitu gabe, ez da eulirik ere sartuko etxe ontara. Sarde zorrotz bat badaukat nere gela ondoan. Sartu nairik ausartuko balitz ere, osaba emen ez dala oartu ezkeru, beste edozeñek egingo luken lana, barea bezela josiko det. Ez dute gurekin nai dutenik egingo. Guk badakigu ori nondik datorren, ta barruko berri ere bai. Baña orrek ez daki. Zuk ere ondo itxi zure gelako leioa. Andik atera zan, ta agian, etortzen bada, andik asiko da sartzen.

Jakiña: Migeltxo ere beldurrak zebillen. Alare, bere arreba xuxpertzegatik, ausardi ta arro itzegiten zuen.

Erriko jaien lenengo eguna joan zan. Iru egun Dardar palta zala. Gero ta larriago zeuden anai-arrebak.

Migeltxok artegia ta etxea, biak zaintzen zituena, ta illunabarrean joan zan artegira. Gau erdi aldera nabaitu zuen norbait. Lotuta zeuden txakur aundi aiek asi ziran zaunkaka. Garbi-garbi ikusi ta ezagutu zuen Bibote-Aundi.

Au, ordea, etzan sartzera ausartu. Txakur aundi aiek beldurra sartu zioten, eta ikusi zuen Migeltxo ere an zebillela.

– Erbiñude ori emen dabil. Txakurrak axatzen badizkit, txikituko naute.

Ta, etorri bezela, esku utsik aldegin zuen.

Zearo eroria geratu zan gaztea:

– Orra beldur genduen! Urde oiek nere osaba galdu dute. Zer egin bear degu orain? Dena utzi ta aldegin bearra. Arrebak, jakiten duenean, ez du egun bat ere geiago emen igaro naiko.

Arratsa igaro ondoren, artaldea larrera atera ta etxera etorri zanean, Anttonik ezagutu zuen Migeltxok aurpegi illuna zeukala, ta negarrez aritutako itxura.

– Gaixo ote dago? Orixe bear genduke orain!

Sukaldera etorri zanean, ala galdetu zion:

– Gaixo al zaude?

– Naiago nuke, ala banengo.

– Orduan berri txarren bat ikasi dezu. Zu negarrez aritu zera.

– Bart Bibote-Aundi ikusi det bordara sartu nairik. Baña txakurrak zaunkaka ta ni an ikusi nauenean, igesi joan da.

– Orduan Joxe Iñaxio galdua izango dute.

– Nik ori ez dakit. Baña intxixua bizi da.

– Leku onean geratu gera oraintxe!

Ta, bi eskuakin aurpegia estaliz, negarrez asi zan. Migeltxok ere lagundu zion.

– Zer egin bear degu orain? Nere eskuan eduki nuen intxixua. Sardeari indar eman banio, antxe geratuko zan.

– Alperrikako negarra da ori. Osabak ere, arrapatzen asi bearrean, makil batekin buruan jo izan balu, antxe seko eroriko zan. Orain zer egin

bear degun, ori daukagu lenbailen erabaki bearra.

– Bai. Ezin gintezke gu emen bizi.

Olaxe, zer egin ezin erabakirik ari zirala, ateak zabalik zeuden. Txakurrak ere nabaitu gabe, aurrez-aurre jarri zitzaien, biei begira, Bibote-Aundi.

Migeltxo, leiotik jauzi bat eginta, ezkutatu zan andik.

– Erbiñude alu ori ez ote det nik arrapatuko?

Anttoni bakar-bakarrik geratu zan intxixuarekin, etsia, daldaraka.

– Zure billa nator –esan zion.

– Zer ikusi daukazute zuek nerekin?

– Zure Artzak eskatu digu, il baño len zurekin itzegin nai duela.

– Eta ez badet nik joan nai?

– Indarrean eramango ziñuzket.

– Nik zuri barkatu nizun. Ez al dezu zuk beste ainbeste egin bear?

– Ni itxua naiz. Ez det nagusiaren agindua besterik egiten.

– Urde galantak zerate zuek. Badakit ez naizela geiago etorriko.

– Uste det egia diozula. Aur oien billa azalduko naiz gero.

– Aurrak ere bai? Deabruak aleenak! Zer txarrik egin dizutegu?

– Gu langilleak gera. Ori nagusiak jakingo du.

– Ez daukat orduan igesbiderik?

– Ez. Onean edo txarrean eraman bear zaitut.

Gogor egitea okerrago izango zala-ta, bere seme-alabatxoei muxu bana emanaz, berriz ere an ikusiko zituen, ixilik, baña negarrez, aldapa gora artu zuen intxixuaren mende. Basajaunaren gorrotoak etzeukan neurririk.

Aiek aldapan gordetzen ikusi zitueneko, iru

aurrak artuta, bi oñez, bestea pixoialetan, oraindik besoan, txuxenean errira jetxi zan Migeltxo.

Alkatearen etxeko atea jo zituen. Emaztea er-ten zitzaion. Itz bitan kontatu zion gertatzen zana.

– Utzi aur auek nere etxean. Nik zainduko ditut.

Alkateak, gertatzen zana jakin zuenean lau ertzain bialdu zituen Dardarren etxea zaintzera.

## DARDAR

Dardar, buruan jo ta korde gabe eroria utzi genduen, Bibote-Aundirekin ustez pakeak egin ta ertetzera zijoala bigarren batek atzetik emana.

Lurrean zegoen lekuan bertan iltzea nai zuen intxixuak. Baña lagunak etzion utzi: Basajaunek bizirik ikusi naiko zuela ta agian luzaroan lotua eduki, bere gorrotoa asetzeko.

Lotu zuten, bada, eulia armiarmak bezela, eta zoko batera bota, baldeka ura arpegira ixuriz, bere onera etorri zedin.

Txoria baño alaiago zeuden biak, sari eder bat jasoko zutelakoan.

– Ondo lotu degu noski. Orren indarrak neurri gabeak dira gero... –zion piakaitz Bibote-Aundik–. Biotz-biotzera labankada bat emanta, orduantxe lasaituko nintzake ni, illa ikustean.

– Lotura oiek autsiko dituen elefanterik ez da jaio.

– Zu ziur al zaude sarituko gaituela? Basajau-narekin ez naiz batere pio, zor diguna ez or-

daintzeagatik, gu garbitzeko beste norbait ez ote duen billatuko. Dirua eman bear ori mingarri zaio gure nagusiari.

Dardar, bere onera etorri zanean, arrunt eroria zegoen. Askatzen ote zan probak egin ondoren, igerri zion alperrik zirala bere indarrak.

– Oraintxe bai nere burua galdu detala. One-gia izan naiz. Txoro-txoro sinistu diot dena. Banekien, bada, nik gutxieneko bi bazirala. Ni baño erneagoak dira oiek. Bigarren ori nondik sartu ote da? Ori etzegoen barruan. Onek sarrera bat baño geiago ote dauzka? Gu sartu geran txulotik etorri-ko zan, izketan ari geran bitarte. Bigarren urde ori da, nik tirabidean ibilli detana. Agur, nere bizia, Anttoni, seme-alaba ta beste interes guziak. Denak garbitu arte ez dira geratuko. Ez baidaukate babesik. Bitan batek galdu bear zuela banekien. Ori ere neri tokatu: erru gabeari. Egun baten bu-ruan, lurbira ontan olako zenbat gertatzen ote da? Iñoxentea negarrez eta bere borreroa parrez. Zer egingo didate, il baño geiago? Jaungoiko maitea, zuk badakizu, bada, ni erru gabea naizela. Zertan utzi bear gaituzu maite zaitugunok orrela galtzera? Aingeru guardakoa, zu ere non zabilta, ni ortara ikusi ta ez laguntzeko? Beti izan naiz ni zure agin-duetara etzana.

Igerri baizion, mirari batekin ezik, arenak egin zuela. Eziñaren eziñez, negar egiten zuen amo-rruz, ume batek bezela, munduko indartsuenaren beldurrik etzeukan gizon gazteak.

– Ez didate sarea gaizki zabaldu. Ni baten atzetik noan bitarte, bestea etxera sartu. Emen, berriz, bertan jo ta illa utzi bearrean, jolasean el-ka-izketan ari geran bitarte, besteak buruan jo. Beldur nintzan, bai, bat baño geiago izango zirala. Orain, Dardar, alperrik dira zure negarrak.

- Ai gizarajoa! Gizarajoa zu! Ni eroska omen nintzala, buru gabea. Arri koskor bat aski zenuela nere kikoak egiteko. Orain bizia ta zure maiteenak nere mende daude. Nai detanean ilko zaitu. Bai aiek ere. Baña Anttoni bear det jolaserako. Indarra galanki bai; baña burua palta -zion Bibote-Aundik.

- Zu baño erneagoa badabil, bai, or tartean. Zuk etzenduen bestela danborra jo besterik egingo.

Erantzun ordez, lotuta zegoenari, *zapla!*, masal-leko bat eman zion.

- Ez badidazu erantzun oberik ematen, ikasiko dezu norekin zabilzan.

Dardar ixildu egin zan. Bere burua babesterik etzeukan ta askoz obe zuen.

- Ai! Ni emendik askatzen banaiz, igerriko diozu Dardar nor dan -zion berekiko amorruz onek.

Bigarren ura ere ezaguna zuen: elkarrekin kontrabandoan ibilliak.

- Billaua aleena! Zergatik jarri ote da aurka? Ez dago mundu ontan iñorekin piatzerik.

Arrats artan bertan, arkume bat ebasteke asmoan joan zan Dardarren artegira. Baña ango zakur aundi aiek zaunkaz nabaitu zituenean, eta Migeltxo erbiñude ura an zebilela ikusi, ixil asko aldegin zuen, ta arkumerik gabe etorri zulora. Len sobratutako pixarrakin apaldu zuten.

Umore txarreko zegoen Bibote-Aundi, ta ala esan zion lotuta zeukanari:

- Zure bordara joan naiz, arkume bat ebasteke asmoan. Baña erbiñude arek ez dit utzi. Txakur aundi aiek beldurra sartu didate.

Bigarren arekin itzegiteko zoraturik zegoen Dardar. Bere aurrean lotsatua bezela baizebillen.

Inxixuagatik jarritako ontzako urreak eskeñiko zizkion, berdin Basajaunek emanta etzuen ainbestetik artuko-ta, askatzen laguntzeagatik. Baña etzan urbiltzen. Beti igesi zebillen bere begietatik.

- Zer egingo ote didate aukerari? Geieneko il, ta lenbailen obe. Oien isekak eta zigorrak artuz bizirik jarraitzea baño ariñagoa izango da. Ar-zulo ontan, bakar-bakarrik, etsai amorratuen mende, zer besterik ote da inperua? -zion Dardarrek.

Noiznai ondoan zeukan Bibote-Aundi. Aurpe-gira ixtua botatzea zan bere lenengo lana. Gero, arkume iltzeko laban arekin, ziztako bat baño geiago egin zizkion, odola ateratzeraño.

- Sartu ondoraño, bai, ta il nazazu lenbailen. Neretzat ariñago da eriotza; deabruakin orrela bizitzea baño.

- Ai gizarajoa! Etzenduke gutxi nai. Ederki suprituta joan bear dezu mundu ontatik. Bestela, lotu baño len ilko ziñudan. Basajaun etorri arte beñepein, orrela egon bearko dezu, zurekin zer egin erabaki dezan arek.

- Etzera eskarmentuan sartu-errea. Zuri ere orixe berbera egingo dizu. Zergatik ez gera elkartzen ta bera galdu?

- Ja-jai! Euliari egundo askatasunik emango ote dio armiarmak? Oso-osorik nere mende zaude. Ta ainbeste iseka egin didan zu bezelako bat zigortzeak, atsegin ematen dit. Ai zer nolako musua emango didan neri Basajaunak!

- Bi urde elkarri musuka, parregarria izango dek orratik.

- Leku txarrean zaude gero. Kontuz iseka oiekin! Luzatu gabe, baita zure emaztearen musuak ere artuko ditut.

Ori entzun zuenean, amorru bizi batek lotu

zuen Dardar. Ori ere egingo zioten eta berak babesterik ez!

– Ai, Anttoni maitea! Zure aolkuak entzun bannitu, ez nengoke ni auen mende ta nere biziaretsia. Ta badakit zigorraren zigorrez ilko nautela. Gorrotoak ez baitu biotzik. Agian nere mesedera-ko izango da –zion berekiko.

Ta, bere onera etorri zanean, ala erantzun zion:

– Arek, zu bezelakoari, sardearekin ematen dio musu.

Bibote-Aundik etzion erantzun.

Dardar otoi ta otoi ari zan, lekaime bat bezela, Jaungoikoak atera zezala estuasun artatik, mirari bat egin ezik galdua zegoen-ta.

Jaiak bukatu bezperan azaldu zan Basajaun. Dardar lotua ikusi zuenean, aren atsegiña!

– Baneukan ordu au irixteko gogo. Etsai gogorren aurka egin dezu gudua.

– Badakit, bai, diruaren aurka ta kontzientzirik ez duenarekin leku txarrean nabillela.

– Nere mendean zaudela ere, iseka egiten al didazu?

– Ez; muxu emango dizut.

– Kontuz gero, bestela bertan ilko zaitut!

– Bai, bai. Sinisten dizut. Ez didazu bi aldiz esan bearrik. Deabruak, dabillen lekuan, laxter erakusten ditu bere adarrak.

Ori entzun zuenean, ixtua bota zion ta bi malleko eman.

– Oraingotik lepra gaixtoren bat arrapatu bearrean naiz, bi urderen lerdeak aurpegiaren artuta. Garbitzerik ez, berriz.

– Nai dezuna esan. Baña zureak egin du.

– Bizi naizen arte ez det etsiko.



Lotuta zegoen Dardarren begiratuak, izutu egi-  
ten zuten Basajaun.

– Ametsak egitea bearrezkoa omen da  
–erantzun zion.

– Etzera zu ere urrutira joango. Norbaitek  
arrapatuko zaitu.

– Zurea bukatu ezkerro, ez dit ajolik. Esan ni-  
zun bide oietan ibilliko nintzala ni ere.

– Bai. Egia da ori. Ezin ukatu. Ta ni galeran,  
zoritxarrez. Bakarra zala uste bainuen. Iruzurtua  
nenbillen. Ez nuen uste onenbeste billau batera  
bilduko ziranik.

– Zure indarrak ez dute orain ezertarako ba-  
lio.

– Ez nuke ainbeste esango. Ori oraindik ikus-  
teko dago.

– Lotuta ere bai?

– Baita lotuta ere. Nik ez det oraindik nere  
burua galdutzat jotzen.

– Ez zurea bakarra. Baita emaztearena ere.

– Gudu au gu biona da. Utziozu nere emaz-  
teari pakean. Ni galtzen banaiz, naiko lanak izan-  
go ditu gaixoak seme-alabak azitzen.

– Ez olako ametsik egin, Dardar. Zure emazte  
ta seme-alaben eriotzak ementxe ikusi bearko di-  
tuzu, su-garretan erretzen. Azkena, berriz, zerori.  
Zuloa ondo itxiko degu ta kito. Ea nork billatzen  
dituen zuen aztarrenak.

– Gizartean zu oso goxo ta atsegiña zera itxu-  
raz. Baña zure lanak benetan deabruarenak dira.  
Arek ere goxo-goxo zirikatzen gaitu. Baña erruka-  
rria aren mende geratzen dan ura!

– Zu erori zera, bada, ta errukarriak zu ta zu-  
reak.

– Zu zerearekin aterako baziña, bai. Baña len  
ere esan dizut ez detala ezer galdutzat jotzen. Ni

onegiak galdu nau, ta zuek gaixtoegiak galduko zaituzte.

– Azkena irri egiten dutenak, bi aldiz egiten omen dute, Dardar.

– Ori egia diozu. Baña oraindik bizi naiz, eta bitartean ez du iñork azken irrik egingo. Badakizu jainkoen atsegiña omen dala mengantza.

– Laban au oraintxe bertan ondoraño sartuko nizuke. Baña zure eziñezko oñazetan nere begiak ase nai ditut.

– Nere oñazeak luzatu nai izatean, ortxen dago zure benetako arraixkua.

– Lenengo lasai jolas egingo degu zure Anttoni goxoarekin, eta seme-alaba ta emaztearen karraxiak entzungo dituzu. Azkena, berriz, zu.

– Nerekin dezuten asarrea zertan zabaldu seme-alabei, ni banaiz errudun?

– Zu, Bibote-Aundi: ekatzu Anttoni. Seme-alabak ekartzeko, bestea dago esana.

– Deabru auek lau ere badira orduan?

Egunsentia baño len atera zan Bibote-Aundi. Eguerdirako dena bukatu nai zuten, gero elkarrekin bazkari on bat egiteko.

## USTE GABEKOA

Dardarrek etzuen etsi. Ez uste ere Jainkoak bera ta erru gabeko emazte ta aurtxoak errukirik gabe bizirik erretzen utziko zituenik.

Bi edo iru saio egin zituen, loturak askatzeko. Baña alperrikako lana iruditu zitzaion. Alare, za-

lantzan geratu zan. Baña eskumuturrekoak beñe-pein, lodiak izan arren, ustel xamarrak iruditu zitzaizkion. Laxter etorriko zan il edo bizi jotzeko ordua.

Pake-itxuran bere baitara bildua, baña eziñaren ondo gabeko oñazez lotua zeukan biotza.

Ixilik alaxe zegoela, ekarri zuten bere emaztea, ezin lasaiturik negar ta negar. Barru artan illun zegoen, baña noizbait ikusi zuen bere senarra, bazter batean lotua. Ordurako onek argitik illunera sartzen ikusia zuen.

Negar ta negar bien begiak elkar topo egin zutenean, xamurtu zan Dardar.

– Zer erru ote dauka orrek, gaixoak, bere seme-alaba txikiak etxean bakarrik utzita onera ekartzeko?

Aiek ere laxter ekarriko zituzten, eta denen eriotza ikusi bearrean zan bera.

Idixkoak egiten duen alako sudur-txistu bat egin zuen Joxe Iñaxiok, bere emaztea egoera artan ekarri ziotenean.

Basajaunak algaraz esan ere bai:

– Erne oraintxe, mutillak, idixkoa sudur-txistuka asi zaigu-ta.

Beste bi lagunak ere, lasai par egin zuten.

Bereala urbildu zitzaion Anttoniri Basajaun bizartsu ura, isekaz ongi-etorria ematera.

– Ongi etorri –esan zion, lagun bati bezela esku emanaz.

Anttonik ere goxo-goxo erantzun zion, aren eskua artuaz.

Naigabetu zan lotua zegoena:

– Orra nere emaztearen billaukeria! Ori ere diruaren atzetik ote dabil?

Negar ta negar jarraitzen zuen alare Anttonik.

Bere gizona ezin bazan askatu, denak antxe erre bearko zuten.

Bai. Biak eduki zuten etsaia eskuetan, eta joaten utzi zioten. Etzitzaien beste alako aukerarik etorriko. Beren oñazetan aseko zuten aien gorrotoa.

Itz bat esan gabe, begiak jasotzeko beldurrak, bere lekuan txut-txutik, negarrez jarraitzen zuen, bere aurrak noiz ekarriko zituzten beldurrak.

Basajaunak, bada, itxuratsu, urrikaldu balitz bezela, ala esan zion:

– Oraintxe daukazu senarrarekin itzegiteko aukera. Berdin geiago ez dizugu utziko.

Deabru baten arrazoiak ziran oiek.

Ixil-ixilik urbildu zan. Egoera artan, zer esan bear zioten elkarri? Pazientzi pixar bat artzeko, laxter bukatuko zirala aien negar ta oñazeak. Beste biderik etzeukaten: etsipena artu ta Jaunaren borondatera makurtu.

Elkarri musu bana eman zioten. Azkenekoa noski. Ta Anttoni, joan bezela, txut-txutik bere lekura etorri zan. Senarrari pakean utzi zion, bes-teen purrustadaren bat artuko zuen beldurrak.

Biak beren baitara lotuak geratu ziran, ordu larri artan pentsatzen. Ain zorionsu bizi ziranak, orra dena aldrebestu.

– Zuk ez dituzu aurrak ekarri? –galdetu zion Basajaunek Bibote-Aundiari.

– Ez. Erbiñude arek jauzi batean leiotik iges egin baidit. Onuzkero bazterrak naasi ditu. Lotuta dagoen Artzak baño adimen erneagoa dauka. Olakori agindu diot. Laxter ekarriko ditu noski. Orduan asiko da gure jolasa.

Lotuaren ondora etorrira, isekaz ala esan zion Basajaunek:

– Sinismenik badezu, eskatzen al diozu Jain-

koari zure pekatuen barkapena. Oraintxe ordu gutxiko bizia daukazu. Txikienetik asita, azkene-ko zu erreko zaitugu, jolasak egin ondoren. Arzuloa itxi ta joango gera.

Amorruari ezin eutsirik, berriro alako sudur-txistuka bat egin zuen Dardarrek.

– Sudur txistuka ari da idixkoa, suari beldur izaten baidio.

– Onenbeste iseka, zemai ta urdekeri, aski da gizon baten pazientzirako. Zenbat ziñaten jakin nai nuen. Denak nere sarean eroriko zerate.

Bere esku, gerri ta oñei alako indarrezko astindu bat egin zien, eta lotura guziak aidean joan ziran, bera jauzi batean zutik jarriz.

Basajaunek etzuen atzeratzeko betik izan. Zer egin pentsatzeko ain gutxi. Lenengo ezkerkada ari eman zion bizar aundi aietan. Botean arkaitzak buruarekin jo eta ziraldoka sutarako pillatua zeukaten egur artera erori zan.

– Ez dezu berriz esango, nere indarrak ez dutela batere balio.

Buruan egurrarekin jo zuena arrapatu zuen urrengo.

– Torizu emandakoaren ordaña!

Au ere egur-pillara joan zan.

Bibote-Aundik, Dardar aske ikusi zuenean, izutua ala zion berekiko:

– Orrek ainbeste indar daukan elefanterik ere ez da. Lotura oiek autsi, ala jainkia! Ez dago orren ondoan atsegin.

Laxterka abiatu zan betiko bere puñalaren bila. Baña Dardarrek etzion betik utzi. Bidean lepa-zamarretik arrapatu zuen.

– Ez, Praixku, begi-luze! Ez dituzute nere indarrak ondo neurtu. Orain probatuko dezu balio duten edo ez. Non dira zure zemaiak? Nere mutur

aundi auek mazpilduko etzenituen, bada? Bustitako olloa dirudizu. Belaunak ere *klik* egiten dizute. Amaika lerde zikin bota didazu aurpegira. Labanarekin ziztako pranko egin ere bai nere lepazpian. Ez dezu beste olako aukerik izango.

– Obe nuen, bai, orduan ondoraño sartu izan banizu. Etzenduen orain olako jauzirik egingo. Gizon batek lokarri oiek eten bear zituenik ere!...

– Ni onegiak ontaratu niñuen. Zuek, berriz, gaixtoegiak. Gorrotoa nere oñazetan ase nai zenduten. Baña kukuak oker jo dizute. Zertarako urde batekin itz egin?

Eman zizkion bi eskuekin muturreko bana ezker-eskubi, ta an joan zan ziraldoka egur-pillaren gañera, ezin esnaturik zeudenen tartera.

Esku-oñak lotuta, bere oatze zikin artara bota zuen. Ezin xuxperturik ari ziran aiek ere berdin, Bibote-Aundiren ondora. Gero, balde batekin ur preskoa aurpegira ixuriz, bere onera etorri zitezten, ala esan zien:

– Orra ur-aukera burutik beera, bataiatu ga-beak agian izango zerate-ta. Orain guk egingo degu jolasa. Baña laugarrena arrapatu arte ez, ura ere zuen ondoan eortzi bear degu-ta.

Maiaren ondoan zegoen zagi aundi artatik tra-goxka bat ona egin zuen.

– Bost egun auetan ez didazute ontatik ere eman.

Oraindik etzan laugarrena ageri; ta, luzetetsirik, Anttonik ala zion:

– Zer egiten degu guk emen, zikin-zulo ontan? Aur gaixoetara joan nai nuke. Nola ote dabilzkite?

– Bertara ekarriko dizkigula ez digu, bada, esan Basajaunek? Egon lasai. Ura datorrenean, jolas-puska bat eginta joango gera.

– Jolaserako lekuak eta orduak al dira auek?

– San Juan suak ez dio iñori kalterik egiten. Guretzat moldatua zeukaten epur-pilla ortan, berak erreko ditugu. Bizirik utzita ezin joango gera, bada. Laxter genduke berriro eraso.

– Askatu zeran pozez ari zera berriketan, umetxo bat bezela. Baña, Joxe Iñaxio, zuk ez dezu olakorik egingo.

– Zergatik ez? Ikusiko dezu.

– Ziur badakit ezetz. Ezagutzen baizaitut. Ori egingo bazendu, zere denbora guzian kezketan biziko zinake.

– Arrazoi dezu, Anttoni. Pitxar-aotan zipoztutako kortxoa bezela, gorrotoak trinkotua neukan nere biotza. Baña zuk esan dezun bezelakoa naiz. Ez det egingo olakorik. Txerriak il da gero erretzen dira, ta nik ez daukat nere eskuz auek iltzeko gogorik. Justiziak egin beza dena.

Senar-emazteak izketan ari zirala sartu zan laugarrena. Dardar aske ikusi zuenean, etzekien zer esan.

– Non dituzu gure aurrak? –eraso zion Joxe Iñaxiok.

– Nik ez det zuen aurrik ikusi –erantzun zion.

– *Alto!* -oiu egin zuten orduan ar-zuloko sarre-  
ra estutik.

– Nor zerate zuek? –galdetu zien Dardarrek.

– Erriko ertzañak.

– Aurrera orduan.

Aiei bidea erakutsiz, etorri zan laugarrenari, esku emanaz, ala esan zion:

– Ongi etorria, Judas. Arek Jainkoa saldu zuen. Zuk, berriz, iru deabru. Kontrabandoan nere lagun zina, orain berriz etsai? Or konpon, Joxe! Norbaitek aztertuko ditu zure lanak.

Ertzañak, sartu ta arriturik:

– Zu etzeunden bada lotua? Ta fameli guzia iltzeko asmoan etzebiltzan intxixuak? Guri ala esan digute.

– Oraintxe amar minutu arte ala nengoen. Baña aingeru guardakoak ebaki dizkit laban txorrotx batekin loturak.

– Jakin genezake aingeru guardako ori nor dan?

– Bai, ertzañak, bai. Nere emaztea. Bibote-Aundi txarrean asten bazitzaion ere, bidean bere burua babesteko, laban txorrotx ori zekarren. Grazi bat bezela, nerekin itzegiten utzi diote. Ta onek ez du egokiera ori galdu. Eskerrik asko biotz-biotzez, Anttoni! Bion bizitzak salbatu dituzu.

Lotuta zeudenen artean alako marmar bat entzun zan. Elkarri aitzaki ematen ari ziran.

– Joxe Iñaxio, emendik aurrerakoa auek egingo dute –esan zuen Anttonik–. Aur gaixoak datozkit gogora.

– Aurrak? –erantzun zion ertzain batek–. Aiek leku seguruan daude. Zuen morroi gazte orrek jetxi ditu errira, ta endorearen emazteak zaituko ditu, emengo gora-beerak bukatu arte. Ertzain guziak ere alkateak biali gaitu mendira. Au arrapatu degu zuen etxean, ta onek erakutsi digu onerako bidea. Baña erria zure zai dago. Don Lukasek arro-arro kontatu zion endoreari: «Azkenean nik izan arrazoi. Arrapatu dute Dardar, eltzaorra joka ari dala». Erriari, berriz, gaur amabietan jetxiko ziñuztela. Beraz, erria zu ikusi zai dago, denbora berean Don Lukas omentzeko, zu, intxixu ori, arrapatu zaitulako.

– Kukuak oker jo dio, bada. Aren ordeez, orain ni omenduko naute.

– Uste gabeko ederra erriarentzat.



- Auek nor diran jakitean, bai beste batzuentzat ere -zion alai Dardarrek.

Intxixu ta bere laguntzalleak ondo lotu ta abian, ala esan zien Dardarrek:

- Eskerrik asko, bost egun ta gautan mantendu nauzutelako.

- Erori ziñanean biotz-biotzera labana sartu banizu, ez giñan gaur ola joango.

- Gorrotoaren lanak, Prasku.

Goiz atera ziran, baña urruti zegoen erria. Alare, amabiak alderako iritxi ziran.

Zai zegoen erria, intxixua ikusi ta Don Lukas omentzeko. Baña an etzeterren Dardarrik. Beste lau zekarzkiten.

- Nor dituzute oiek? -galdetu zuen erriak.

- Intxixuak.

- Eta Dardar?

- Arek lotu ditu.

Ura zan uste gabekoa.

- Eta Don Lukas?

- Guk ez dakigu ezer ere.

Endore ta epaillea ere an zeuden zai.

- Ikusi bear degu nere semea illerazitako Basajaun au nor dan.

Endoreak ille-bizarrak kendu zizkionean, Don Lukas azaldu zan.

Sumindu zan endorea. Ala zion:

- Beti nere lagun kutuna bezela ibilli zera, ta bitartean ainbeste gizon illerazi dituzu. Aietako bat, nere semea. Nazka ematen dit arpegira begiratzeak ere. Utika, deabru ori! Justiziak jakingo du zurekin zer egin.

Ertzañei eskerrak. Bestela, erriak bertan txikituko zuen.

## AZKENA

Intxixuak espetxeratu ta andik ordu erdi inguru etorri zan Dardar, bere emazte Anttoni, ta Migeltxorekin, eltzaorra lokarri batekin lepotik galtzarpera zintzilik, gaurko eskuko soñuaren antzera.

Erritarrak, Dardar-ta bazetozela oartu zira-nean, egundoko ongi-etorria egin zieten, bat-batekoa gañera, intxixu gizon iltzalle aiek galdu zituelako. Zoriontsu igaro ziran, txaloka ari zitzaizkien aien artetik.

Migeltxo ta Anttoni endorearen etxera joan ziran, an zeuden seme-alaba txiki aiek artuz eskerak ematera.

Txaloak entzun zituztenean, oraindik elkar izketan ari ziran erriko aundizkiak. Erretorea ere bai. Ikasi baizuen gertatzen zanaren berri.

– Eskerrik asko, Joxe Iñaxio. Ez dakizu, intxixu oiek arrapatuarekin, zer lasaitasun ekarri dizun erri oni. Ainbeste gizon il dituen Bibote-Aundi ori; ta oraindik okerragoa zan noski, erri ontan denen eder egiñez bizi zan nere lagun billau ori.

– Bai. Denetan gaixtoena ori nuen: Don Lukas. Lendik banekien nik ori; baña lekukorik ez izaki. Neretzat atsegiñena, ala ere, orain erriak badakiela ez nintzala ni orko intxixua, ta lasai bizitzeko modua izango degula, ta mendi eder auek berriro artzaiz beteko zaizkigula.

– Zer dezu bizkarrean dakartzun ori?

– Eltzaorra. Orro gaixto oiek onekin ateratzen zituen.

– Sinistreak ere lan du, eltze zar orrek nola ate-

ra lezaken ainbeste kilometrora beti belarri ondoan entzuteko añako karraxia.

Dardarrek, eskuetan artuz, buelta batzuk eman zizkion, larru-zerrendak biurritu ziran arte. Gero, eskuzko soñu bati bezela bi ertzetara estutu ta zabalduz, atera zuen orro izukor ura. Joxtallu bat zirudien.

- Arrigarria! -zieten-. Nork asmatu ote du?

- Ori ez dakit.

Eltxe gorrixta bat zan. Lau zulo ondoan egiñak, eta aietatik paseak lau larru-zerrenda, gordiñak eta beiarenak, eltzearen bi aldeetara esku-leku banatan lotuak. Botoi batek, txuloetatik aria pasata, biurritzean burrundara sortzen duen bezela, egiten zuen eltzaorrek ere.

- Nik au salgai dakart. Ogei ta amar ontzako ematen badizkidazute, zuena da.

- Ogei ta amar ontzako urre? Ez dezu gutxi eskatzen.

- Arrapatzen zuenarentzat eskeñiak daudenak. Besteriz ez.

- Arrazoi dezu.

Dardarrek, dirua jasota, eltzaorra aiei eman zien.

Gudarako ona zala-ta, militarrek eraman zuten. Baña bein larru-zerrenda aiek legortu ziran, gure eltzaorra mututu egin zan. Gordin berririk jarri zizkioten. Gantz edo koipe berezi batekin igurtzitzen omen zituen intxixuak. Geroztik, ori nolakoa zan etzuten asmatu. Intxixuak, berriz, ordurako urkatuak ziran.

Dardar berriro, bere emazte, aur ta Migeltxoekin, baserrira igo zan.


- Ogei ta amar ontzako urre eman dizkidate -esan zien Dardarrek-. Auek ez dira nereak bakarrik. Intxixuaren atzaparretatik ateratzeko, irurok

meritu berdintsua degu. Au dena nik bakarrik jasoko banu, gaizki egingo nuke. Torizkizu, Migeltxo, amar. Merezi dituzu. Neri baño beldur geiago zizun noski intxixuak zuri.

– Eskerrik asko, osaba.

– Anttoni, torizkizu beste amar. Zu ez baziñan an azaldu ta buruz jokatu, galdua nengoen. Beste amar auek neretzat. Amets gaixto bat bezela igaro da intxixuarekiko burruka. Orain pakean utziko al digute!

Berriro mendia artzaiz bete zan, eta Dardar bere artaldearen erdian an ikusiko zenduen, esker oneko artzaien omenak artuz.



AUSPOA  
LIBURUTEGIA